

LGTB* IZATEAGATIK
SUFritu DAITEKEEN
ESKOLA-JAZARPENA
EKIDITEKO PROGRAMA
BATEN DISEINUA
GRADU AMAIERAKO LANA
KRIMINOLOGIAKO GRADUA

2019-2020

Ikaslea:

Onintze Sojo Martín

Zuzendaria:

Ainize Sarrionandia Peña

<u>1. Sarrera</u>	5
<u>2. Helburuak</u>	5
<u>3. Justifikazioa</u>	6
<u>4. Atal teorikoa</u>	7
4.1. Genero identitatea eta sexu-orientazioa	7
4.1.1. Genero identitatea	7
a) <i>Zisgeneroak</i>	8
b) <i>Trans*ak</i>	8
d) <i>Intersexualak</i>	10
4.1.2. Sexu-orientazioa	10
a) <i>Heterosexualitatea</i>	10
b) <i>Homosexualitatea</i>	11
d) <i>Bisexualitatea / pansexualitatea</i>	11
e) <i>Asexualitatea</i>	12
4.1.3. Genero-adierazpena	13
4.1.4. Praktika-sexualak	13
4.1.5. LGTB* siglak	14
4.1.6. LGTB*fobia	14
a) <i>Homofobia</i>	14
b) <i>Lesbofobia</i>	15
d) <i>Bifobia</i>	15
d) <i>Transfobia</i>	15
4.1.7. LGTB* kolektiboa XX. mendean	16
a) <i>Espainiako legedia XX. mendean</i>	16
b) <i>LGBTB* izatea gaixotasun mentaltzat hartzea</i>	17
4.1.8. LGTB* kolektiboa gaur egun	18
a) <i>Gaur egungo legedia</i>	18
b) <i>LGBTB* izatea gaixotasun mentaltzat kontsideratzeari uztea</i>	25
d) <i>LGBTB* kolektiboaren ikusgarritasuna eta adierazgarritasuna</i>	26
4.2. Eskola-jazarpena	30
4.2.1. Definizioa eta ezaugarri nagusiak	30
4.2.2. Jazarpen motak	32
4.2.3. Jazarpenaren subjektuen ezaugarriak	32
4.2.4. Jazarpenaren ondorioak	33

a) <i>Biktimengan</i>	33
b) <i>Erasotzaileengan</i>	34
d) <i>Ikusleengan</i>	34
4.2.5. Eskola-jazarpenari buruzko datuak	35
a) <i>LGTB* izateagatik sufritu daitekeen eskola-jazarpenaren intzidentzia</i>	35
b) <i>Jazarpen moten maiztasuna</i>	36
d) <i>Eskola-jazarpena adinaren arabera</i>	36
e) <i>Eskola-jazarpena generoaren arabera</i>	37
f) <i>Eskola-jazarpena gertatzen den tokia</i>	38
g) <i>Eskola-jazarpenaren justifikazioa</i>	38
h) <i>Egoera salatzea eta laguntza ematea</i>	39
i) <i>Eskola-jazarpenaren ondorioak</i>	40
4.3. LGTB* kolektiboak eskola-jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko dauzkan baliabideak	41
4.3.1. <i>Elkarteak</i>	41
4.3.2. <i>Eskola-jazarpena detektatzeko tresnak</i>	41
a) <i>Eskola-jazarpena detektatzeko adierazleak</i>	42
b) <i>Eskola-jazarpena detektatzeko testak</i>	43
4.3.3. <i>Eskola-jazarpena ekiditeko programak</i>	46
a) <i>KiVa programa</i>	46
b) <i>TEI programa: berdinen arteko tutoretzak</i>	47
d) <i>Eskola indarkeriaren aurkako Sevilla Proiektua (SAVE)</i>	49
4.3.4. <i>Eskola-jazarpena ekiditeko beste motatako baliabideak</i>	50
4.3.5. <i>Eskola-jazarpena kasu batean nola jardun azaltzen duten gidak</i>	52
a) <i>Protocolo de intervención en caso de acoso escolar por homofobia y transfobia entre el alumnado</i>	53
b) <i>Eskola-jazarpen kasuetan ikastetxeetan jarduteko gida</i>	54
5. Atal praktikoa	57
5.1. Sarrera	57
5.2. Programa	58
5.2.1. <i>Helburuak</i>	58
5.2.2. <i>Partaideak</i>	59
5.2.3. <i>Programa emateko arduraduna</i>	59

5.2.4. Iraupena eta programa non emango den	59
5.2.5. Programaren ezaugarriak	59
5.2.6. Saioak	60
a) Lehenengo saioa	60
b) Bigarren saioa	63
d) Hirugarren saioa	65
e) Laugarren saioa	67
f) Bostgarren saioa:	69
g) Seigarren saioa	71
h) Zazpigarren saioa	73
i) Zortzigarren saioa	76
j) Azken saioa	78
5.3. Eztabaida	79
<u>6. Bibliografia</u>	<u>82</u>
<u>7. Eranskinak</u>	<u>90</u>
7.1. I. eranskina	90
7.2. II. eranskina	90
7.3. III. eranskina	92
7.4. IV. eranskina	92
7.5. V. eranskina	93
7.6. VI. eranskina	95
7.7. VII. eranskina	96
7.8. VIII. eranskina	97
<u>8. Txosten exekutiboa</u>	<u>101</u>

1. Sarrera:

Lan honetan, nagusiki LGTB* kolektiboari buruzko gaiak lantzen dira. LGTB* terminoak, modu inklusiboan, Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexual gisa identifikatzen diren norbanakoei eta genero eta sexu-orientazio estandarren barruan sartzen ez diren gainerako pertsoneri (asexualak, intersexualak...) egiten die erreferentzia.

Alde batetik, genero-identitate eta sexu-orientazio aniztasunari buruzko gaiak azalduko dira: genero-identitate eta sexu-orientazio dibertsitatea, LGTB*fobia eta kolektiboaren egoera azken mendean eta gaur egun. Bestalde, eskola-jazarpenaren fenomenoaz aztertuko da, LGTB*fobiarekin lotuta dagoen diskriminazio-egoera delako, kolektiboak gaur egun oraindik egoera horri aurre egin behar diolako.

Lan honen muina da LGTB* izateagatik sufritu daitekeen eskola-jazarpena prebenitzeko programa bat proposatzea da. Zehazki, programa LHko hirugarren mailako ikasleentzat zuzendutakoa izango da.

Programaren helburu nagusiak bi dira. Alde batetik, eskola-jazarpeneko jokabideak prebenitzea, bai ikasgelan bertan, bai ikasgelatik kanpo. Beste aldetik, LGTB* kolektiboari buruzko informazio egokitu ematea. Azken finean, programa honen bitartez eskola-jazarpeneko egoerak prebenitu eta LGTB* ikasleen bizi-kalitatea hobetu nahi da. Horretarako, hainbat saio proposatzen dira, genero-aniztasunarekin, sexu-orientazioarekin eta eskola-jazarpenarekin zerikusia daukaten gaiak landuz.

2. Helburuak:

Lan honen helburu orokorrak ondorengo hauek dira:

1. Genero-aniztasunaren eta sexu-orientazioaren ezagutza sakontzea.
2. LGTB* kolektiboaren eskubideak babesten dituzten legeak ezagutzea.
3. Kolektiboaren azken mendeko egoera ezagutzea.
4. Kolektiboaren gaur egungo egoera aztertzea.
5. Genero-identitatearen eta sexu-orientazioaren ondoriozko eskola-jazarpenaren fenomenoaz aztertzea.
6. Eskola-jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko existitzen diren tresnen berrikuspena egitea.

7. LGTB* izateagatik sufritu daitekeen eskola jazarpena prebenitzeko helburua daukan programa bat sortzea.

3. Justifikazioa:

Azken urteotan, gazte askok LGTB* izateagatik eskola-jazarpena sufritzen dela argi geratu da. Adibidez, Bartzelonan bizi zen Alan izeneko gazte transexualaren kasua, 2015 urtean eskola-jazarpena jasateagatik bizia kendu baitzuen (Álvarez, 2015). Nahiz eta Alanen kasuaren antzeko berri gehiago aurkitu, genero-identitateagatiko eta sexu-orientazioagatiko eskola-jazarpena errealitate ikusezina da oraindik.

Lan asko dago egiteko jendartearen zati handi batek ez duelako onartzen zis-heterosexualitatetik ateratzen den genero nahiz orientazio-sexualik. Egoera honen adibidea da “Hazte Oír” autobusaren kasua, ondorengo mezua idatzita zeukana: "Mutikoeak zakila dute, neskatoek bulba. Ez zaitzatela engainatu. Gizon jaiotzen bazara, gizona zara. Emakume bazara, hala izaten jarraituko duzu." (Rodríguez, 2017). Horrelako ekimenek Vox alderdi politikoak proposatzen duen guraso-pinarekin bat egiten dute. Gurasoek ikasgeletan edukia betatzeko duten tresna da guraso-pina. Modu honetan, gurasoei alde zuzenetik jakinarazi behar zaie, berariazko baimenaren bidez, genero-identitateari, feminismoari edo LGTB* dibertsitateari buruzko edozein gai, hitzaldi, tailer edo jarduera egiteko asmoa badago ikastetxean. Honek gurasoei baimena emango die haien semeak-alabak jarduera horietan parte har dezaten edo ez erabakitzeko (El País, 2020).

Beraz, LGTB* komunitateak bizi duen diskriminazio eta ikusezintasuna eskola-eremura eramaten da, eskola-jazarpena izeneko fenomeno sortuz. Ikasleen %30ak ekintza homofoboak egin dituela (irainak, mespretxuzko komentarioak...) onartzen du. Era berean, %15ak ekintza larriagoak egin ditu (indarkeria fisikoa, isolatzea...) eta %3ak beste ikasle bat jipoitu duela onartzen du. Halaber, ikasleen %6ak homosexualak mespretxuz tratatzea zuzena dela uste du, eta %7,4ak dio homosexualak mespretxuz tratatzea zuzena dela kasu jakin batzuetan (Pichardo eta koolk., 2007). Egoera honek, LGTB* diren ikasleentzat ondorio negatibo ugari sortzen ditu. Horien artean, norbere buruaz beste egiteko ideak sortzea. LGTB* gazteek gazte heterosexualekin konparatuz norbere buruaz beste egiteko probabilitate handiagoa daukate (Miranda-Mendizábal eta koolk., 2017; Ream, 2019). Halaber, biktimen %14-20ak ez du eskola-jazarpeneko

egoera salatzen (Defensor del Pueblo, 2000). Beraz, LGTB* kolektiboa zaugarritasun handiko kolektiboa da eskola-eremuan.

Arrazoi guzti hauek direla eta, beharrezkoa da ikasle gazteen artean LGTB* izateagatik sufritu daitekeen eskola-jazarpenaren kontrako jarrera sustatzea. Horregatik, hain zuzen ere, lan honetan LGBT* izateagatik sufritu daitekeen eskola-jazarpenera prebenitzeko programa bat planteatzen da.

4. Atal teorikoa:

Atal teorikoa bi azpiataletan banatuko da. Alde batetik, genero-identitatea eta sexu-orientazioa aztertuko dira. Beste aldetik, eskola-jazarpenaren fenomenoaz aztertuko da. Bi atalek nolabaiteko lotura daukate. Izan ere, LGTB* pertsonen aukera gehiago dute eskola-jazarpenera sufritzeko.

4.1. Genero identitatea eta sexu-orientazioa:

Genero-identitatea eta sexu-orientazioa desberdin beharrezko kontzeptuak dira. Horregatik, jarraian fenomeno bakoitza azalduko da eta bakoitzaren barnean sartzen diren mota desberdinak azalduko dira. Ondoren, genero-adierazpenari eta praktika sexualei buruz hitz egingo da, aurreko bi kontzeptuekin lotura daukatelako. Azkenik, LGTB* siglak azalduko dira eta komunitate horren kontrako diskriminazioaren inguruko hurbilketa burutuko da.

4.1.1. Genero identitatea:

Gizonezkoak eta emakumezkoak ezaugarritzen dituzten bereizgarritasun soziokulturalek (portaera, sentimenduak, jarrerak, eta abar) osatzen dute generoa. Jaiotzerakoan, sexu biologikoaren -genital femenino edo maskulinoekin jaiotzearen arabera, jendartean egokia kontsideratzen den generoa ezartzen da (Generelo eta koolk., 2007; Generelo eta Pichardo, 2005). Errealitatean inor ez da emakume edo gizon jaiotzen, baizik eta, genero horrekin identifikatzera ailegatu da pertsona bat sozializazio prozesu konplexu baten ondorioz.

Kultura batek, desberdintasun anatomikoak oinarritzat hartuta, ezaugarri “femeninoak” eta “maskulinoak” ematen dizkie bizitzaren esparru desberdinei (alderdi sozial, ekonomiko eta politikoei). Adibidez, alderdi sozialari dagokionez, etxeko lanak egitea emakumearen eginbeharra direnaren ideia dago. Modu horretan, bakoitzaren portaera eta jokamoldea baldintzatzen dira (janzkera, sexualitatea, zaletasunak, emozioak adierazteko modua...). Banaketa horiek haurtzarotik hautematen dira hizkuntzaren eta kulturaren materialtasunaren bidez (objektuak, irudiak eta abar). Bi eta hiru urte bitartean haurrek badakite beren burua femeninoan edo maskulinoan aipatzen, desberdintasun biologikoa zertan datzan argi ez badute ere. Haur askok ez dute ezberdintasun anatomikoa ulertzen, baina gai dira arropa, jostailuak eta sinbolo nabariak mutikoenak ala neskenak diren bereizteko (Lamas, 2007). Hau da, hain zuzen ere, sozializio prozesu hori, pertsona bat jendartean onartuta dagoen genero batekin identifikatzera bultzatzen duena.

Genero kategoriak kulturaren arabera desberdinak izango dira, horregatik, bestelako kulturetan generoen inguruan transmititzen diren sinesmenak eta balorazioak ezberdinak dira (Lamas, 2007; Mujika, Villar eta Rueda, 2019). Gehienetan emakumegizon dikotomia hartzen da oinarritzat. Hala ere, genero dibertsitate handiagoa dago bi genero horietaz aparte: ageneroak, genero aldakorra... (Mujika, Villar, eta Rueda, 2019).

Azken finean, genero identitatea pertsona bakoitzak bere generoarekiko daukan esperientzia da, zeina jaiotzerakoan izendatutako sexu biologikoarekin bat etorri daitekeena, edo ez (European Union Agency for Fundamental Rights, 2013). Dena dela, nahiz eta genero eta sexu biologikoa kontzeptu desberdinak izan, askotan bata zein bestea erabiltzen dira ezberdintasunik egin gabe (honen adibidea DSM-Va da).

Genero identitatearen arabera hiru talde nagusi ezberdinu daitezke: zisgeneroak, trans*ak eta intersexualak, jarraian banaka definituko direnak. Hala ere, lehenago aipatutako moduan, dibertsitate handiagoa dago.

a) Zisgeneroak:

Sexu biologikoak eta jaiotzerakoan ezarritako generoak bat egiten dute (Fundación EDE, 2016; Mujika eta koolk., 2019).

*b) Trans*ak:*

Aterki termino honen azpian pertsona transgeneroak, transexualak eta trabestiak sartzen dira. Guzti hauek jaiotzerakoan ezarritako generoa zalantzan jartzen dute, haiek sentitzen duten generoarekin bat egiten ez duelako (transgeneroak eta transexualak), nahiz haien generoarekiko espero diren jarrerak ez dituztelako (trabestiak) (Fundación EDE, 2016; Mujika eta koolk., 2019).

Trabestismoaren kasuan, nahiz eta pertsonaren generoak eta sexuak bat egiten duten, kontrako generoaren antzera janzten dira. Honen helburua fantasia edo estimulazio erotikoa lortzea da. Beraz, pertsona transexual bat trabesti izan daiteke edo ez, ez daude zertan lotuta egon (Mujika eta Ureta, 2007).

Transgenero eta transexualen kasuetan, berriz, genero identitateak eta sexu biologikoak ez dute bat egiten. Trans* den pertsona bat izendatzerakoan beti kontuan izan behar da bere genero identitatea erabili behar dela, ez sexu biologikoa. Hau da, genital femeninoekin jaio den transgeneroa, gizon transgeneroa izango da, bere generoa maskulinoa delako. Era berean, genital maskulinoekin jaio den pertsona transgeneroa, emakume transgeneroa da, bere generoa femeninoa delako (Generelo eta koolk., 2007; Generelo eta Pichardo, 2005).

Trans* diren pertsonak, sentitzen duten generoaren gorputza lortzeko asmotan, hormonak hartzen dituzte edo sexua berresleitzeko ebakuntza egiten dute. Hormonazio prozesua beste sexuko hormonak hartzean datza, biologikoa ez den sexuarekin lotutako gorputz-ezaugarriak lortzeko (ahotsa aldatzea, bizarra izatea edo ez...). Gizon trans*ek testosterona hartu behar dute horretarako, aldiz, emakume trans*ek, estrogenoak. Ebakuntzari dagokionez bi ebakuntza mota existitzen dira. Alde batetik, bularretako kirurgia dago (sexuaren arabera bularra jartzeko edo kentzeko). Beste aldetik, kirurgia genitala dago, organo genitalak eraldatzeko eta sentitzen den sexuari dagokion genitalak edukitzeko egiten dena (Eusko Jaurlaritza, 2016b).

Kasu guztietan trans* diren pertsonak ez dute sexua berresleitzeko ebakuntza egiten, edo hormonarik hartzen. Horregatik, transgenero hitzaren barnean sartzen da genero identitateak eta sexu biologikoak bat egiten ez dutenaren sentimendua daukan pertsona oro. Transexual hitzarekin, aldiz, sexua berresleitzeko ebakuntza egin duten pertsonari egiten zaie erreferentzia (Mujika eta Ureta, 2007).

d) Intersexualak:

Genital anbiguoekin jaiotzen den pertsona da; hau da, ez dagoenean argi pertsona hori genital femeninoekin edo maskulinoekin jaiotzen den. Kasu hauetan, medikuak erabakitzen du zein sexu daukan jaioberriak, eta horren ondorioz jendarteak genero bat ezartzen dio. Nagusitzerakoan, pertsona hauek haien genitalekin eta generoarekin identifikatzeko zailtasunak izan ditzakete (Fundación EDE, 2016; Mujika eta koolk., 2019).

4.1.2. Sexu-orientazioa:

Kontuan izan behar da, normalean, sexu-orientazioari buruz hitz egiten denean beti emakume-gizon dikotomia erabiltzen dela. Horren arabera, sexu-orientazioak ere antolatzen dira, gainerako generoak alde batera utzita.

Ameriketako Psikologia Elkarteak edo APAk (ingelesez American Psychological Association) sexu-orientazioa beste pertsona batekiko sentitzen den erakarpen emozional, erromantiko, sexual eta afektiboa dela azaltzen du (APA, 2008).

Nerabezaroaren hasieran sortzen da, inolako harreman sexualik izan gabe, faktore biologiko, kognitibo eta ingurumen-faktoreen eraginaren ondorioz. Beraz, sexu-orientazioa aukeratzeko ez den zerbait da (Generelo eta Pichardo, 2005).

Orientazio mota desberdinak existitzen dira bakoitza zein generorekiko erakarrita sentitzen den kontuan izanda: heterosexualitatea, homosexualitatea, bisexualitatea, asexualitatea.... Hau da, sexu-orientazio dibertsitatea existitzen da (Mujika eta koolk., 2019). Jarraian, sexu-orientazio nagusienak azalduko dira.

a) Heterosexualitatea:

Kontrako generoarekiko erakarpen afektibo nahiz sexuala da. Heterosexuala da emakumeak gustuko dituen gizona eta gizonezkoak gustuko dituen emakumea (Fundación EDE, 2016; Generelo eta koolk., 2007; Generelo eta Pichardo, 2005). Beraz, generoa da kontuan izaten dena, ez sexu biologikoa.

Espainiako kulturan heterosexualitatea arau modura ezarrita dago eta hortik ateratzen dena ez dago ondo ikusita eta baztertu egiten da. Ondorioz, heterosexualitate normatiboa dagoela esan daiteke (Generelo eta koolk., 2007; Generelo eta Pichardo, 2005). Honek harreman heterosexualak instituzionalizatzea eragiten du. Horregatik, genero eta sexualitate normatibotik ateratzen den edonor baztertu, diskriminatu eta zigortu egiten da. Honen beste ondorio bat, derrigorrezko heterosexualitatea litzateke; hau da, pertsona oro heterosexuala dela suposatzea, gainerako sexualitateak ez direlako kontuan izaten (Mujika eta koolk., 2019).

b) Homosexualitatea:

Genero berdinarekiko erakarpen afektibo nahiz sexuala da. Honen barnean gayak eta lesbianak desberdinu daitezke. Gay hitza homosexualak diren gizonezkoak izendatzeko erabiltzen da; eta, lesbiana hitza, aldiz, homosexualak diren emakumeak izendatzeko. Askotan homosexuala den pertsona bat identifikatzeko haren “pluma”ri edo maneratsua izateari egiten zaio erreferentzia. Maneratsua izatea sozialki haren generoarekin lotzen ez diren keinuak edo portaerak ez izatea kontsideratzen da (Fundación EDE, 2016; Generelo eta koolk., 2007; Generelo eta Pichardo, 2005).

d) Bisexualitatea / pansexualitatea:

Bisexualitatearen edo pansexualitatearen inguruko definizio bat ematea oso zaila da eztabaida handia dagoelako honen inguruan.

Literaturan aurkitzen den lehenengo definizioa gizon/emakume dikotomiaren inguruan sortzen da. Hainbatek diote bisexualitatea norberaren generoarekiko eta kontrako generoarekiko erakarpen fisiko nahiz sexuala dela; hau da, gizon edo emakume batek emakume zein gizonak gustuko izatea (Generelo eta koolk., 2007; Generelo eta Pichardo, 2005; Poynter, 2016). Erakarpen hau ez da zertan erdibidekoa izan behar; hau da, pertsona bisexual bat ez da %50 heterosexuala eta %50 homosexuala. Bisexualitatea, aldiz, jarraikorra izan daiteke eta genero bat lehenetsi daiteke bestearen gainetik. Bisexualitatearen definizio horri kontrajarrita pansexualitatearen hurrengo definizioa aurkitu daiteke: genero guztiekiko edo askorekiko erakarpena, generoa erakarpen horretan faktore bat ez izanik (Poynter, 2016). Definizio honetan oinarrituta, bere burua

pansexualtzat definitzen dutenek uste dute bisexualak, haiek ez bezala, pertsonaren generoari erreparatzen diotela pertsona batek erakartzen zaienean. Definizio hauek defendatzen dituztenek argudiatzen dute pansexualitatea trans* pertsonentzat bisexualitatea baino inklusiboagoa dela, baztertu egiten baitu bisexualitateak dakarren genero-binomioa (APA, 2015).

Beste autore batzuk, horien artean Flanders (2017), beste definizio bat ematen dute. Bisexualitate hitza aterki modura erabiltzen dela diote, eta bertan monosexuala ez den edonor sartzen dela (bisexualak, pansexualak,..). Hau da, bisexual terminoan genero bat baino gehiagorekiko erakarpena sentitzen duen edonor sartzen da. Beste era batera esanda, heterosexuala edo homosexuala ez den edonor bisexuala litzateke, hauek genero bakarrarekiko erakarpena suposatzen dutelako. Hala ere, bisexualitatea eta pansexualitatearen artean desberdintasunak daudela diote, aurretik emandako definizioak onartuz.

Azkeneko definizioa 1990. urtean *Anything That Moves* aldizkarian argitaratutako Manifestu Bisexualean (Holthausen artikulu batean aipatutakoa, 2014) adierazitakoarekin bat dator. Manifestu honek dio bisexualitateak genero binomioari uko egiten diola, bi genero baino gehiago daudelako, hain zuzen ere. Beraz, bisexualitatea jarraikorra den orientazio sexuala da eta genero bat baino gehiagorekiko erakarpena suposatzen du. Modu honetan, pansexualitatea ez dela existitzen suposa daiteke, bisexualitatearen barnean sartzen delako.

Lan honetan erabiliko den definizioa hirugarrena izango da, hau da, bisexualitate terminoa bakarrik erabiliko da, honek genero bat baino gehiagorekiko erakarpena suposatzen duelako, generoa zein den kontuan hartu gabe.

e) Asexualitatea:

Modu egonkorrean erakarpen sexualik ez sentitzea edo jarduera sexualean interes gutxi edukitzea da asexualitatea (APA, 2015), betiere gaixotasun edo beste eragozpen baten ondorioz gertatzen ez bada (López, 2016).

Asexualitatea sexualitaterik ez-ohikoena kontsidera daiteke, nahiz eta erakarpen sexualik sentitzen ez duten, erakarpen afektiboa senti dezaketelako (edo ez). Modu

horretan, orientazio erromantikoa kontuan izanik, pertsona bat heterorromantikoa, homorromantikoa, birromantikoa edo arromantikoa izan daiteke (López, 2016).

Orain arte azaldutakoak agerian jartzen du genero identitatea eta sexu-orientazioaren arteko desberdintasuna egitea beharrezkoa dela. Batak nortasunarekin zerikusia dauka, besteak, nork erakartzen gaituen esan nahi du. Horregatik, nahastu ezin diren kontzeptuak dira.

4.1.3. Genero-adierazpena:

Genero-adierazpena genero-identitate eta sexu-orientaziotik desberdindu beharreko fenomeno da. Genero-adierazpena norbanakoaren generoa besteei adierazteko modua da (izena, arropa, ile-mozketa, portaera, hitz egiteko modua, keinuak eta abar). Honek ez dauka erlazio zuzenik norberaren genero-identitate eta orientazio-sexualarekin (Eusko Jaurlaritza, 2016b; Padilla, 2018). Adibidez, bere burua genero maskulinoz kontsideratzen duen pertsona batek genero adierazpen femeninoa izan ditzake.

4.1.4. Praktika-sexualak:

Praktika-sexualak plazer sexuala lortzeko egiten diren jardun desberdinak dira (masturbazioa, muxuak, felazioak, penetrazioa, trabestismoa, sadomasokismoa eta abar). Horiek genero-identitate eta sexu-orientazioetatik desberdindu behar dira. Ez da existitzen erlazioerik sexu biologiko, orientazio sexual eta praktika sexualen artean. Hala ere, askotan praktika sexual batzuk orientazio sexual nahiz sexu biologiko zehatz batzuekin lotzen dira. Adibidez, penetrazio anala gizonezko homosexualen harreman sexuarekin lotzen da (Generelo eta koolk., 2007).

Praktika sexualak edukitzeak ez du baldintzatzen orientazio sexuala. Hau da, emakume homosexual batek beste emakume batekin harreman sexualik eduki ez izanak ez du zertan bere sexualitatea zalantzan jarri (Generelo eta koolk., 2007; Generelo eta Pichardo, 2005). Gainera, asexuala kontsideratzen den pertsona batek, nahiz eta

erakarpn sexualik sentitzen ez duen, harreman sexualak eduki ditzake hainbat arrazoiengatik (esperimentatu nahi izateagatik, adibidez) (López, 2016).

4.1.5. LGTB* siglak:

Lesbianek, gayek, bisexualek eta transexualek osatzen duten taldea izendatzeko erabiltzen diren siglak dira LGTB. * edo + ikurrak gehitu ohi zaizkio sigla hauei, kolektibo honen barruan arau ez diren edo normatiboak ez diren genero edo sexualitatea daukan edonork sartzeko delako (Generelo eta koolk., 2007; Generelo eta Pichardo, 2005).

4.1.6. LGTB*fobia:

Heterosexualitate normatiboaren eta gizon-emakume dikotomiaren ondorio nagusia gainerako genero identitate eta sexu-orientazioak ikusezinak bihurtzea da. Beraz, normalitateak ateratzen diren identitate eta orientazio horiek gutxietsiak dira, talde bakoitzarentzat arbuioa espezifikoak izanik. Horregatik homofobia, lesbofobia, bifobia eta transfobia desberdinak behar dira:

a) Homofobia:

RAE hiztegiaren arabera (2020), homofobia hitza ingelesez dator eta “homo-“ (homosexualitatea) eta “-phobia” (beldurra) hitzak elkartuz sortu da. Homofobia homosexualitatearekiko edo pertsona homosexualiekiko abertsioa litzateke.

Homofobiarekin erlazionatuta “plumofobia” ere badago. Izan ere, “pluma” izatea edo maneratsua izatea homosexualitatearen erakusgarria baita. Beraz, plumofobia homosexualitatearen manifestazioekiko gutxiespena izango litzateke (Generelo eta koolk., 2007; Generelo eta Pichardo, 2005).

Barneratutako homofobia, heteronormatibitatea eta homofobia orokortuaren ondorioa da. Heterosexuala ez den edonork ere ideia hauek ikasi ditu eta bere buruarekiko nazka eta lotsa senti ditzake eta haien sexualitatea erakusteko beldur dira (Mujika eta koolk., 2019).

b) Lesbofobia:

Homofobiarekin erlazionatuta dagoen terminoa da, lesbiana den emakumea homosexuala baita. Hala ere, normalean lesbianen, lesbianismoaren nahiz haren manifestazio ezberdinekiko gorrotoa, gutxiespena eta beldurra izendatzeko hitz espezifiko hau erabiltzen da, ezkutaketa eta ezjakintasun handiagoa dagoelako lesbianismoaren inguruan homosexualitate maskulinoarekin konparatuz (Generelo eta koolk., 2007; Generelo eta Pichardo, 2005). Horren arrazoi nagusiak hiru dira. Lehenik, emakume homosexualak diskriminazio bikoitza jasan behar dute, homosexualak izateagatik eta emakumeak izateagatik, sexismoaren, matxismoaren eta misoginiaren ondorioz. Bigarrenik, lesbianismoaren inguruko ikerketak homosexualitate maskulinoarekin konparaketak eginez burutzen dira. Azkenik, gizon homosexualak baino ikusgarritasun gutxiago daukate bizitzaren eremu publikoan (Mujika, 2007).

d) Bifobia:

Genero bat baino gehiagorekiko erakarpena sentitzen duten pertsonen arbuioa da bifobia. Era berean, bisexualitatearen adierazpen eta manifestazio ezberdinekiko gorrotoa eta beldurra da. Horrek, pertsona bisexualen gutxiespena sortzen du (Generelo eta koolk., 2007; Generelo eta Pichardo, 2005).

e) Transfobia:

Trans* kontsideratzen diren pertsonen arbuioa eta transexualitatearen manifestazio ezberdinekiko gorroto eta beldurra da. Honek pertsona trans*en gutxiespena eragiten du (Generelo eta koolk., 2007; Generelo eta Pichardo, 2005).

LGTB kolektiboaren kontrako manifestazio hauek kulturaren eremu askotan ikus daitezke. Horien artean, eskola eremua da aipagarri. Bertan haurrak eta nerabeak eskola-jazarpenaren biktimak dira, haien ustezko edo benetako genero identitateagatik edo orientazio sexualagatik (Platero eta Gomez, 2007).

4.1.7. LGTB* kolektiboa XX. mendean:

LGBTB* kolektiboaren onarpena desberdina izan da kultura desberdinetan eta historian zehar. Espainian ere, momentu historikoaren arabera kolektiboaren onarpena desberdina izan da. Azken mendean aldaketa asko gertatu dira gai honetan eta garrantzitsua da ezagutzea orain dela gutxi arte nolakoa izan den egoera. Horretarako, LGTB* kolektiboaren egoera aztertuko da jarraian eremu legalean eta osasun mentalaren eremuan:

a) Espainiako legedia XX. mendean:

1933. urtean “Alfer eta Maleatzaileen Legea” (Gaceta de Madrid, 1933) onartu zen. Lege hau arrote, nomada, proxeneta eta antisozialtzat jotzen ziren beste jokabide batzuen tratamenduari buruzkoa zen. Hasiera batean ez zen inolako aipamenik egiten homosexualitateari buruz.

Francoren diktaduraren hasieran, nahiz eta lege horrek homosexualitatea zigortzen ez zuen, garai hartako Kode Penaleko 433.1 artikulua erabili ohi zuten praktika homosexualak jazartzeko.

433. artikulua:

Honako zigor hauek ezarriko zaizkie: atzipenaldi laria, 500 pezetatik 5000 pezetarainoko isuna eta kargu publikodunentzako desgaikuntza:

1º. Edozein modutan, eskandalu edo garrantzi handiko egitateekin lotsa edo ohitura onak iraintzen dituztenak, halakoak esanbidez jaso ez direnean kode honen beste artikulua batzuetan.

(...)

1954. urtean aldaketa batzuk egin zituzten legedian. Aldaketa horien artean homosexualitatea ere antisozialtzat jo zen eta horien kontrako errepresioa gauzatu zen. Horregatik, segurtasun neurri modura, nekazaritzako lan-establezimendu edo kolonia batean barneratzen zituzten. Gainera, homosexualak erakunde berezietan barneratzen zituzten, besteengandik erabat bereizita. Era berean, debekatu egiten zitzairen leku edo lurralde jakin batean bizitzea (ohiko bizilekuarekin bat etorri ohi zena) eta Ordezkariei zaintzapean egon behar zuten (1954ko abuztuak 15eko Legea). Barnerapenak irauten

zuen bitartean, bulkada elektrikodun abertsio-terapiak praktikatzen zizkieten homosexualiei. Halaber, mota guztietako umiliazioak jasaten zituzten (irainak, jipioak, bortxaketak...). Emakume homosexualak, aldiz, haien familiaren tutelapean geratzen ziren zuzentzen saiatzeko. Batzuetan, komentu edo psikiatrikoetan sartzen zituzten. Bertan, gizonezkoen antzera, abertsio-terapiak jasaten zituzten eta mota guztietako umiliazioak eta irainak jasaten zituzten (Alises, 2019).

Ondoren, 1970. urtean, “Arriskugarritasunari eta Jendarte-birgaitzeari buruzko Legea” onartu zen, “Alfer eta Maleanteen Legea” ordeztu eta indargabetu zuena. Honek termino oso antzekoak zituen, baina aldaketa nabari bat sartu zuten: 5 urte arteko espetxe-zigorra edo eroetxeetan barneratzea homosexualentzat eta arriskutsua kontsideratzen zen pertsona ororentzat. Neurri hau aplikatzen zen haien ustetan errehabilitazioa behar zutelako (16/1970 Legea).

Nahiz eta demokrazia aldiaren ez zen aplikatzen, indarrean jarraitu zuen 1995ean erabat indargabetu zen arte. 1995ean, Kode Penalarekin, homosexualitatea zigortu beharrean, hau babestu egin zen (10/1995 Lege Organikoa).

b) LGTB izatea gaixotasun mentaltzat hartzea:*

Fernández eta García-Vegak (2011) APAren Buru Nahasmenduen Diagnostiko eta Estatistika Eskuliburuaren (DSM - Diagnostic and Statistical Manual of Mental Disorders) bertsio desberdinetan homosexualitatea eta transexualitatearen inguruko aldaketak aztertu dituzte. Eboluzioa honako hau izan da:

1. DSM-I (1952):

- **Homosexualitatea:** Gaixotasun mentala kontsideratzen da sexualitatearen desbideraziotzat hartzen delako.
- **Transexualitatea:** Desbideratze sexuala kontsideratzen da eta nortasunaren nahasmenduen barruan sailkatzen da.

2. DSM-II (1968):

- **Homosexualitatea:** Nortasunaren nahasmendua kontsideratzen da. 1973an buruko gaixotasun bat kontsideratzeari uzten da eta “homosexualitatea” terminoaren ordeztu, “sexu-orientazioaren nahasmendua” erabiltzen da.

- **Transexualitatea:** Desbideratze sexuala kontsideratzen jarraitzen da eta sexu-orientazioko edo trabestismoko nahasmenduen barruan sailkatzen da.

3. DSM-III (1980):

- **Homosexualitatea:** Sexu-identitatearen nahasmenduen barruan sartzen dute. Nahastetzat ulertzen dena da norberaren sexu-orientazioari buruzko etengabeko ezinegona eta ondoez bizia.
- **Transexualitatea:** Transexualismoaren diagnostikoa agertzen da. Sexu-identitatearen nahasmenduen atala sortzen dute, non transexualismoa eta haurtzaroko genero identitatearen nahasmenduak sartzen dituzten.

4. DSM-III-R (1987):

- **Homosexualitatea:** Betiko ezabatzen da homosexualitatearen inguruko diagnostiko oro DSMtik.
- **Transexualitatea:** Bereizi egiten ditu genero-identitatearen nahasmenduak sexu-nahasmenduetatik. Nerabezaroan edo helduaroan dagoen genero identitatearen nahasmendua gehitzen du.

5. DSM-IV (1994):

- **Homosexualitatea:** Norberaren sexu-orientazioari buruzko etengabeko ezinegona eta ondoez bizia zehaztu gabeko sexu-nahasmenduen barruan sartzen da.
- **Transexualitatea:** “Transexualismoa” terminoaren ordez, “genero-identitatearen nahasmendua” erabiltzen da. Genero-identitatearen nahasmenduak, parafiliak eta sexu-disfuntzioak berriro elkartzen dira, sexu-nahasmenduen eta genero-identitatearen kategoriaren barruan.

4.1.8. LGTB* kolektiboa gaur egun:

Esan bezala, XX. mendetik aurrera aldaketa asko gertatu dira LGTB* kolektiboarekiko dagoen ikuspegiaren eta onarpenean, eta horrek eraldaketa nabariak ekarri ditu, bai legedian, bai osasun mentalaren eremuan eta bai jendartean daukan onargarritasun eta irudikapenean:

a) Gaur egungo legedia:

Gaur egun, orientazio-sexual eta genero-identitate desberdinen babesa aurkitu daiteke lege desberdinetan. Jarraian LGTB* komunitatea babesten duten nazioarteko legeak, Estatu Espainiarreko legeak eta lege autonomikoak aztertuko dira:

Nazioarteko legedia:

Haurren Eskubideen Adierazpena:

Espainiak sinatutako adierazpen honen lehenengo printzipioak dio adierazpen horretan aipatzen diren eskubide guztiak aitortuko zaizkiela hurrei, inolako salbuespenik gabe eta arraza, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, iritzi politiko edo bestelakoengatik, jatorri nazional edo sozialagatik, posizio ekonomikoagatik, jaiotzagatik edo beste edozein baldintzarengatik, haurrena edo familiarena izan (Haurren Eskubideen Adierazpena, 1. printzipioa).

Era berean, hamargarren printzipioak ezartzen du arraza, erlijio edo beste edozein motatako bereizkeria susta dezaketen praktiken aurka babestu behar dela haurra (10 printzipioa).

Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna:

Pertsona guztiek bizitzeko duten eskubidea defendatzen du. Aldi berean, eta 26. artikulua debekatzen du arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoak edo beste motatakoak, jatorri nazionala edo soziala, maila ekonomikoa, jaiotza edo beste edozein izaera sozialagatik diskriminatzea. Halaber, pertsona guztiei edozein diskriminazioaren aurkako babes berdina eta eraginkorra bermatzea aldarrikatzen du.

Estatu Espainiarreko legedia:

Espainiar Konstituzioa:

Espainiar Konstituzioak pertsona guztien eskubideak babestea du helburu eta diskriminazioa ukatzen du. Beraz, Konstituzioaren bidez pertsona homosexualen, bisexualen, transexualen, intersexualen... eskubideak babestu nahi dira. LGTB* pertsonen dagokienez, hurrengo artikulua hauek dira aipagarriak:

- *9.2. artikulua:* LGTB* kolektiboaren eskubideen alde egiteko baldintzak sustatzea botere publikoei dagokie.
- *10. artikulua:* duintasunerako eskubidea babesten du. Hau askotan ez da bermatzen LGTB* pertsonak jasan behar dituzten irain, eraso eta abarreatatik. Nortasunaren garapen askeari dagokionez, artikulua honek edonork generoaren autodeterminazio askerako duten eskubidea bermatzen du.
- *14. artikulua:* legearen aurrean berdintasuna aldarrikatzen da. Nahiz eta sexu-orientazioa eta genero-identitatea ez diren aipatzen, “beste baldintza edo egoera pertsonal edo sozialagatik” horretan sartu daiteke.
- *15. artikulua:* bizitzarako eta osotasun fisiko nahiz moralerako eskubidea aipatzen du. Beraz, LGTB* pertsonak gorroto delituetatik babestu egin behar direla ondoriozta daiteke.
- *27. artikulua:* hezkuntza eremuan ere babestu behar da LGTB* kolektiboa, bertan diskriminazioa nahiz eskola-jazarpena bizi dezaketelako.
- *32. artikulua:* ezkontzeko berdintasun juridikoko eskubidea aldarrikatzen du. Homosexualen arteko ezkontzari egin behar zaio erreferentzia hemen, 2005 urtetik posible dena.
- *43. artikulua:* osasuna babesteko eskubidea aitortzen du. Pertsona trans*ek tratamendu hormonalak nahiz sexua berresleitzeko ebakuntza jasotzeko eskubidea daukate.

13/2005 Legea, uztailaren 1ekoa, ezkontzeko eskubidearen alorrean Kode Zibila aldatzen duena:

Konstituzioko 32. artikulua oinarri izanda, genero berdineko bi pertsonen ezkontzeko eskubidea daukate, pertsona heterosexualen baldintza berdinetan. Beraz, lege honek Kode Zibilaren hainbat artikulua aldatzen ditu. Kode Zibilaren 44. artikuluan bigarren paragrafo bat gehitzen du: “Ezkontzak betekizun eta ondorio berberak izango ditu bi ezkongaiak sexu berekoak edo desberdinekoak direnean”. Gainera, “senar emazteak” esan beharrean “ezkontideak” hitz erabiltzera pasatzen da.

2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa:

Lege honen hitzaurrean aipatzen dira hezkuntzaren hainbat helburu. Horien artean oinarrizko eskubide eta askatasunen errespetuan eta generoen arteko benetako aukeraberdintasunean oinarritutako prestakuntza eta aniztasun afektibo-sexuala onartzea aurkitu daitezke.

Ikastetxeek bizikidetza-plan bat prestatu behar dute (124. artikulua). Honen barruan aurreikusi behar dute ikasle batek hutsegite oso larri bat gauzatzen duenean neurri hezitzaile bat ezartzeko aukera. Ikasle baten genero-identitate edo sexu-orientazioa dela eta (beste ezaugarri pertsonal, sozial eta hezkuntza-ezaugarrien artean) ikasle hori diskriminatzea hutsegite larria kontsideratzen da.

Indarkeriaren aurrean haurrak eta nerabeak babesteko Lege Organikoaren aurreproiektua:

Izenak berak dioenez, oraindik ez da lege hau onartu. Hala ere, garrantzitsua da aztertzea lege honek dituen proposamenak, batez ere eskola-jazarpenaren inguruan mintzatzen delako.

- *1. artikulua:* lege honen xedeetako bat haur eta nerabeen edozein indarkeria motaren aurrean dituzten oinarrizko eskubideak bermatzea dela aipatzen da. Era berean, lege honetan indarkeriatzat zer kontsideratzen den azaltzen da.
- *8.3. artikulua:* haur eta nerabeek beren sexu-orientazioa eta genero-identitatea errespetatua izateko eta diskriminazio nahiz indarkeriaren biktimak direnean laguntza eta babesa jasotzeko eskubideak aldarrikatzen ditu.
- *27. artikulua:* hezkuntzak inklusiboa izan behar duela, eskola indarkeriarik gabeko gunea izan behar dela eta ikasleek hezkuntza afektibo-sexuala jasoko dutela adierazten du artikulua honek. Horrela, indarkeria prebenitzen saiatzen da.
- *28. artikulua:* hezkuntza-administrazioek edozein indarkeria-adierazpen aurrean jarduteko protokoloak arautu behar dituztela adierazten du. Jazarpenaren motibazioa sexu-orientazioa edo genero-identitatea denean, protokoloak jarduera espezifikoak jaso behar ditu.
- *45. artikulua:* kirol- eta aisialdi-jarduerak egin ohi dituzten erakundeetan lan egiten dutenek ere edozein indarkeria mota prebenitzeko eta detektatzeko prestakuntza jaso behar dute. Sexu-orientazioagatik edo genero-

identitateagatik diskriminazio-egoerak ekiditeko beharrezko neurriak hartzea proposatzen da.

Kode Penal:

Kode Penalaren 1995eko erreformarekin homosexualitatea zigortu beharrean LGTB* kolektiboa babestu egiten da, hainbat artikuluren bitartez.

- *22. artikulua:* biktimaren sexu zein sexu-joeragatik delitua egitea inguruabar astungarria kontsideratzen da.
- *170. artikulua:* mehatxu-delitua zigortzen du adibidez LGTB* kolektiboaren parte den pertsona bati zuzenduta dagoenean.
- *510. artikulua:* lehenengo puntuan talde edo elkartean (horien artean LGTB* kolektiboa) aurkako diskriminazioa, gorrotoa edo indarkeria eragitea zigortzen da. Bigarren puntuan talde edo elkartean inguruan, faltsuak direla jakinda edo egia ausartegi mespretxatuz, informazio iraingarria hedatzea zigortzen da, informazioa adibidez pertsona horien sexu edo sexu-joerari buruzkoa denean.
- *511. artikulua:* herri-zerbitzu batez arduratzen den norbanako batek edo funtzionario publiko batek, edonoren sexu zein sexu-joera dela eta, prestazio bat ukatzea zigortzen du, pertsona horrek prestazio horretarako eskubidea duenean.
- *512. artikulua:* lanbide edo enpresa jarduerak gauzatzean, pertsona baten sexu edo sexu-joera dela eta, pertsona horri prestazio bat emateari uko egitea zigortzen du, pertsona horrek prestazio horretarako eskubidea duenean.
- *515. artikulua:* Pertsona, talde edo elkartean aurkako bereizkeria, gorrotoa edo indarkeria sustatzen duten elkarteak zigortzen ditu.

Maila autonomikoko legedia

Espainiako Autonomia Erkidego desberdinetan pertsona LGTB*-en eskubideak bermatzea helburu duten legeak existitzen dira:

Andaluzia	2/2014 Legea, uztailearen 8koa, Andaluziako transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.
	8/2017 Legea, abenduaren 28koa, Andaluziako LGTBI pertsonen eta haien senideen eskubideak, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzekoa.
Aragoi	4/2018, apirilaren 19koa, Aragoiko Autonomia Erkidegoko genero-identitateari eta -adierazpenari, jendarte-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzkoa.
	18/2018 Legea, abenduaren 20koa, Aragoiko Autonomia Erkidegoan sexu-orientazio, genero-adierazpen eta -identitateagatiko diskriminazioaren aurka berdintasuna eta babes integrala ematekoa.
Asturiasko Printzerria	Asturiasko Printzerriko lege-aurreproiektua, sexu- eta/edo genero-identitatea askatasunez adierazteko eskubidea bermatzekoa.
Balear Uharteak	8/2016 Legea, ekainaren 30ekoa, lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualen eskubideak bermatzen dituen eta LGTBI fobia desagerrarazten duena.
Errioxa	Errioxako transexualen genero-identitatea ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko lege-proposamena.
Euskal Autonomia Erkidegoa	14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.
Extremadura	12/2015 Legea, apirilaren 8koa, Extremadurako Autonomia Erkidegoan lesbianen, gayen, bisexualen, transexualen, transgeneroen eta intersexualen berdintasun sozialari eta sexu-orientazioagatiko eta genero-identitateagatiko diskriminazioaren aurkako politika publikoei buruzkoa.
Galizia	2/2014 Legea, apirilaren 14koa, Galiziako lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexualen tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzkoa.

Gaztela eta Leon	Gaztela eta Leongo Erkidegoko sexu- eta genero-aniztasunaren jendarte-berdintasunari eta sexu-orientazioagatiko eta genero-identitateagatiko diskriminazioaren aurkako politika publikoei buruzko Lege Proposamena, 2018ko martxoaren 1ekoa.
Gaztela-Mantxa	Lesbiana, Gay, Transexual, Bisexual eta Intersexualen Kolektiboaren (LGTBI) eskubideak babesteko eskualdeko lege proposamena.
Kanariak	8/2014 Legea, urriaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.
Kantabria	Kantabriako lege-aurreproiektua, lesbiana, gay, transexual, transgenero, bisexual eta intersexualen eskubideak bermatzekoa eta sexu-orientazioagatik eta genero-identitateagatik diskriminaziorik ez izatekoa, 2017ekoa.
Katalunia	11/2014 Legea, urriaren 10ekoa, lesbiana, gay, bisexual, transgenero eta intersexualen eskubideak bermatu eta homofobia, bifobia eta transfobia desagerrarazteko dena.
Madrilgo Erkidegoa	2/2016 Legea, martxoaren 29koa, Madrilgo Erkidegoko genero-identitateari eta -adierazpenari, jendarte-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzkoa.
	3/2016 Legea, uztailaren 22koa, Madrilgo Erkidegoan LGTBIfobiaren eta sexu-orientazio eta -identitateagatiko diskriminazioaren aurkako babes integralari buruzkoa.
Murtziako Eskualdea	8/2016 Legea, maiatzaren 27koa, Murtziako Eskualdeko Autonomia Erkidegoan lesbianen, gayen, bisexualen, transexualen, transgeneroen eta intersexualen berdintasun sozialari eta sexu-orientazioagatiko eta genero-identitateagatiko diskriminazioaren aurkako politika publikoei buruzkoa.
Nafarroako Foru Erkidegoa:	12/2009 Foru Legea, azaroaren 19koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.

Valentziako Erkidegoa:	8/2017 Legea, apirilaren 7koa, Generalitatearena, Valentziako Erkidegoan genero-identitaterako eta -adierazpenerako eskubidea onartzeari buruzkoa.
	23/2018 Legea, azaroaren 29koa, LGTBI pertsonen berdintasunerakoa.

Laburbilduz, a) atal honetan, LGTB* kolektiboa babestu egiten duten nazioarteko, Espainiako nahiz autonomia erkidegoetako gaur egungo lege desberdinak aztertu dira. Lege hauek, alde batetik, LGTB* kolektiboaren eskubideak bermatzea eta sustatzea dute helburu. Beste aldetik, kolektibo honen kontrako diskriminazio eta jazarpen oro zigortzen dituzte.

b) LGTB izatea gaixotasun mentaltzat kontsideratzeari uztea:*

Gaur egun, DSM-Va da indarrean dagoena (APA, 2014) eta azken bertsio honetan ez da aurkitzen inolako aipamenik ezta homosexualitateari buruz ezta sexu-orientazioaren inguruko nahasmenduri buruz ere.

Transexualismoaren inguruan, aldiz, hainbat diagnostiko aurkitu daitezke DSM-Vean. Alde batetik, “Genero-disforia”ren barnean genero-disforia haurrengan, genero-disforia nerabeengan eta helduengan, zehaztutako beste genero-disforia eta zehaztu gabeko genero-disforia diagnostikoak existitzen dira. Beste alde batetik, trabestismoa ere aurkitzen da, baina parafilien barnean sailkatuta.

DSM-Vean, genero disforia norberak sentitzen eta adierazten duen sexuaren eta esleitzen zaionaren arteko inkongruentzia nabarmen modura definitzen da, beti ere, gutxienez sei hilabeteko iraupena badu.

Haurrengan, zerrendatutako ezaugarrietatik sei adierazi behar dituzte gutxienez genero disforia diagnostikatu ahal izateko. Ezaugarriak ondorengo hauek dira:

1. Beste sexukoa izateko desira handia edo beste sexukoa dela behin eta berriz errepikatzea (edo esleitutakoa ez den beste sexu batekoa).
2. Mutilen kasuan (esleitutako sexua), trabestismoa edo emakumezkoen janzkera simulatzea nahiago izatea gizonezkoena baino. Nesken kasuan (esleitutako

sexua), gizonezkoenak diren arropak soilik janztea nahiago izatea eta emakumezkoenak diren arropak janzteko erresistentzia handia izatea.

3. Beste sexuaren rola hobestea edo beste sexukoa izateari buruzko fantasiak.
4. Beste sexuak erabili ohi dituen edo jostailuak, jolasak edo jarduerak lehenetsi.
5. Beste sexuko hurrekin jolasteko nahia, norbere sexukoekin baino.
6. Mutiletan (esleitutako sexua), maskulinoak izan ohi diren jostailuen, jolasen eta jardueren aurkako arbuio handia eta jolas zakarrak saihestea. Nesketan (esleitutako sexua), berriz, emakumezkoenak izan ohi diren jostailuen, jokoen eta jardueren aurkako arbuio handia.
7. Norberaren anatomia sexualarekiko atsekabe nabarmena.
8. Sentitzen den sexuari dagozkion ezaugarri sexual primarioak zein sekundarioak edukitzeko gogo sendoa.

Nerabeengan eta helduengan, zerrendatutako ezaugarrietatik bi adierazi behar dituzte gutxienez genero disforia diagnostikatu ahal izateko. Ezaugarriak ondorengo hauek dira:

1. Norberak sentitzen edo adierazten duen sexuaren eta bere ezaugarri sexual primarioen edo sekundarioen (edo nerabe gazteen kasuan, aurretiko ezaugarri sexual sekundarioen) arteko inkongruentzia nabarmena.
2. Sentitzen edo adierazten den sexuarekin inkongruentzia nabarmena izateagatik, lehen edo bigarren mailako ezaugarri sexualak alde batera uzteko gogo handia (edo nerabe gazteen kasuan, aurreikusitako bigarren mailako ezaugarri sexualak garatzea eragozteko nahia).
3. Kontrako sexuari dagozkion ezaugarri sexualak (bai lehen mailakoak bai bigarren mailakoak) edukitzeko gogo sendoa.
4. Beste sexukoa izateko gogo handia (edo esleitutakoa ez den beste sexu batekoa).
5. Beste sexua bezala tratatua izateko nahia (edo esleitutakoa ez den beste sexu batekoa).
6. Beste sexuari dagozkion ohiko sentimenduak eta erreakzioak izatearen uste sendoa (edo esleitutakoa ez den beste sexu batekoa).

*d) LGTB*kolektiboaren ikusgarritasuna eta adierazgarritasuna:*

Nahiz eta gaur egun, LGTB* izatea ez den gaixotasun mentaltzat kontsideratzen eta Espainiako legedia kolektibo hau babesten saiatzen den, egunerokotasunean oraindik zailtasun asko aurkitzen dituzte.

Fundación EDEk (2016) egindako ikerketa batean Euskal Autonomia Erkidegoko gazteek LGTB* kolektiboetara eta aniztasun afektibo-sexualari buruz zer jakintza eta ikuspegi zuten, zer onarpen-maila zuten eta nolakoak diren kolektibo horiekiko jokabideak aztertu zuten.

Ikerketa horren arabera, lehenik, gazteek egunerokotasunean LGTB* kolektiboari buruz hitz egiterakoan mespretxuzko hitz asko erabiltzen dituzte. Askotan gizonezko homosexualak emakumeekin konparatzen dituzte, emakumea gizona baino gutxiagoa balitz bezala, homofobia eta sexismoaren arteko loturaren erakusgarria dena. Mespretxuzko hitzak homosexual nahiz tradizionalki emakumeekin lotuta dagoen izateko modua daukan gizonak izendatzeko ere erabiltzen dituzte (Fundación EDE, 2016).

Bigarrenik, Fundación EDEk egindako ikerketak (2016) ondorioztatu zuen gazteek hainbat estereotipo daukatela. Homosexualitateari buruz pentsatzen dute moda bat dela eta erraza dela pertsona homosexual bat identifikatzea haren keinuengatik, janzteko eragatik, ibiltzeko moduagatik... Parte-hartzaileek gayak pertsona alaiak eta oso sentiberak direla, eta lesbianak, aldiz, maskulinoak direla eta ile laburra daukatela diote. Partaideek uste dute gay bikote batean horietako bat “emakumea” dela eta lesbianen bikote batean gizonezkoen organo baten falta dagoela. Bisexualitateari dagokionez, bisexualitatea moda bat dela uste dute. Era berean, esperimentatzeko fase bat dela eta bisexualak nahastuta daudela eta ez dakitela zer nahi duten kontsideratzen dute. Gainera, pertsona biziosoak eta promiskuoak kontsideratzen dituzte. Azkenik, transexualitatea prostituzioarekin eta trabestismoa ikusgarri eta festa munduarekin lotzen dute. Azken finean, ezjakintasun handia dago sexualitate desberdinen, transexualitatearen eta intersexualitatearen inguruan. Gainera, genero-identitatea eta sexu-orientazioaren kontzeptuak nahasten dituzte, horregatik, adibidez, transexual baten orientazio sexuala ulertzeko zailtasunak dituzte.

Kasu askotan, gazteek ez dituzte LGTB* diren erreferente hurbilak, eta, beraz, telebistan ikusten dituzten pertsonak hartzen dituzte eredutzat. Espainia mailan, askotan telesailetan ageri diren LGTB* kolektiboko pertsonaiak oso estereotipatuta daude (gay

afeminatuak eta bitxiak dira nagusi). Telebistan entzuten diren komentarioek ere estereotipo horiek sustatzen dituzte (Fundación EDE, 2016).

Honekin oso lotuta dago, Realek (2017) adierazten duena. Bronfenbrenneren (1986) eredu ekologikoaren arabera, telebistak eragin handia dauka haurtzaroan eta nerabezaroan norbanakoaren garapenean, familia eta lagunek daukaten moduan. Bakoitzak bizi dituen esperientzietan eta besteek (telebista barne) daukaten eraginean oinarriturik iritziak sortzen dira. Beraz, telebistak haurtzaroan eragina dauka haurrek ikusten duten oro imitatzen dutelako. Nerabezaroan ere eragina dauka adin honetan nortasuna garatzeari uzten delako eta heldu egiten delako. Horregatik, garrantzitsua da LGTB* pertsonaien irudikapena modu egokian egitea, bestela honen inguruko estereotipoak eta aurreiritziak sustatzen direlako.

Risquezek (2017) telesailetan LGTB* kolektiboaren adierazgarritasuna nolako den kontuan hartuta sailkapen bat egiten du. Telesailen inguruko bi modalitate nagusi desberdintzen ditu, aldarrikapenezkoak eta integratutakoak.

Aldarrikapenezko modalitatearen barruan telesailaren bilbe nagusiaren parte diren pertsonaiak sartzen dira. Honen barruan bigarren sailkapen bat egin daiteke telesailen jorratzen den gaiaren arabera. Lehenik, gazte LGTB*en errealitatea erretratatzeko duten telesailak daude (armairutik ateratzea, eskola-jazarpena...). Bigarrenik, auto-onarpena eta besteen onarpena erretratatzeko dituzten telesailak daude. Bigarren honetan bizitzaren beste aro desberdinak irudikatu ohi dira, eta pertsonaiak haien bizitzaren eremu desberdinak nola uztartzen dituzten ikus daiteke. Azkenik, LGTB* pertsonaiak beste garai edo leku batzuetan irudikatzen dituzten telesailak daude. Hauen helburua egoera honen konplexutasuna kultura ezberdin batean salatzea da.

Integratutako modalitatearen barruan telesailaren bilbe nagusiaren parte ez diren pertsonaiak sartzen dira. Hau gertatu ohi da nagusiki pertsonaia eta bilbe asko dituzten telesailetan. Batzuetan ere, ez dago pertsonaien izaera sexuala hitzez adierazteko interesik. Beraz, kasu hauetan pertsonaia baten orientazio sexuala ez da garrantzitsuena bilberako, bigarren plano batean geratuz edo ez agertuz.

Datuei dagokionez, Gay & Lesbian Alliance Against Defamation (GLAAD) erakundeak LGTB* komunitateak telesailetan eta filmetan daukan adierazgarritasunaren inguruan landuriko txostenak hartuko dira kontuan: Where We Are on TV (2019a) txostena, 2019-2020 telebista denboraldian LGTB* pertsonaien presentzia aztertzen

duena; eta Studio Responsibility Index (2019b) txostena, 2018. urtean pertsonaia hauen maiztasuna zineman aztertzen duena.

Where We Are on TV txostenak (2019a) 2019-2020 Estatu Batuetako telebista denboraldirako (2019eko ekainaren 1etik 2020eko maiatzaren 31ea bitartekoa) LGTB* pertsonaien presentzia iragartzen du. Kable eta emisio bidezko telebistan eta transmisio zerbitzuen (Amazon, Netflix, Hulu...) estreinatuko diren edo estreinatzea espero diren telesailen gidioiak aztertzen dituzte, LGTB* pertsonaiak zenbatzeko. Txosten honek Ameriketako Estatu Batuetan egindako telesailak nahiz atzerritarrak diren eta Estatu Batuetan banatzeko eskubide eskusiboak eskuratu dituzten serieak biltzen ditu.

Pertsonaia transexualei dagokionez, telesailetan LGTB* ziren pertsonaia guztietatik %7a gutxi gora-behera dira. Gainera, askotan telesailen sortzaileek ez dute pentsatzen pertsona transexualek ere sexu-orientazio bat daukatela, eta bakarrik zentratzen dira haien transexualitatean (GLAAD, 2019a).

Nahiz eta pertsona bisexualak LGTB* kolektiboaren zati handiena osatu, pertsonaia bisexualak oso gutxi dira. Telesailetan pertsonaien %26a suposatzen dute eta pelikulen %3an agertzen dira bakarrik. Halaber, gehienetan pertsonaia hauen sexu orientazioa denbora-bilbeko gailu gisa erabiltzen da eta obsesiboak diren, haietaz fidatu ezin den eta bere burua suntsitzeko portaerak dituzten pertsonak dira (GLAAD, 2019a; GLAAD, 2019b).

Bi motatako gizon homosexualak irudikatzen dira telebistan orokorrean. Alde batetik, oso femeninoak direnak, eta beste aldetik, oso maskulinoak direnak (gizon heterosexualaren pareko irudi desiragarria bilatzeko asmotan). Halaber, irudikapen hori estereotipatuan egiten da. Gehienetan bufoi gisa irudikatzen dira, pertsonaia hauen nortasunak eta erreakzioak satirizatu eta esajeratu ohi direlako (Ramírez eta Cobo, 2013; Riskey, 2017).

Emakume homosexualak beti izan du irudikapen txikiagoa zineman, gizonezko homosexualak baino. Izan ere, emakume homosexualak bi motatako diskriminazioa jasaten dute: emakumeak izateagatik eta lesbianak izateagatik (emakume femeninoaren ideiarekin kontra doazelako) (Real, 2017). Askotan ere, gizonezkoen gozatzerako erretratatu dira (Riskey, 2017). Gainera, askotan emakumeek dituzten harreman homosexualak modu transakzionalen soilik gertatzen dira, hau da, behar duten zerbait

lortzeko beste emakume batekin oheratzen dira, benetako interesagatik izan beharrean (GLAAD 2019a; GLAAD, 2019b).

Orain artekoa kontuan hartuta, badirudi LGTB* pertsonaien irudikapena eskasa dela, eta kolektiboko pertsonaiak agertzen badira ere modu estereotipatuan irudikatzen direla. Jakinda telebistak haur eta nerabeengan duen eragina, hainbat autorek haurrentzako marrazki bizidunetan nahiz telesailetan irudikapen hori eskasa dela salatzen dute (GLAAD, 2019b; Real, 2017; Riskey, 2017).

4.2. Eskola-jazarpena:

LGTB* kolektiboak jasaten duen gutxiespena eskola eremuan ere aurkitzen da. Izan ere, LGTB* diren ikasleek eskola-jazarpena sufritzen dute askotan eskolan.

Jarraian fenomeno honen azalpena emango da. Lehenengo eskola-jazarpeneren definizioa eta ezaugarri nagusiak aztertuko dira. Bigarrenik, diskriminazio eta jazarpeneren motak desberdinduko dira. Hirugarrenik, eskola-jazarpeneren parte-hartzen duten subjektuen deskribapena egingo da. Laugarrenik, fenomeno honek gazteengan dituen ondorioak aztertuko dira. Bosgarrenik, eskola-jazarpenerari buruzko datuak aztertuko dira. Eta azkenik, eskola-jazarpenera prebenitzeko baliabideak eta kasu batean aurrean nola jardun azaltzen duten gidak azalduko dira.

4.2.1. Definizioa eta ezaugarri nagusiak:

Olweusek (1993) eskola-jazarpenera edo bullyinga haur batzuk beste haur batzuekiko behin eta berriz eta denbora batez daukaten hitzezko irain, jendarte-arbuio, larderia psikologiko eta/edo oldarkortasun fisikoko portaera luze modura definitzen du. Modu horretan, ikasle bat biktima bilakatzen da egoera horretatik irteteko zailtasunak dituenean, eta hainbat ondorio negatibo pairatuko ditu (autoestimua gutxitzea, antsietatea, ikaskuntza normaltasunez ezin garatzea...).

Eskola-jazarpeneren ezaugarri nagusiak hurrengo hauek dira (Agustín, 2009; Avilés, 2003; Eusko Jaurlaritza, 2015):

1. **Erasotzaileek jazarritako biktima defentsarik gabea:** eraso horrek biktima babesgabetasun egoera batean jarri behar du.

2. **Intentzionalitatea:** erasotzaileak biktimari min fisiko, psikiko nahiz soziala eragiteko nahia izan behar du.
3. **Errepikapena:** behin eta berriz gertatzen da eta denboran luzatzen da.
4. **Botere desoreka eta biktimaren babesgabetasuna:** erasotzailea eta biktimaren artean botere desoreka bat dago (fiskoa, psikologikoa nahiz soziala), eta horrek biktima ezin defendatzea eragiten du. Babesgabetasun sententzio hori pixkanaka sortzen da, denboran luzatzen diren heinean larriagotu egiten direlako (Defensor del Pueblo, 2000).

Kasu honetan, erasotzaileek homofobia, heterosexismoa, transfobia nahiz sexismoarekin lotutako baloreak oinarri izanda burutzen dituzte portaera horiek LGTB* ikaskideen nahiz halakotzat hartzen dituztenen kontra, nahiz eta LGTB* ez izan (Platero eta Gómez, 2007). Eskola-jazarpen mota honek ezaugarri zehatzak ditu, aurretik azaldutakoei gehitu beharrekoak (Generelo eta koolk., 2007; Generelo, 2008; Mujika, 2011):

1. **Ikusezintasuna:** heterosexualitate normatiboaren ondorioz ikasle guztiak heterosexualak direla ziurtzat jotzen da, mota honetako jazarpena ikusezina bilakatuz.
2. **Biktimak ez du seinalatua izan nahi:** gerta daiteke biktimak jazarpenaren zergatia azaltzea nahi ez izatea, oraindik ez delako armairutik atera.
3. **Hezkuntza sistemaren gabeziak:** gutxiengo sexualak babesteko politika eta baliabide gutxi existitzen dira hezkuntza-sisteman.
4. **Familien laguntza falta eta bazterketa:** biktima asko ez dira ausartzen egoera haien etxeetan salatzea, beraien familiek diskriminazioaren arrazoia ezagutuko duten beldurrez.
5. **Estigma kutsatzea:** LGTB*tzat hartzen diren ikasleak eta biktimei laguntza eskaintzen dieten ikasleak ere biktima bilakatzen dira. Era berean, familia homoparentaleko seme-alabak edo aita edo ama LGTB* duten ikasleak ere eskola-jazarpenaren biktimak izan daitezke (Generelo, 2008).
6. **Homofobiaren normalizazioa:** biktimek egoera normalizat hartzen dute eta batzuek jasandako erasoen errudun sentitzera iristen dira. Autokontzeptuaren barneratze negatiboa eragiten du, barneratutako homofobia eraginez.

4.2.2. Jazarpen motak:

Jazarpena jokabide desberdin askoren medioz gauzatzen da (Avilés, 2003; Defensor del Pueblo, 2000; Eusko Jaurlaritza, 2015):

1. **Indarkeria fisikoa:**
 1. Zuzenekoa: bultzadak, ukabilkadak, ostikoak...
 2. Zeharkakoa: gauzak ezkutatu, gauzak apurtu nahiz gauzak lapurtu.
2. **Larderia fisikoa:** mehatxuak, armekin mehatxatzea, larderia nahiz gauzak egitera behartzea (hertsapena).
3. **Hitzeko tratu txarra:** irainak, ezizenak, zirikatzea, jendaurrean gutxiestea, akats fisiko edo akzio-akats (errealak edo ez) bat etengabe nabarmentzea edo agerian jartzea, norbaiti buruz gaizki hitz egitea...
4. **Indarkeria soziala:** norbaiti ez-ikusiarrena egitea, jarduera batean parte hartzen ez uztea, bazterketa edo marjinazio soziala, blokeatzea, manipulazioa...
5. **Indarkeria sexuala:** sexu-jazarpena, sexualki abusatzea, norbait modu sexistan mehatxatzea, degradatzea, umiliatzea nahiz iraintzea...
6. **Indarkeria psikologikoa:** azken finean jazarpen mota guztiak sartu daitezke indarkeria psikologikoaren barnean, guztiek beldurra eta babesgabetasun sententzia sortzen eta autoestimua gutxitzen dutelako.
7. **Ziberbullyinga edo ziber-jazarpena:** telefono mugikorraren, e-mailaren, sare sozialen eta abarren bidez aurreko jazarpen motak burutzea litzateke (mehatxatzea, iraintzea...). Honen barruan sartzen dira adibidez, interneten grabazioak edo argazkiak baimenik gabe zabaltzea, etiketa iraingarriak jartzea irudietan, norbaiten nortasuna ordezkatzea, bazterketa egitea sare sozialetan... (Pichardo eta koolk., 2015).

4.2.3. Jazarpenaren subjektuen ezaugarriak:

Eskola-jazarpenean hiru subjektu daude: biktima, erasotzailea eta ikuslea.

Biktima jazarpena jasaten duen pertsona da, normalean pertsona bakarra izan ohi da eraso individualizatua delako. Homofobia eta transfobian oinarrituta, nerabe bat hainbat arrazoiengatik izan daiteke eskola jazarpenaren biktima (Generelo, 2008; Pichardo eta koolk., 2007). Normalean gazte hauek lotsatiak dira eta segurtasun falta,

antsietate-maila handia eta autoestimu baxua daukate. Haien erasotzaileekin konparatuta, gorputz txikiagoa daukate. Ez dira pertsona oldarkorrek ezta bortitzak ere. Klasean ez dira oso popularrak eta harreman sozial gutxi dituzte, ia ez daukate lagunik eta irakasleekin haien erasotzaileak baino harreman hobea daukate (Avilés, 2003; Olweus, 1993).

Erasotzailea eskola-jazarpena burutzen duen pertsona da (bat baino gehiago izan daitezke). Erasotzaileak normalean gazte oldarkor eta agresiboak dira, enpatia gutxi eta erruduntasun sentimendurik ez daukatenak. Haien kideekin dituzten harremanak interpretatzeko joera negatiboa daukate, gatazka- eta eraso-iturri gisa interpretatzen dituzte eta. Fisikoki biktimak baino gorputz gehiago daukate, askotan ere errepikatzaileak direlako, eta, beraz, heldutasun fisiko handiagoa daukate. Erasotzaileek botere nahia daukate eta familian ere joera oldarkor eta agresiboak erakusten dituzte. Eskolan ez dira oso popularrak baina bai haien biktimak baino popularragoak dira. Gainera, irakasleekin harreman txarra daukate (Avilés, 2003; Olweus, 1993).

Ikusleak ez dira ez biktimak ezta erasotzaileak ere, baina, eskola-jazarpenaren lekuko dira. Alde batetik, biktimak bezala, erasotzailearen beldur izan daitezke. Beraz, ez dituzte biktimak laguntzen, beraiek ere biktima ez bilakatzeko. Beste aldetik, gerta daitekeena ikusleak ere erasotzaile bilakatzea da, nahiz eta hasiera batean erasoan parte ez hartzea (Avilés, 2003).

4.2.4. Jazarpenaren ondorioak:

Eskola-jazarpenak ondorioak dakartza bai biktimentzat, bai erasotzaileentzat eta bai ikusleentzat ere. Indarkeria mota honek dakarren ondorio nagusia LGTB* mantentzea da. Autore desberdinek bullyingaren subjektuek jasan ditzaketan ondorio desberdinak aztertu dituzte (Agustín, 2009; Avilés, 2003; Eusko Jauriaritza, 2015; Generelo eta koolk., 2007; Mujika, 2011). Jarraian ondorioen adibideak emango dira, eskola-jazarpenaren subjektuen arabera:

a) Biktimengan:

Eskola-jazarpenak biktimengan eragiten dituen hainbat ondorio hurrengo hauek dira:

1. Ondorio psikologikoak: Autoestimu baxua, norbere buruarekiko irudi negatiboa gaitasun akademikoari, jokabideari eta itxura fisikoari dagokionez, depresioa, nortasun-arazoak, nortasun-sozialaren garapenean eragin negatiboa...
2. Eragina eskola eremuan: eskolara joateko beldura, berandu ailegatzen dira, bide desberdina hartzen dute eskolara joateko...
3. Arrisku fisikoa: auto-lesionatzea, suizidio saiakerak, suizidioa, drogen kontsumoan erortzea, sintoma psikosomatikoak eta fisikoak...
4. Ondorio kognitiboak: barneratutako homofobia eta transfobia.
5. Jokabidearen alterazioak: desdoitutako harreman sexualak “kontrakoa” demostratzeko, isolamendua, asegabetasuna, erreakzio agresiboak...

b) Erasotzaileengan:

Erasotzaileengan eskola-jazarpenak eragiten dituen hainbat ondorio hurrengo hauek dira:

1. Eragina eskola eremuan: eskola porrota.
2. Ondorio kognitiboak: mendekua justiziarekin parekatzen dute, beldurra errespetuarekin nahasten dute, boterea eraso bidez lortzen dela uste dute eta indarkeria onartuta eta saritua dagoela pentsatzen dute...
3. Ondorio penalak: ondorio penalak izan ditzakete. Gainera, karrera deliktiboaren hasiera izan daiteke, etorkizunean delitu bat gauzatuko duen aurrekari izan liteke, helduaroan ere indarkeriazko jokabideak izanik.

Ondorio penalei dagokionez, eskola-jazarpeneko egoera baten aurrean bide penala azken neurri gisa erabiliko da. Erasotzailea zigortzeko eta eskola eremuko beste motatako neurriak lehenetsiko dira (Defensor del Pueblo, 2000). Adingabeen erantzukizun penala 5/2000 Lege Organikoan arautzen da eta honetan 14 eta 18 urte bitarteko adin txikikoak erantzukizun penala daukatela adierazten du (1. artikulua). Hamalau urte baino txikiagokoek, aldiz, ez daukate erantzukizun penalik (3. artikulua).

d) Ikusleengan:

Eskola-jazarpenak ikusleengan gehienbat ondorio emozionalak sortzen ditu. Horien artean, biktima bilakatzeko beldurra sortzen du, babesgabetasun sentazioa egoera

ezin gelditzeagatik. Halaber, disonantzia moralaren eta erruduntasunaren arazoa sortzen du, geldiarazten ez duten erasotzailearen ankerkeriari ez ikusia egiteagatik edo txalotzeagatik. Gainera, jokabide oldarkorra garrantzitsutzat eta errespetagarritzat jotzen dute nahiz eta besteen sufrimenduaren aurrean sentsibilizazio falta aurkezten duten.

4.2.5. Eskola-jazarpenari buruzko datuak:

Eskola-jazarpenaren inguruko datuak azalduko dira jarraian. Lehenik, fenomeno honen intzidentzia eta jazarpen mota desberdinen maiztasuna aztertuko dira. Bigarrenik, eskola-jazarpena adinaren eta generoaren arabera aztertuko da. Ondoren, eskola-jazarpena non gertatzen den azalduko da. Laugarrenik, eskola-jazarpenaren subjektu desberdinek ematen dituzten justifikazio ezberdinak aipatuko dira. Jarraian, eskola-jazarpena salatzeke eta hirugarrengoez laguntza emateko maiztasuna aztertuko dira. Azkenik, eskola-jazarpenak dituen ondorioei erreparatuko zaie.

a) LGTB izateagatik sufritu daitekeen eskola-jazarpenaren intzidentzia:*

LGBTB* izateagatik sufritu daitekeen eskola-jazarpena ez da Espainian bakarrik gertatzen den fenomeno bat, baizik eta Europako herrialde guztietan. European Union Agency for Fundamental Rights (2013) egindako ikerketa baten parte-hartzaileen %75ak uste du bere herrialdean pertsona baten orientazio-sexualagatik diskriminazioa zabaldua dagoen fenomeno dela. Halaber, partaideen %80ak dio haien eskola urteetan beste ikasle baten aurkako jarrera eta komentarioen lekuko izan dela, bakarrik LGTB* izatearen susmoa zegoelako. Gainera, parte hartzaileen bi herenek eskola urteetan LGTB* zirela ezkutatu zutela onartu zuten.

Orientazio-sexuala eskola-jazarpena jasateko arrisku-faktorea da, gutxienez hiru aldiz handiagoa baita ikaskide heterosexualek erakutsitako datuekin alderatuz (Pichardo eta koolk., 2007). Ziberbullyingean ere LGTB* diren biktimen ehunekoa handiagoa da, biktima zisheterosexualekin konparatuz (Garaigordobil eta Larrain, 2020).

Espainia mailan burututako ikerketa desberdinek fenomeno honen maiztasuna aztertu dute. Hauek dira ikerketen emaitzak:

1. Avilés eta Monjas (2005): DBHko ikasleen %24 “batzuetan”, %4,3a “sarritan” eta %1,4a “beti” eskola-jazarpenaren biktimak dira.
2. Ararteko (2006): ikasleen %13,5a hitzezko tratu txarren biktima izan da (ezizenak jari, irainka...), %8,2a zeharkako indarkeria fisikoaren biktima (gauzak apurtu, lapurtu...), %6,2a indarkeria sozialaren biktima (bazterketa, ez-ikusiarrena egin...) eta %4,7a zuzeneko indarkeria fisikoaren (jipoiak...) biktima.
3. Oñate eta Piñuel (2007a): jazarpen jokabideak behin eta berriz eta maiz jasaten dituzte eskolarizatutako ikasleen ia laurdenek (%23,4).
4. ISEI-IVEI (2019): LHko ikasleen %20a baino gehiago eta DBHko ikasleen %16a baino gehiago “sarritan” eta “beti” eskola-jazarpenaren biktimak dira.

b) Jazarpen moten maiztasuna:

Hainbat ikerketen arabera, orokorrean, hitzezko tratu txarra eta indarkeria soziala maiztasun handieneko jazarpen motak dira. Ondoren, jabetzei egindako erasoek daukate ehuneko handiena. Ehuneko txikiagoa daukate eraso fisikoek eta mehatxuek, gainerakoekin konparatuz. Azkenik, jazarpen sexuala eta armekin mehatxatzea dira ehuneko txikien daukatenak (Ararteko, 2006; Avilés eta Monjas, 2005; Defensor del Pueblo, 2000; Generelo, 2012).

Jazarpen mota desberdinen maiztasuna haren larritasunaren alderantzizkoa da proportzionalki; hau da, zenbat eta larriagoa izan jazarpena, gero eta maiztasun txikiagoa dauka (Ararteko, 2006). Horregatik sexu-jazarpena, armekin mehatxatzea eta gauzak egitera behartzea maiztasun gutxiagorekin gertatzen dira (Defensor del Pueblo, 2000).

d) Eskola-jazarpena adinaren arabera:

Adinari dagokionez, kontuan izan behar da hurrek 5 urte inguru dituztenean badakitela pertsonak genitalen arabera bereizten direla eta talde horietako bateko kide direla. Une horretan, mutil edo neska gisa nortasuna berresteko joera agertzen da, eta, horren ondorioz, kontrako taldearen ezaugarri bereizgarriak arbuiatzen dituzte eta lehen esamolde homofoboak agertzen dira (Agustín, 2009). Beraz, jarrera horiek eskola eremura eramaten dira hain txikitatik.

Hala ere, Genereloren (2012) ustetan LGTB* izateagatik sufritu daitekeen eskola-jazarpena 12-13 urterekin hasten da gutxi gora-behera. Jendarteak ezarritako generoarekin bat ez datozen portaerak erakustean sortzen da eskola-jazarpena sufritzeko arriskua, nahiz eta oraindik LGTB* diren ez jakin. Beste ikerketa batzuen ustetan, eskola-jazarpena lehenago ematen da (Ararteko, 2006; Generelo, 2012; ISEI-IVEI, 2019).

Arartekok (2006) eta ISEI-IVEIk (2019) egindako ikerketen arabera LHn DBHn baino biktima gehiago daude. Cisneros ikerketak (Oñate eta Piñuel, 2007a) eskola-jazarpen- eta indarkeria-jokabide gehienak Lehen Hezkuntzako bigarren mailan gertatzen direla aipatzen du. DBHri dagokionez, eskola-jazarpenean gehien parte hartzen duten ikasleek 13 eta 15 urte bitarte dituzte. Handik aurrera, adinarekin, eskola-jazarpenearen maiztasunak behera egiten du, beraz, biktima kopuru txikiagoa aurkitzen da (Avilés eta Monjas, 2005; Defensor del Pueblo, 2000).

Adinaren arabera eraso motak desberdinak izan ohi dira. Hamahiru urte inguru dituzten ikasleen artean gehien ematen den jazarpen mota eraso fisikoa da. Bazterketa soziala eta barregarri uztea, aldiz, nagusitzerakoan gehiago ematen dira (Avilés eta Monjas, 2005). Ziberbullyingarekin zerikusia daukaten jokabideak denboran zehar mantendu egiten dira, eta hori ekiditen ez bada, maiztasunak gora egin dezake adinarekin (Garaigordobil, 2015).

Erasotzaile gehienak biktimen gela berekoak dira. Maiztasun txikiagoarekin, bere maila berekoak baina klase desberdinekoak dira. Frekuentzia txikiagorekin maila altuagoko ikasleak izan ohi dira. Ez da hain ohikoa erasotzailea beheko mailakoa edo ikastetxe berekoak ez diren ikaslea izatea (Avilés eta Monjas, 2005; Defensor del Pueblo, 2000).

e) Eskola-jazarpena generoaren arabera:

Generoari dagokionez, orokorrean mutilek eskola-jazarpenean presentzia handia daukate, bai erasotzaile moduan eta bai biktima moduan (Defensor del Pueblo, 2000; ISEI-IVEI, 2019; Oñate eta Piñuel, 2007a). Mutilak dira jazarpen mota gehienak burutzen dituztenak (orokorrean). Hitzezko tratu txar, zuzeneko indarkeria fisiko eta mehatxuen biktima gehienak mutilak dira. Neskek, aldiz, indarkeria sozial (Ararteko, 2006) eta

besteei buruz gaizki hitz egitearen jokaerari dagokionez, biktimen eta erasotzaileen ehuneko gehiena dira (Defensor del Pueblo, 2000).

f) Eskola-jazarpena gertatzen den tokia:

Eskolaren barnean, jolastokia, klaseak, komunak, pasilloak eta abar desberdinu behar dira, leku bakoitzean eraso mota desberdinak eta maiztasun desberdinekin gertatzen direlako. Gehienetan erasoak irakasleak edo helduak presente ez daudenean gertatzen dira, kasu hauetan erasoen maiztasuna askoz txikiagoa baita (Avilés eta Monjas, 2005). Eraso gehienak klase barruan, patioan, nahiz kalean gertatzen dira (Avilés eta Monjas, 2005; Defensor del Pueblo, 2000). ISEI-IVEIk (2019) egindako ikerketaren arabera, desberdintasunak daude LH eta DBHren artean. LHn tratatu txar egoera gehienak jolastokian ematen dira. DBHn, aldiz, erasoak klase barnean ematen dira gehiago.

Jolastokian normalean indarkeria fisikoa eta bazterketa soziala gertatzen dira. Ikasgelan, aldiz, ezizenak eta irainak dira nagusi, eta maiztasun txikiago batean sexu-jazarpena eta ondasunen kontrako jokabideak (gauzak apurtzea nahiz lapurtzea) ematen dira. Komunetan normalean gauzak ezkutatu ohi dira. Kalean, eskolatik kanpo, beste lekuetan ez bezala, armekin mehatxatzen da. Hainbat jazarpen mota (norbaiti buruz gaizki hitz egitea, ez-ikusiarrena egitea, mehatxatzea, jotzea eta abar) edozein lekutan gertatu ohi dira (Defensor del Pueblo, 2000).

g) Eskola-jazarpenaren justifikazioa:

Eskola-jazarpena zergatik gertatzen den galdetzerakoan, erasotzaileek haien portaerak justifikatzeko hainbat argudio ematen dituzte. Askok biktima zirikatzeagatik edo broma bat egiteagatik egin dutela azaltzen dute. Beste batzuek biktimak probokatu dituelako egin dutela diote. Hainbat erasotzaileek ere beraiei berdina egin dietela argudiatzen dute (Avilés eta Monjas, 2005; Defensor del Pueblo, 2000). Halaber, ikasleen %6ak homosexualak mespretxuz tratatzea zuzena dela uste du, eta %7,4ak dio homosexualak mespretxuz tratatzea zuzena dela kasu jakin batzuetan (Pichardo eta koolk., 2007).

Askotan, biktimek aitortzen dute eraso horiek merezi zituztela, jasaten dituzten erasoak justifikatuz (Avilés eta Monjas, 2005). Horregatik askotan erasoak isiltasunean mantentzen dira.

h) Egoera salatzea eta laguntza ematea:

Eskola-jazarpena nabarmenki ezkutatuta dagoen fenomeno da, biktimek, askotan, laguntza eskatzen ez dutelako. Gehienbat biktimek lagunengana jotzen dute egoera salatzeko (Ararteko, 2006; Avilés eta Monjas, 2005; Defensor del Pueblo; 2000). Ikerketa desberdinek helduei laguntza eskatzeko maiztasunaren inguruko iritzi desberdinak ematen dituzte. Alde batetik, Arartekoren (2006) ustetan biktimek ez dute ia helduengana (irakasle zein gurasoenagana) jotzen. Beste aldetik, ISEI-IVEIren (2019) ikerketaren arabera, eskola-jazarpena jasaten duten ikasleek familiarengana lagunengana baino gehiago jotzen dute. Hala ere, bi ikerketek diote biktimek irakasleengana oso gutxitan jotzen dutela. Nork laguntzen dien kontuan izanda, laguntza ematen dutenak, gehienetan lagunak izaten dira, eta ondoren, gurasoak zein irakasleak (ISEI-IVEI, 2019).

LHko biktimen %24ak eta DBHko biktimen %15,6ak ez diete inori egoera kontatzen. Halaber, LHko biktimen %12,6ak eta DBHko biktimen %11,7ak ez dute inolako laguntzarik jasotzen (ISEI-IVEI, 2019). Genereloren ikerketaren (2012) arabera, eskola-jazarpenaren biktimen %28aren egoera bakarrik ezagutarazi zen. Haien egoera familiei kontatu zieten artean, %73ak hauen babesak jaso zuen. Familiaren babesik jasotzen ez den kasuetan, egoera larriagotu egiten da, biktimak bere burua errudun kontsideratzea eragin dezakeelako. Azkenik, aipatzekoa da biktimen %14-20ak ez duela eskola-jazarpeneko egoera salatzen (Defensor del Pueblo, 2000).

Generoari erreparatuz, neskek joera gehiago dute egoerari buruz hitz egiteko mutilek baino. Adinari dagokionez ere desberdintasunak daude, irakasleei jakinarazteko probabilitatea murriztu egiten baita nagusitzerakoan (Avilés eta Monjas, 2005).

Eskola-jazarpenaren aurrean gainerako ikaskideek, hau da, ikusleek, zein jarrera daukaten aztertu beharreko kontua da. Defensor del Pueblok (2000) dio ikasleen %12-21ek ez dutela ezer egiten egoera honen aurrean. ISEI-IVEIk (2019) egindako ikerketan eskola-jazarpeneko egoera baten aurrean nola jokatzeko galdetu zuen. Ikasleen gehiengoak helduren bati egoera jakinarazten diotela edo kontatzen saiatzen direla

erantzun zuten (LHko %74a eta DBHko %61a). Hala ere, ikasleen ehuneko nabarmenak biktimak zirikatzea gaizki iruditzen ez zaiela, tratu txarrak egiten dituztenekin kolaboratzen dutela edota tratu txarrak egiten dituen talderen bateko buru direla erantzun zuten (LHko %9a eta DBHko %5a).

Arartekoren (2006) ikerketari jarraiki, eskola-jazarpenaren ikusleak diren ikasle askok ez diete irakasleei egoera salatzen biktima bilakatzeko beldur direlako. Horrek, eskola-jazarpenaren ikusezintasuna bermatzen du. Kontrako kasua ere gerta daiteke, ikusleak erasotzaile bilakatzeko beldurraren poderioz, erasotzailearen konplize bilakatzeko (Defensor del Pueblo, 2000).

i) Eskola-jazarpenaren ondorioak:

Egoera guzti honek biktimengan nahiz erasotzaileengan ondorio nabariak ditu, ikasle ez-heterosexualengan larriagoak izanik, zaurgarritasun handiagoa daukatelako. Horregatik LGTB* diren biktimek, sintoma gehiago aurkezten dituzte aztertutako nahasmendu psikopatologiko guztietan (somatizazioa, depresioa, antsietatea, antsietate soziala, ideia paranoideak...) (Garaigordobil eta Larrain, 2020).

Eskola-jazarpenaren ondorioetako bat biktimengan, larriena dena, norbere buruaz beste egiteko ideiak edukitzea da. Sexu-orientazioa nabarmen lotzen da suizidio-saiakerarekin. LGTB* diren gazteak, zis eta heterosexualak diren gainerako gazteekin konparatuz, norbere buruaz beste egiteko probabilitate handiagoa daukate (Miranda-Mendizábal eta koolk., 2017; Ream, 2019). Hala ere, gai hau gutxi aztertzen dela salatzen da, eta, horregatik hainbat ikerketek diote ez dagoela informazio nahikorik sexu-orientazioa suizidioarekin lotzeko (Miranda-Mendizábal eta koolk., 2017).

Genereloren ikerketaren (2012) arabera, eskola-jazarpenaren biktimak izan ziren inkestatutako gazteen artean %43ak norbere buruaz beste egiteko ideiak izan zituen. Horien artean, %35ak norbere buruaz beste egiteko xehetasunetan pentsatu dute edo planifikatu dituzte. Azkenik, sexu-orientazioagatik eskola-jazarpena jasandako ikasleen %40a norbere buruaz beste egiten saiatu zuten, horien %18a behin baino gehiagotan.

Datuei erreparatuta, eskola-jazarpena eskoletan gertatzen den fenomeno larria da, bai honek daukan maiztasunagatik eta bai suposatzen dituen ondorioengatik. Horren

ondorioz, eskola leku ez-segurua bilakatzen da LGTB* diren ikasleentzat eskola-jazarpena dela eta (Pichardo eta koolk., 2007). Beraz, egoera hauek prebenitzea nahiz hauen aurrean esku-hartzea oso garrantzitsua da.

4.3. LGTB* kolektiboak eskola-jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko dauzkan baliabideak:

LGBTB* izateak berekin eskola-jazarpenaren biktima izateko arriskua dakar, LGTB*fobia kultura baten esparru guztietan presente dagoelako. Egoera horiek ekiditeko, nahiz horiei aurre egiteko, hainbat baliabide existitzen dira: elkarteak, eskola-azarpenera detektatzeko tresnak, programak, ekimenak...

4.3.1. Elkarteak:

Euskal Autonomia Erkidegoko elkarte desberdinek LGTB* diren pertsonen diskriminazioarekin bukatzea, ikusgarritasuna ematea, LGTB* kolektiboaren eskubideen alde egitea eta laguntza nahiz informazioa eskaintzea dute helburu. Horiek era batean edo bestean, eskola-jazarpena ekiditeko helburua daukate. Helburu horiek lortzeko mota desberdinetako jarduerak antolatzen dituzte: hitzaldiak, tailerrak, prestakuntzak, sentsibilizazio-kanpainak, aholkularitza... Elkarte horien artean ondorengo hauek aipa daitezke:

- *Errespetuz (2017)*: Bizkaiko pertsona gay, lesbiana, bisexual eta transexualen elkarte da.
- *Gehitu (2006)*: Gipuzkoako pertsona transexualen defentsa eta integrazioarako elkarte da.
- *Aldarte (2020)*: Intolerantziari eta LGTB* kolektiboari zuzendutako aurreiritzi sozialek eragiten dituzten gatazkak konpontzeko irtenbide positiboak bilatzen dituen Arabako elkarte da.
- *Naizen (2020)*: Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako transexualak diren adin txikikoen familiak bateratzen dituen elkarte da.

4.3.2. Eskola-jazarpena detektatzeko tresnak:

Eskola-jazarpena detektatzeko tresnei esker erasotzaileak nahiz biktimak identifikatu daitezke eta eskola-jazarpenaren maiztasuna ezagutu daiteke. Egoera horiek, askotan sekretupean daude, eta beraz, isiltasunean pairatzen diren abusuak detektatu behar dira, egoera horiek ezagutaraziz horiei aurre egiteko aukera zabaltzen delako.

Eskola-jazarpena eta haren manifestazio desberdinak detektatzeko tresna desberdinak existitzen dira. Alde batetik, eskola-jazarpenaren adierazleak hauteman daitezke ikasleen portaera behatuz. Beste aldetik, eskola-jazarpeneko egoerak detekta daitezke ikasleei edo irakasleei zuzenean eskola-jazarpenaren inguruko galderak egiten dituzten testak pasatuz (adibidez, CIMEI eta AVE testak).

a) Eskola-jazarpena detektatzeko adierazleak:

Esan bezala, eskola-jazarpeneko kasu bat detekta daiteke horren adierazpen desberdinen bitartez, ikastetxeetan nahiz etxean agertzen direnak. Beraz, irakasle eta gurasoek adierazle horiei erreparatu behar diete (Pichardo eta koolk., 2015).

Klasean irakasleek homofobia eta transfobiagatik eskola-jazarpena jasotzen eta egiten duten ikasleak detektatzeko adierazle batzuk ondorengo hauek dira (Pichardo eta koolk., 2015):

1. Biktimak detektatzeko adierazleak:

- Eskola-jazarpenaren biktima generoarekin edo sexualitatearekin lotutako ezizenak erabiliz izendatzen dute ("marikoia", "bollera", "travelo", "marimatxo", etab.).
- Erasotzaileek biktimaren hitz egiteko, mugitzeko edo ibiltzeko modua imitatzen dute.
- Biktima jarduera desberdinetan bakarrik geratzen da. Normalean bakarrik dago. Gutxi parte hartzen du.
- LGTB* den pertsonaia bat aipatzen denean klasean biktimari buruzko aipamenak egiten dira.
- Eskola errendimendua gutxitu egiten du.
- Justifikaziorik gabeko asistentzia faltak ditu.
- Ziberbullyingari dagokionez, biktimak gelako gainerakoek partekatutako espazioetatik kanpo dago (Whatsappeko taldeak, Facebook...).

2. Erasotzaileak detektatzeko adierazleak:

- Mespretxuzko adierazpenak erabiltzen ditu homosexualitatea, bisexualitatea edo transexualitatea aipatzean.
- Generoari eta sexualitateari buruzko arau hegemonikoak jarraitzen ez dituzten pertsonak baztertzen, iraintzen, mehatxatzen edo erasotzen ditu.
- Neska lesbiana dela jakitean, mutila bada, berarekin ligatzen saiatzen da.
- Jardueretan biktima bere taldean sartzeari uko egiten dio.
- Gainerako ikasleak hertsatzen eta xantaiatzen ditu, jazarpenaren biktimarekin adiskidetasunik eta harremanik izan ez dezaten.

Era berean, familiek etxeetan haien seme-alabak homofobiagatik edo transfobiagatik eskola-jazarpenaren biktimak direla detekta dezakete (Pichardo eta koolk., 2015). Ondorengo hauek dira horretarako zenbait adierazle:

- Eskolara joateari uko egitea.
- Aldaketak janzkeran.
- Etxera itzultzen denean eskola-materiala hondatuta edo lapurtuta dutela.
- Zauriak, ubeldura edo markak ditu (normalean azaltzen ez dituenak).
- Ez du aisialdia ikastetxetik kanpo igarotzeko lagunik.
- Ez da ausartzen bakarrik kalera ateratzen.
- Somatizazio errepikatuak: ondoeza altxatzean, zorabioak, buruko minak, ondoeza edo nahasmendu gastrointestinalak, dardarak, gosearen edo loaren alterazioak...
- Zaletasunak pixkanaka alde batera uzten ditu.
- Etxean jarrera oldarkorak erakusten ditu.
- Autolesioak, ideiak edo suizidio-saiakerak.

b) Eskola-jazarpena detektatzeko testak:

Eskola-jazarpeneko kasuak detektatzeko, biktimak eta erasotzaileak identifikatzeko, ikastetxe batean eskola-jazarpenaren maiztasuna ezagutzeko nahiz eskola-jazarpenaren ondorioak ezagutzeko testak erabili ohi dira. Jarraian zenbait test azalduko dira:

Cuestionario sobre la incidencia del maltrato entre iguales (Defensor del Pueblo, 2007):

Bi galdetegi desberdin dira, bat ikasleentzat eta beste bat ikasketa buruentzat. Bi kasuetan, intzidentzia eskala ordinal batean ebaluatzen da jazarpen motaren maiztasuna (inoiz ez, batzuetan, askotan, beti).

Ikasleen galdetegia hainbat bloketan banatuta dago, zeinak honako alderdi hauei buruzko informazioa biltzen duten:

- Ikusleen ikuspuntutik: tratu txar motak, horien maiztasuna eta erasotzen duten pertsonen kopurua.
- Ikasleak bizitako jendarte-harremanak eta sentimenduak.
- Biktimaren ikuspuntutik: tratu txar motak eta horien maiztasuna.
- Erasotzailearen ezaugarriak: sexua, kolektibitateko kidea izatea ala ez, estatusa (irakaslea izan ala ez).
- Tratu txar mota bakoitza gertatzen den lekua.
- Gertakariaren berri eman zaien pertsonak eta nortzuk laguntzen duten.
- Erasotzaileek burutzen dituzten jokabideak, besteen erreakzioa horiekiko eta besteen jokabideetan izandako parte-hartzea.

Ikasketa buruei zuzendutako galdetegian bi galdera mota daude:

- Ikasketa buruek erantzun beharreko galderak: zuzendaritza taldera zenbat eskola-jazarpen kasu ailegatzen diren eta horien aurrean ze motatako neurriak hartzen dituzten ezagutzeko.
- Irakasleek erantzun beharreko galderak: jazarpen motari, maiztasunari, lekuari... buruzko informazioa lortzeko.

Test AVE (Acoso y Violencia Escolar) (Oñate eta Piñuel, 2007b):

Eskola-jazarpena eta jokabide horiei lotutako kalte psikologikoak prebenitzeko, identifikatzeko, tratatzeko eta diagnostikatzeko helburua dauka. Aplikazio eremuari dagokionez LHko bigarren mailatik Batxilergo bigarren maila arte aplikatu daiteke. Indibidualki edo taldeka pasa daiteke eta 25 eta 35 minutu artean beharrezkoak dira testa betetzeko.

Bi zatitan banatuta dagoen autoebaluaziorako testa da. Laurogeita hamalau itemei erantzun behar zaie. Horiei jazarpen- eta indarkeria-portaeren intzidentzia-maiztasunaren arabera erantzun behar zaie, bai eta kalte psikologikoaren sintomatologiaren arabera ere. Item horien arabera 22 adierazle desberdin lortzen dira, adierazle orokor, jazarpenaren eta eskola-indarkeriaren adierazle, faktore global eta dimentsio klinikoetan sailkatzen direnak. Kontraesanen eskala ere dago, subjektuak galderetan kontrako erantzunak emateko duen joera neurtzen duena.

CONVES: Evaluación de la Convivencia Escolar (García eta Vaca, 2009):

CONVES 10-20 minututan bete daitekeen galdetegi labur bat da eta ikasle bakoitzak jasaten ari den eskola-jazarpen maila ebaluatzen du. Ikasgelen, ikasturteen, hezkuntza-etapen eta ikastetxeen artean dauden aldeak konparatzeko erabilgarria da. Halaber, esku-hartze jarduerak sortzeko aukera ematen du, beharrezkoak diren lekuetan.

Orokorrean, talde handietan aplikatzeko sortu da, ikastetxe osoari ahal bada, LHko bigarren mailatik Batxilergoko Bigarren maila arte. Hala ere, ikasturte edo gela batzuetan bakarrik ere aplika daiteke. Horrela informazio-aberastasun handia lortzen da, jazarpen arazo posibleak zein talde edo ikasturtean agertzen diren edo ikastetxeko zein lekutan edo ingurutan jokabide arriskutsuak agertzen diren detektatu daiteke.

Cuestionario sobre intimidación y maltrato entre iguales (CIMEI) (Avilés, 1999):

Galdetegi honek bi motatako galderak dauzka: Aukera anitzeko 32 item; eta erantzun irekiko item bat. Orokorrean item gehienetan erantzun bakarra aukeratu behar da, baina beste item batzuetan hainbat erantzun aukeratzea posible da. Azken galderan, irekia dena, ikaslea eskola-jazarpenari buruz nahi duena idaztera gonbidatzen zaio, bai eta hala nahi badu, bere izena esatera ere. 6 dimentsio desberdin aztertzen ditu galdetegi honek:

1. Zazpi item: ikaslearen egoera-alderdiak.
2. Zazpi item: biktimen profilaren baldintzak.
3. Bost item: larderiaren egoera-alderdiak.
4. Zazpi item: erasotzaileen profilaren baldintzak.

5. Lau item: ikusleen profilaren baldintzak.
6. Hiru item: konponbiderako proposamenak.

Eskola-biktimizazioan parte hartzen duten rolen eskala (Salmivalli eta koolk., 1996):

Hogeitabat itemez osatutako galdetegi hau bullying egoera baten aurrean ikasleek dituzten jokabideak aztertzeko erabilgarria da. Item horiek eskola-jazarpenean aurkitzen diren 6 rol ezberdinen jokabideei egiten diete erreferentzia: erasotzailea, animatzailea, erasotzailearen laguntzailea, defendatzailea, ikuslea eta biktima.

Parte hartzaileek item bakoitzean ageri den deskribapen horretara hobekien egokitzen den ikaskidea izendatu behar dute. Beraz, metodo hau ikasleak rol jakin batean identifikatzean datza, rol horri erreferentzia egiten dioten itemen puntuazio estandarizaturua gelako batez bestekoa baino altuagoa eta beste edozein roletan baino altuagoa bada. Hala ere, salbuespen bat dago, biktima-rolaren kasua. Kasu horretan, gelakideen %20ak gutxienez rol horretakoa izendatzen badute, biktima kontsideratuko da.

4.3.3. Eskola-jazarpena ekiditeko programak:

Ikastetxeetan eskola-jazarpena ekiditeko asmotan programa desberdinak sustatzen dira. Jarraian eraginkortasunari dagokionez, emaitza onak lortu dituzten hiru programa desberdin azalduko dira. Nahiz eta batzuek LGTB* izateagatik sufritu daitekeen eskola-jazarpeneraren inguruan jorratzen ez duten, garrantzitsua da aztertzea eskola-jazarpena ekiditeko programa desberdinak nolakoak diren.

a) KiVa Programa:

KiVa programa Finlandian sortutako programa bat da. Mundu osoko hainbat herrialdetan aplikatzen da (Finlandia, Belgika, Irlanda, Italia, Espainia, Zeelanda Berria...). Programa honen helburua eskola-jazarpena ekiditea (ikasgai eta joku desberdinen bidez) eta honen aurrean esku-hartzea da. Programaren ebaluaketa egiteko online tresnak ere eskaintzen ditu (Ávila, 2013).

Hainbat tresna desberdin eskaintzen ditu programa honek bere helburuak lortzeko:

1. Klase barruan landuko diren saioak. Hiru bertsio desberdin ditu adinaren arabera. Lehenengoa 6 eta 9 urte bitarteko ikasleentzat zuzenduta dago, bigarrena 10-12 urtekoentzat eta hirugarrena 13-16 urte bitartekoentzat. Orokorrean, eskola-jazarpenari eta besteekiko errespetuari buruzko elkarrizketak eta eztabaidak, taldean nola funtzionatu, eta hainbat motatako ariketak eta talde-lanak burutzen dira. Ikasgai hauek KiVaren ordenagailu-jolas batekin osatu daitezke.
2. Txaleko islatzaileak ematen dizkiete irakasleei patio orduan haien ikusgarritasuna areagotzeko. Ikasleengan eragitea da helburua, isiltasuna onartu edo jazarleak animatu beharrean, biktimari babesa eman diezaioten, eskola-jazarpena onartzen ez dutela erakutsiz.
3. KiVa talde berezia. Eskola-jazarpeneko kasu batean aurrean jarduteko prestakuntza jasotzen dute.

Ikerketa baten arabera KiVa programak nabarmen murrizten ditu biktimak berak eta lankideek salatutako jazarpen-kasuak, bai eta biktimizazioa ere. Hala ere, emaitzak positiboagoak dira LHn DBHn baino. Honen arrazoia da LHko ikasleek nerabezaroan baino askoz ere begirune handiagoa diotela autoritateari (Kärnä eta koolk., 2012).

b) TEI Programa: Berdinen Arteko Tutoretzak (González, 2015):

TEI programa berdinen arteko tutoretzako eskola esku-hartze bat da, eskola-indarkeria eta eskola-ziberbullyinga ekiditera bideratua. DBHko ikasleentzat bideratuta dago, gehienbat.

Programaren helburuak eskola-giroa hobetzea, bizikidetza positiboa sustatzea, indarkeriarekiko zero tolerantzia sustatzea eta eskola inklusibo eta ez-biolentoaren alde lan egitea dira.

Programa honek hezkuntza-komunitate osoa inplikatzen duena. Berdinen arteko tutoretza emozionalean oinarritzen da, non errespetua, enpatia eta konpromisoa garapenerako oinarritzko zutabeak diren ikastetxeetan. Modu honetan, goi-mailako ikasleak beheko mailetakako ikasleen tutore emozionalak bilakatzen dira.

Programa honen helburuak ondorengo hauek dira:

- Indarkeriaren ondorioei buruz hezkuntza-komunitate osoa sentsibilizatzea.
- Hezkuntza-komunitatea indarkeriaren arrazoiez kontzientziatzea eta ondorio pertsonal, sozial eta hezigarrien berri ematea.
- Ikasleak integratzeko prozesua erraztea, hezkuntza inklusibo baterantz.
- Erreferente bat sortzea (tutorea), autoestimua errazteko eta espazio eta egoera ezezagunek eragiten duten segurtasunik eza murrizteko.
- Ikasleak ahalduntzea bizikidetzaren subjektu dinamiko gisa, indarkeriaren prebentzioan.
- Indarkeriaren eta eskola-jazarpenaren biktimen sufrimenduarekiko enpatia eta norbanakoaren eta eskola-taldearen (ikusleen) konpromisoa garatzea.
- Indarkeriaren eta jazarpenaren berezko boterearen eta indarraren desoreka konpentsatzea, prebentzioaren eta disuasioaren ikuspegitik.
- Indarkeriaren eta tratatu txarren aurrean "zero tolerantzia" integratzea, ikastetxearen nortasun-ezaugarri gisa.
- TEI zentroen sarea garatzea eta partekatzea, indarkeriarekiko eta eskola-jazarpenarekiko zero tolerantzia.

Programa honetan hezkuntza komunitatearen parte-hartzea beharrezkoa da. Era berean, ikastetxe parte-hartzaile bakoitzean koordinatzaile eta TEI talde bat (gutxienez hiru irakasle, koordinatzailea eta zuzendaritza taldearen ordezkari bat) egon behar dira. Programa honen bidez ikasgelako giroa aldatzen da, erasotzailearen, biktimaren eta ikusleen rola ezabatzen dira, errespetu, balio eta enpatiatatik ordezkaturik.

Ferrer eta kideek (2019) landutako ikerketan batek, nerabeen lagin bat hartuta, aztertu zuen TEI programak eskola-jazarpena eta ziberjazarpena murrizteko eta eskola-giroa hobetzeko duen eraginkortasuna. Lortutako emaitzak programaren aldekoak izan ziren. Lehenik, baieztatu zen programa eraginkorra zela eskola-giroa, eskolarekiko gogobetetzea, kide izatearen zentzua, lankidetzaren eta familiaren eta eskolaren arteko komunikazio positiboa hobetzeko. Bigarrenik, bullying eta ziberbullyingaren inguruko datuak baxuak izan ziren. Azkenik, eskola-jazarpenaren subjektu desberdinengan eragina izan zuela ondorioztatu zen. Biktimentzat, jasaten duten eskola-jazarpenaren berri emateko edo hura ikaskide egokiari kontatzeko aukera ematen dio programak. Erasotzaileek egiten dituzten erasoak zein horiek dituzten ondorio negatiboak hauteman, ebaluatu eta kontzientzia hartzen dute. Ikusleengan, indarkeriari buruz hausnartzeko

gaitasuna sustatzen da, gehiago jabetzen dira abusu mota bakoitzaz eta jokabide aktiboago sustatzen da eskola-jazarpenaren aurrean.

d) Eskola indarkeriaren aurkako Sevilla Proiektua (SAVE): berdinen arteko tratu txarren aurkako prebentziorako esku-hartze eredu (Ortega, 1997):

Hiru prebentzio-programa bateratzen dira honetan, aldi berean burutu daitezkeenak edo bata bestearen atzean burutu daitezkeenak. Eskola-jazarpena jasaten duten edo eragiten duten ikasleentzat zuzendutako arreta zuzeneko programa gehitu behar zaie hiru hauei. Hiru programa horiek ondorengo hauek dira:

- *Bizikidetzaren demokratikoki kudeatzeko programa:*

Jendarte-harremanak sendotzeko, gatazkak okerrera egitea saihesteko eta arazoak modu demokratikoan konpontzeko bideratuta dauden edukiak lantzen dira programa honetan. Horretarako nor bere burua identifikatzen ikasteko, iritziak adierazteko, besteei entzuteko, arauak egiteko, erabakiak hartzeko, sentimenduak adierazteko, emozioak modulatzeko eta abarrerako tresnak eskaini behar ditu.

- *Talde kooperatiboko lan-programa:*

Programa honen edukien artean elkarriketa, negoziazioa, kritikatzeko, esanahia lantzea, ekoizpen kognitiboa eta abar lantzen dira. Modu kooperatiboan ikasketak ikasleen arteko komunikazioa garatzen du, bestearen ideiak errespetatzea eragiten du eta abar.

- *Sentimendu eta balioetan hezteko programa:*

Programa honek hezkuntza-esperientziak garatzeko tresnaz hornitu behar ditu parte-hartzaileak. Horregatik, programa honetan norberaren eta besteen bizitzarekin lotutako sentimenduak eta balioak, tolerantzia, justizia, berdintasuna, autoestimua, elkartasuna, laguntza, autonomia, erantzukizuna eta abar lantzen dira.

Programa honen eraginkortasunari dagokionez, SAVEn medioz ikastetxearen giroa hobetu egiten dela dio ikerketa batek. Ikasleak hobekuntza horretaz jabetzen dira eta irakasleak poztu egiten dira gauzak alda daitezkeela uste dutenean. Hala ere, eskola-jazarpenaren arazoarekin bukatzen ez duela argudiatzen dute aztertutako adierazte guztiak onak ez direlako. Honen arrazoia eskola-jazarpenaren arazoa eskolan bakarrik

sortzen ez den fenomenoa dela da, kanpoko faktoreek (pertsonalak, familiarrak...) ere eragiten baitute honen sorkuntzan (Ortega eta del Rey, 2001).

4.3.4. Eskola-jazarpena ekiditeko beste motatako baliabideak:

Eskola-jazarpena ekiditeko programak ez dira existitzen diren baliabide bakarrak. Azken finean, genero dibertsitatea, orientazio sexualak nahiz eskola-jazarpena lantzen duten beste motatako baliabideak ere erabilgarriak dira, zeharkako moduan arazo honekin bukatu egin nahi dutenak. Baliabide hauen artean ekimen eta gida desberdinak aurkitu daitezke. Jarraian horietako batzuk azalduko dira:

Bizikasi (Eusko Jaurlaritzak, 2020).

Bizikasi BAT! taldeak (bullyingaren aurkako taldeak) sortutako ekimena da. Ekimen honek ikastetxeak bizikidetza positiboko eta jazarpen-egoeren aurrean zero tolerantziako gune seguruak izan daitezen lagundu nahi du.

Hiru esku-hartze maila planteatzen dituzte:

1. Lehenengo mailako esku-hartzea: indarkeria prebenitzeko jarduera praktikoak aurrera eramatea.
2. Bigarren mailako esku-hartzea: eskola-jazarpenaren aurrean parte-hartzea.
3. Hirugarren mailako esku-hartzea: eskola-jazarpenaren aurkako ekimenaren jarraipena eta ebaluazioa burutzea.

Webgunean jarduera desberdinak proposatzen dituzte ikastetxeetan aurrera eramateko, baina ikastetxe bakoitzak beharren arabera jarduera batzuk edo besteak egiteko aukera zabaltzen du, bakoitzak bere diseinua eratuz. Jarduera hauek bi ikasturtetan zehar lantzeko aurreikusita daude, eta ahal denean tutoretza orduetan aurrera eramatea gomendatzen da. Ikasle bakoitzak BAT karpeta izango du eta bertan gordeko ditu erabilitako material guztiak.

Berdinu! (Eusko Jaurlaritzak, 2016a).

Berdinu! Eusko Jaurlaritzaren informazio- eta arreta-zerbitzua da, sexu- eta genero-aniztasunarekin lotutako gaietarako. LGTB diskriminazio-arazoak edo sexu-aniztasuna lantzeko interesa duten ikastetxeei aholkularitza emateko berariazko zerbitzua da. Zerbitzu honen helburuak ondorengo hauek dira:

- Orientazio afektibo-sexualen eta genero-orientazioen normalizazioan aurrera egitea eta homofobia, lesbofobia eta transfobiagatiko diskriminazioa ezabatzea.
- Politika publikoetan eta zerbitzuetan LGTB ikuspegia lortzea.
- LGTB pertsoneri eta haien inguruari informazioa eta orientazioa ematea, kostu pertsonal, familiar eta sozial txikiena bilatuz.

Honen barruan *Berdindu eskola!* zerbitzua eskaintzen zaie ikastetxeei. Alde batetik, LGTB* izateagatik sufritu daitekeen diskriminazioa, bullying homofoboa, lesbofoboa, transfoboa eta abarreko kasuak dituzten ikastetxeentzat lehen arreta eta orientazioa eskaintzen dute. Beste aldetik, sexu-aniztasunaren ikuspegia haien curriculum-planean txertatzeko interesa duten ikastetxeei laguntza teknikoa eta oinarritzko prestakuntza pertsonalizatua eskaintzen diete.

Abrazar la diversidad: propuestas para una educación libre de acoso homofóbico y transfóbico (Pichardo eta koolk., 2015).

Argitalpen honek hainbat helburu desberdin ditu. Lehenik, jazarpen homofobikoari eta transfobikoari buruzko ebidentzia ezagutzera eman nahi du. Bigarrenik, ikastetxeei eta hezkuntza-komunitate osoari zuzendutako hainbat neurri zehatz proposatzen ditu, gomendio gisa, jazarpen homofobikoa eta transfobikoa prebenitzeko, detektatzeko eta horren aurka jardun ahal izateko. Azkenik, jazarpena detektatu, prebenitu eta lantzeko beharrezkoak diren tresna praktikoa desberdinak azaltzen ditu.

Helburu horiek lortzeko ikastetxeetan homofobiagatiko eta transfobiagatiko jazarpenaren aurkako ekintza-gida bat eskaintzen da. Gida horretan hainbat baliabide didaktiko (haur hezkuntzarako, LHrako, DBHrako, batxilergorako ...), eskola-jazarpen hau eragozteko baliabide juridikoak eta autonomia-erkidegoetako praktika publikoak eta baliabide juridikoak eskaintzen dira.

Era berean, ikasleen artean homofobia eta transfobiagatiko eskola-jazarpenaren kasu baten aurrean esku-hartzeko protokolo bat ere aurki daiteke gida honetan.

Diversidad sexual en las aulas. Evitar el bullying o acoso homofóbico (Agustín, 2009).

Gida hau orientazio sexualari, homofobiari eta bullyingari buruzkoa da. Lehenengo atalean sexu orientazioa, dibertsitatea, sexualitatea eta sexuari buruz hitz egiten du. Bigarren atalak homofobia azaltzen du. Hirugarrena eskoletan existitzen den homofobian zentratzen da. Laugarren atalak bullyingari sarrera ematen dio, eta bosgarren atalak bullying homofobikoa azaltzen du. Hurrengo atala biktimetan zentratzen da, LGTB* ikasleek bullyingaren biktima bilakatzeko arriskuari buruz, hain zuzen ere. Azkeneko atalak, eskola-jazarpenaren kontra jarduteko hainbat bide edo baliabide desberdin proposatzen ditu. Baliabide horien artean ondorengoak aipatzen dira:

- Sexu-aniztasuna ikastetxeetako erregelamendu, bizikidetza-plan eta gainerako ekintza kolektiboetan kontuan hartzea.
- Irakasleentzako bullyingaren aurkako entrenamendu programak burutzea.
- Irakasleei, ikasleei eta familiei zuzendutako sexu-hezkuntzako programak burutzea.
- Sexu aniztasunari buruzko programa espezifikokoak burutzea, ikasle eta familiei zuzendutakoak.
- Hezkuntza-jarduerak eta baliabideak erabiltzea (talde dinamikak, bideo-forumak...).
- Bullyingaren aurkako protokolo eta programen aplikazio espezifikoa egitea ikastetxeetan.

4.3.5. Eskola-jazarpen kasu baten aurrean nola jardun azaltzen duten gidak:

Eskola-jazarpeneko kasu baten zantzuak daudenean ikastetxeetan normalean protokolo bat existitzen da kasu horren aurrean jarduteko pausu desberdinak deskribatzen dituen, modu eraginkorrean jardun ahal izateko. Atal honetan Espainia mailan eta Euskadi mailan proposatzen diren bi protokolo desberdin aztertuko dira.

a) Protocolo de intervención en caso de acoso escolar por homofobia y transfobia entre el alumnado (Pichardo eta koolk., 2015).

Eskola-jazarpeneko kasu batean aurrean esku-hartzeko protokolo bat proposatzen du “Abrazar la diversidad: propuestas para una educación libre de acoso homofóbico y transfóbico” (Pichardo eta koolk., 2015) informeak. Protokolo horrek bost fase desberdin ditu eta ahalik eta azkarren aplikatzea gomendatzen du. Protokoloa ondorengo hau da:

1. Notifikazioa:

Eskola-jazarpeneko egoera baten aurrean egin beharreko lehenengo gauza egoera hori notifikatzea da, hitzez edo idatzita. Bi kasuetan homofobiaren edo transfobiaren ondoriozko eskola-jazarpenaren kasuetarako dokumentua bete behar da.

2. Ikerketa:

Notifikazioa jaso ondoren, ikastetxeko zuzendaritza taldeak ikerketa talde bat osatuko du. Ikerketaren bidez, ikastetxeko arrisku-guneak eta horietan gertatzen diren interakzio motak behatuko dira. Jazarpenean inplikaturik dauden arteko interakzioei erreparatuko zaie ere. Elkarrizketak egingo zaizkie ustezko erasotzaileari, jazarpenaren ikusleei, ustezko biktimari, ustezko erasotzailearen familiari eta ustezko biktimaren familiari (banaka eta kasuaren arabera).

Fase honen bukaeran hainbat prebentzio neurri hartuko dira: arrisku guneak zainduko dira jazarpen egoerak gerta ez daitezzen eta biktimak hala nahi badu, biktimak bere lagunaren segizioa izan dezake eta konfiantzazko irakasle baten jarraipen eta euste emozionala izan dezake.

3. Balorazioa:

Ikerketa Batzordeak ikerketan lortutako informazioa aztertuko du eta ondorioen berri emango du balorazio-txosten baten bidez. Azkenik, txosten hori ikastetxeko zuzendaritza-taldeari bidaliko zaio.

Balorazio-txostenak homofobiagatiko edo transfobiagatiko eskola-jazarpenik ez dela egon ondorioztatzen badu, protokoloa amaitutzat jo ahal izango da. Hala ere, berrikusteko aukera dago. Aldiz, Balorazio-txostenak ikastetxean homofobiagatiko edo transfobiagatiko eskola-jazarpeneko kasu bat dagoela ondorioztatzen badu, protokoloaren hurrengo fasea aktibatuko da: esku-hartzea.

4. Esku-hartzea:

Esku-hartzeak hainbat fase izango ditu:

- Egoeraren berri emango zaie inplikaturako ikasleen familiei. Etxean ere, biktima babesgabetasun egoera batean dagoela ondorioztatzen bada, jendarte zerbitzuetara, hezkuntza ikuskaritzako zerbitzura, adingabeen fiskaltzara, poliziarengana edo udal-hezkuntzako arloetara jo beharko da.
- Biktimari, erasotzaileari eta ikusleari zuzendutako hezkuntza neurri indibidualak hartuko dira
- Klase osoari zuzendutako hezkuntza neurri kolektiboak hartuko dira. Genero eta orientazio-sexualaren eta homofobiaren eta transfobiaren inguruan hausnartzera zuzendutakoak.
- Inplikaturako familiekin neurriak ere hartuko dira, haien seme-alabei laguntzeko informazio eta orientazioa eskainiz.
- Irakasleei egoeraren eta hartutako neurrien berri emango zaie. Gida jarraitzeko eta jarraipenean duten erantzukizuna eta beste kasu batzuk detektatzeko adierazleak gogoratuko zaizkie.
- Beharrezkoak diren kasuetan neurri diziplinarioak har daitezke.

5. Jarraipena:

Esku-hartzea martxan jarri ondoren, honen jarraipena egitea beharrezkoa da. Horretarako, hartutako neurri guztiak betetzen eta aprobetxatzen direla zaindu behar da. Erasotzaileak homofobiagatiko edo transfobiagatiko jazarpen kasuetan berriro nahasi diren ebaluatuko da. Eta, azkenik, protokoloaren aplikazioak izandako ondorioaz aztertuko dira.

b) Eskola-jazarpen kasuetan ikastetxeetan jarduteko gida (Eusko Jaurlaritzak, 2015).

Eusko Jaurlaritzak landutako gida honetan eskola-jazarpenaren kasuetan jarduteko protokolo bat azaltzen da. Protokoloa hainbat bidetatik has daiteke: ikastetxeak berak egora salatu duelako, familiak salatu duelako, polizia- edo epai-salaketa jarri delako eta abar.

Protokolo honek 10 fase ditu:

1. Eskola-jazarpena kontsideratzen diren jokabideak behatzea:

Eskola jazarpenaren egoera baten zantzuak daudenean, eskola-jazarpenarekin zuzenean lotura daukaten jokabideak eta horren adierazleak aztertu behar dira. Hasierako susmoak betetzen badira eta ikastetxean jazarpen kasu bat badago, zuzendaritza-taldeari egoeraren berri emango zaio.

2. Zuzendariari eta zuzendaritza-taldeari jakinaraztea:

Lortutako informazioa zuzendariari edo zuzendaritza-taldeari pasatu behar zaio.

Fase honetan lehenengo bilera egingo da. Bilerara joan behar dute tutoreak, orientatzaileak eta inplikaturako ikasleen beste irakasle batzuk (beharrezkoa denean). Bilera horretan eskola-jazarpenaren kasua existitzen den edo ez zehazteko informazioa biltzeko behar den esku-hartzea aztertu eta baloratuko da. Bigarrenik, protokoloa irekitzea edo ez erabakiko da. Azkenik, jokabideak zuzentzeko prozedura hasteko erabakia hartuko da. Erabaki guztiak akta batean jasoko dira eta horren berri emango zaio Hezkuntzako Ikuskaritzari. Protokoloa hastea erabakitzen bada, zuzendariak A Txostena bete beharko du.

3. A Txostena. Informazioa biltzea eta aztertzea:

Ikertzen ari den kasuan inplikaturako pertsonekin, gainerako ikaskideekin, tutoreekin... hitz egingo da, gertakarien inguruko frogak lortzeko. Informazio horrekin eskola-jazarpeneko egoera existitzen den ala ez erabakiko da eta horren larritasun-maila ezagutuko da. Ondoren, bigarren bilera baterako deialdia egingo da, non eskola-jazarpena dagoen edo ez zehaztuko den. Bileren ondorioak A Txostenean islatuko dira.

Biktima babesteko neurriak eta erasotzaileari zuzendutako neurriak hartuko dira beharrezkoa den kasuan. Etapa honetan ere familiei lehen jakinarazpena egingo zaie eta gertakarien eta hartu behar diren premiazko neurrien berri emango zaie.

4. A Txostena igortzea Hezkuntzako Ikuskaritzari:

A Txostena Hezkuntzako Ikuskaritzari igorriko zaio egindako ikerketaren emaitza zein den kontuan izan gabe.

5. Eskola-jazarpenaren ebidentziarik ez dagoenean:

Alde batetik, ikastetxeak aztertutako egoera eskola-jazarpena ez dela kontsideratzen denean, hezkuntza-tratamendu bat aplikatu daiteke. Beste aldetik, gertaera delitu bat denean, Adingabeen Erantzukizun Penalaren arabera, neurri zuzentzaile bat aplikatuko zaie ikasle horiei.

6. eta 7. B Txostena. Eskola jazarpenaren ebidentzia dagoenean:

B Txostena bete beharko da eskola-jazarpena egon dela dekretatzen den kasuetarako. Honetan, beharrezkoa den kasuetarako, informazio gehigarria bilduko da, kasuaren xehetasunak eta beste datu batzuk ezagutu ahal izateko. Era berean, ikastetxeak gauzatuko dituen esku-hartze hezigarrien jarduera-plana planifikatu eta idatziko da. Hartuko diren neurriak desberdinak izango dira ikaslearen hezkuntza-etaparen eta haren ezaugarri pertsonalen arabera.

Hartutako neurrien jarraipena eta ebaluazioa egin behar da. Eskola-jazarpenean inplikaturiko ikasleen familiekin bilera gehiago burutu daitezke, informazio berriari buruz berri emateko. Erasotzaileari hain murriztaileak ez diren neurriak aplikatzea posible da, baldin eta bere jarreraren aldaketa positiboa gertatu dela eta eragindako kaltea konpontzeko konpromisoa hartu dela egiaztatzen bada. Horregatik, adiskidetze- edo konpontze-neurriak ezartzeko aukera dago kasu hauetan.

Ikastetxeko zuzendaritzaren ardura jarduera-planean aurreikusi diren neurrien ezarpena betetzen dela eta horretan aldaketarik balego Hezkuntza Ikuskaritzari berri ematea da.

8. B Txostena igortzea Hezkuntzako Ikuskaritzari:

B Txostena Hezkuntzako Ikuskariari igorriko zaio. Ondoren, Ikuskariak neurrien eta kasuaren bilakaeraren jarraipena egingo du.

9. Beste instantzia batzuei jakinaraztea, hala badagokio:

Kasu larri edo delitua kontsideratzen diren jokabideen kasuetan kanpoko instantziei jakinarazi beharko zaie; adibidez, Fiskaltzari.

10. Kasua amaitzea:

Kasua amaitutzat joko da zuzendaritzak Hezkuntza Ikuskaritari egoera modu egokian bideratu dela adierazten dionean.

5. Atal praktikoa:

Atal praktikoa, LGTB* izateagatik sufritu daitekeen eskola-jazarpena prebenitzeko programa baten diseinua planteatuko da. Lehenik, programari sarrera emango zaio, honen garrantzia azalduz. Bigarrenik, programa bera azalduko da (partaideak, iraupena, helburuak, saioak eta abar). Azkenik, programaren garrantziaren inguruko eztabaida azalduko da.

5.1. Sarrera:

Lan honen helburua LGTB* izateagatik sufritu daitekeen eskola-jazarpena prebenitzeko programa bat diseinatzea da. Izan ere, eskola-jazarpena eskola eremuan gertatzen den fenomeno larria da, honen maiztasunagatik eta larritasunagatik. Azken finean, eskola leku ez-segurua bilakatzen da LGTB* diren ikasleentzat.

Eskola jazarpena eskola-eremura bakarrik mugatzen ez den fenomeno da. Biktinek, erasotzaileek eta ikusleek bizitzako gainerako eremuetan ere ondorioak sufritzen dituzte (psikologikoak, fisikoak, jarreran...). Gaztaroan ekiditen ez diren ekintza LGTB*fobikoak, helduaroan larriagotu daitezke (eta delitu bilakatu), eskola-jazarpenaren erasotzaileek karrera deliktibo bat sortuz (Agustín, 2009; Avilés, 2003; Eusko Jaurlaritza, 2015; Generelo eta koolks., 2007; Mujika, 2011).

Horrelakorik gerta ez dadin, beharrezkoa da gazteak eskola-jazarpenaren inguruan sentsibilizatzea, eta LGTB* kolektiboari buruzko informazioa eskaintzea. Alde batetik, sexu-orientazio bakarra (heterosexualitatea) eta bi genero-identitate (gizona edo emakumea) egoteaz gain baliozko eta errespetatu beharreko beste batzuk badaudela ere irakastea da programa honekin lortu nahi dena. Beste aldetik, eskola-jazarpenaren kontrako jarrera sustatzea bilatzen da. Azken finean, LGTB* diren ikasleen kontrako indarkeria, diskriminazio edo intolerantzia kasuak ekidin behar dira.

Lan honetan planteatzen den programa LHko hirugarren mailako ikasleei zuzenduta dago. Eskola-jazarpenaren fenomeno gehienbat nerabezaroan ematen denez, adin horretara iritsi baino lehen programa bat burutzea onuragarria izan daiteke prebentzioaren ikuspuntutik. Era berean, adin honetan gazteek genero-identitatearen zentzu egonkorra daukate (Real, 2017) eta momentu horretan edo ondorengo urteetan haien orientazio-sexuala zalantzan jarri dezakete (Generelo eta Pichardo, 2005). Beraz,

programa hau, ez da bakarrik eskola-jazarpeneko egoerak prebenitzeko izango. Gazteek haien sexu-orientazioaren eta genero identitatearen inguruan izan ditzaketen zalantzak argitzeko lagungarria izango da. Haien generoa edo orientazio-sexuala zalantzan jartzen ez dituzten ikasleentzat ere baliagarria izango da, jarrera positibo eta ulerkorra izango dutelako haien ikaskideekiko.

Nahiz eta eskola-jazarpenaren inguruko programak existitzen diren, gehienak ez dira espezifikokoak, beste asko eskola-jazarpenera gertatu ondoren burutzeko prestatuta daude eta orokorrean nagusiagoak diren ikasleentzat zuzenduta daude. Horregatik, garrantzitsua da hurrei zuzendutako LGTB* izateagatik sufritu daitekeen eskola-jazarpenera prebenitzera zuzendutako programa espezifikoko bat planteatzea, horietako askok oraindik LGTB* izatea zer suposatzen duen ez dakiten arren. Beraz, genero-identitatea, sexu-orientazioa eta eskola-jazarpenera uztartzen dituen programa egokitu baten falta dagoelako sortu da programa hau.

Lan honetan proposatzen den programak bederatzi saio izango ditu, genero-identitateari, sexu-orientazioari eta eskola-jazarpenerari buruzkoak. Landuko diren edukiak adinerako egokituta egongo dira, bide didaktikoak eta entretenigarriak erabiliz. Saioak kurtsuan zehar banatuko dira eta bakoitzak ordu eta erdiko iraupena izango du.

5.2. Programa:

Atal honen barruan, programaren helburuak, partaideak, programa nork emango duen, iraupena, ezaugarriak eta programa bera osatzen duten saioak azalduko dira.

5.2.1. Helburuak:

Programaren helburu orokorrak ondorengo hauek dira:

1. Eskola-jazarpeneko jokabideak prebenitzea, ikasgelan nahiz ikasgelatik kanpo.
2. Eskola-jazarpenaren kontrako jarrera sustatzea.
3. Genero-identitate eta sexu-orientazioei buruzko informazioa eskaintzea.
4. LGTB* kolektiboaren inguruko mito eta estereotipoak ekiditea.
5. Sexu- eta genero-aniztasunarekiko jarrera tolerantzia sustatzea.

6. Egunerokotasunean sexu-orientazio eta genero-identitate aniztasuna normalizatzea.

5.2.2. Partaideak:

LHko hirugarren mailako ikasleak, 7-8 urte bitartekoak.

5.2.3. Programa emateko arduraduna:

Programa emateaz arduratuko da pertsonen portaera aztertzearekin lotutako formakuntza daukan pertsona bat, hala nola kriminologia edo psikologia ikasi duena. Eskola-jazarpenaren fenomenoari buruzko formakuntza espezifikoa duen edonork ere eraman ahalko luke esku-hartzea.

5.2.4. Iraupena eta programa non emango den:

Programa ordu eta erdiko 9 saiotan banatuko da, beraz, guztira 15 orduko iraupena izango du programak. Saioak ikasturtean zehar banatuta egongo dira, hiruhileko bakoitzean hiru saio burutuz. Programa klasean bertan egingo da, tutoreak erabakitako orduetan, ikasleen beharren arabera.

5.2.5. Programaren ezaugarriak:

Programa osatzen duten jardueraj didaktikoak, dinamikoak eta entrenigarriak izango dira, programa ikasle umeentzat zuzenduta dagoelako. Era berean, landuko diren edukiak haien adinerako egokituta daude, ikasleen arreta bereganatzeko eta ulermena errazteko.

Lehenik, arduradunak klasean giro lasaia eta konfiantzazkoa sortu behar du. Alde batetik, ikasgela elkarriketarako gune segurua izan dadin. Eta, beste aldetik, eskola-jazarpenaren kasurik balego berarengana jotzeko konfiantza sortzeko. Era berean, arduradunak hizkuntza diskriminatzailearen aurrean berehala jardun behar du.

Programa aurrera eramateko erabilitako estrategia eta teknika metodologiko batzuk ondorengo hauek dira:

- Bideoak.
- Role-playinga.
- Idei jarioa.
- Ipuinak.
- Jolasak.
- Etab.

5.2.6. Saioak:

Jarraian programa osatzen duten bederatzi saioak azalduko dira banan-banan. Saio bakoitzaren azalpenaren hasieran helburu orokorrak aipatuko dira eta ondoren saio horretan gauzatuko diren jarduera desberdinak azalduko dira (iraupena, helburuak, materialak eta azalpena).

a) LEHENENGO SAIOA: Sarrera: sexua vs. generoa.

Saioaren helburu orokorrak:

1. Giro lasaia eta parte-hartzailea sortzea, beren esperientziak eta iritziak partekatzeko eroso senti daitezten.
2. Sexu eta genero kontzeptuen arteko desberdintasunei buruzko ezagutza maila aztertzea.
3. Sexu- eta genero-aniztasunari buruzko sarrera egitea.

Lehenengo jarduera: 15 minutu.

Helburuak:

1. Klaseko giroa nolakoa den ezagutzea (eskola-jazarpenaren adierazleren bat detekta daiteke hasieratik).
2. Konfiantzazko giroa sortzea.
3. Parte-hartzaileek beren burua zein generorekin identifikatzen duten ezagutzea.
4. “Genero” kontzeptuarekiko duten pertzepzioa ezagutzea.

Materialak: materialik ez.

Azalpena:

1. Ikasle guztiak borobil batean kokatu behar dira (eserita edo altxaturik, klasearen ezaugarrien arabera).
2. Programaren arduradunak jolasa azalduko du, jolasaren helburua ikasle guztiak ezagutzea dela azalduz.
3. Lehenengoak (kasu honetan arduradunak) bere izena, adina, generoa eta bere denbora librean zer egitea gustatzen zaion kontatuko du (interesatzen zaiguna, ikasleek generoarekiko zein erreakzio eta erantzun dituzten aztertzea da gehienbat).
4. Bere eskuinean dagoen pertsonak lehenengoaren datuak eta bere datuak esan behar ditu. Hirugarrengoak bere datuak eta aurreko bi pertsonen datuak esan behar ditu. Eta horrela bata bestearen ondoren, denek esan arte beraien datuak.
5. Jolasa bukatzen da borobila osatzen duten pertsona guztiek hitz egiten dutenean.

Bigarren jarduera: 45 minutu.

Helburuak:

1. Sexua eta generoaren arteko desberdintasunari buruzko ezagutza aztertzea.
2. Sexu-orientazioari eta genero-identitateari buruzko oinarrizko kontzeptuei sarrera ematea.

Materialak:

- Kolore desberdinetako post-itak (2 kolore ezberdin).
- Arbela.
- Boligrafoak edo arkatzak.

Azalpena:

1. Kolore bakoitzeko post-it bana emango zaio ikasle bakoitzari.
2. Horietako post-it batean (guztiak kolore berdinean) haien ustetan pertsona baten sexu biologikoak zer esan nahi duen eta horren arabera pertsonak nola antolatzen diren azaltzea eskatuko zaie. Erantzuna idazteko 10 minutu emango zaie. Idatzi behar dutena ulertzen ez badute, egin beharrekoa beste adibide batekin azalduko zaie.
3. Post-itak batuko dira eta maiztasun handieneko erantzunak arbelean apuntatuko dira.

4. Momentu horretan programaren arduradunak sexu biologikoa zer den azalduko du eta dauden zalantzak argituko ditu.
5. Bigarrenengo post-itean lehenengoarekin egindako berdina egitea eskatuko zaie, baina sexu biologikoa izan beharrean, generoarekin. Modu berdinean, 10 minutu emango zaizkie ikasleei erantzuteko.
6. Post-itak batuko dira eta maiztasun handieneko erantzunak arbelean apuntatuko dira.
7. Momentu horretan, programaren arduradunak generoaren eta sexu-biologikoaren arteko ezberdintasunak azalduko ditu. Ondoren, ikasleek dituzten zalantzak argituko ditu.

Hirugarren jarduera: 30 minutu.

Helburuak:

1. Genero-identitatearen eta sexu-orientazioaren arteko desberdintasunak ulertzea.
2. Sexu-orientazio eta genero-identitate motak bereizten ikastea.

Materialak:

- I. eranskineko irudiak tamaina handian inprimatuta.
- Zeloak.

Azalpena:

1. Aurreko jarduerarekin jarraiki eta bigarrenengo jarduera burutu ahal izateko, programaren arduradunak genero-identitatea eta sexu-orientazioa azalduko ditu.
2. Arduradunak alde aurretik I. eranskinean eskuragarri dauden irudiak tamaina handian inprimatuta izango ditu. Horiek banaka erakutsiko dizkie ikasleei. Bat ateratzen duen bakoitzean, irudi horretan zer ikusten duten azaltzea eskatuko zaie ikasleei. Irudi batekin amaitzean arbelean kokatuko da zelo zati batekin eta azpian irudian agertzen den sexu-orientazio edo genero-identitatea zein den idatziko da. Irudietan ondorengo agertzen da:
 - a. Gizon homosexualak edo gayak.
 - b. Emakume homosexualak edo lesbianak.
 - c. Emakume bisexuala.
 - d. Gizon bisexuala.
 - e. Gizon asexuala.
 - f. Emakume asexuala.

- g. Neska zisgeneroa.
 - h. Neska transgeneroa.
 - i. Mutil zisgeneroa.
 - j. Mutil transgeneroa.
3. Ikasleen erantzunen ostean irudi bakoitza azalduko da, genero-identitatea eta orientazio-sexuala definituz eta horien mota bakoitza azalduz. Beraz, heterosexuala, homosexuala, bisexuala, asexuala, zisgeneroa eta transgeneroa izatea zer den azalduko da.

b) BIGARREN SAIOA: Orientazio sexuala.

Saioaren helburu orokorrak:

1. Sexu-orientazioen inguruan dauden estereotipoak eta aurreiritziak ezabatzea.
2. Dibertsitate sexuala normalizatzea.
3. LGTB* kolektiboak daukan presentzia txikiaren inguruan hausnarketa egitea.

Lehenengo jarduera: 10 minutu.

Helburuak:

1. Aurreko saioan landutakoa errepatatzea.

Materialak: Materialik ez.

Azalpena:

1. Aurreko saioan zer landu den galdetu ikasleei eta dituzten zalantzak argitu.
2. Hitz egitera animatzen ez badira, galderen bidez haien parte-hartzea sustatu.

Bigarren jarduera: 45 minutu.

Helburuak:

1. Dibertsitate sexuala normalizatzea.

Materialak:

- “Iris eta Lila” ipuina (Aldarte elkartearen web orrian dohainik eskuragarri).

Azalpena:

1. Iris eta Lila ipuina irakurriko du programaren arduradunak.
2. Irakurtzen amaitzerakoan istorioari buruzko galderak egingo dira, homosexualitatearen inguruko galdera zuzenak ekidinez eta protagonisten homosexualitatea normaltzat hartuz.
 - a. Nortzuk dira ipuinaren protagonistak?
 - b. Zein da printzearen nahia?
 - c. Zergatik Lilak ez du printzearekin ezkondu nahi? Zer erantzuten dio?
 - d. Nork salbatzen du Lila? Zergatik?
 - e. Nola lortzen dute azkenean Lila salbatzea?
 - f. Zer gertatzen da ipuinaren bukaeran?
3. Azkenik, ikasleei galdetuko zaie ipuinaren protagonistak homosexualak izateak istorioan eraginik izan duen. Normalean ipuinetan ze orientazio sexual agertu ohi diren ere galdetuko zaie (orokorrean heterosexualitatea baino ez agertu ohi delako). Honen helburua ikasleak LGTB* kolektiboak egunerokotasunean daukan presentzia txikiak konturatzea da.

Hirugarren jarduera: 35 minutu.

Helburuak:

1. Sexu-orientazioekin lotutako estereotipo eta aurreiritziak ezabatzea.
2. LGTB* pertsonetako jarrera positiboa sustatzea.

Materialak:

- II. eranskina.

Azalpena:

1. Sexu-orientazio desberdinen inguruko esaldiak irakurriko dira banan-banan. Horietatik 6 gezurra dira, eta beste 6ak, ordea, egia.
2. Esaldi bakoitza irakurri ondoren ikasleei egia edo gezurra den bozkatzea eskatuko zaie, beti ere kontuan izanik erdiak egia direla eta beste erdiak gezurra.
3. Klasearen gehiengoak bozkatzen duena hartuko da kontuan, eta, beraz, aurretik inprimatutako II. eranskineko taularen dagokion zutabean kokatuko da.
4. Esaldi guztiekin bukatzerakoan, ikasleei eskatuko zaie hauen erantzunak justifikatzea. Programaren arduradunak esaldi bakoitza egia edo gezurra den eta adieraziko du eta horren zergatia adieraziko du.

5. Saioarekin bukatzeko, eta hausnarketa gisa, ikasleei galdetuko zaie zerk harritu dituen gehien eta saio horretan ikasitakoaren zerekin geratzen diren.

d) HIRUGARREN SAIOA: Transexualitatea.

Saioaren helburu orokorrak:

1. Genero-identitatea eta horren dimentsio desberdinak ulertzea.
2. Transexualitatearen inguruko tabu, aurreiritzi eta estereotipoekin bukatzea.
3. Transexualitatea normalizatzea.
4. Genero dibertsitatearen aurrean jarrera aldatzea.

Lehenengo jarduera: 25 minutu (bi zatitan banatuko da jarduera).

(Padillak (2018) proposatutako jardueratik egokituta).

Helburuak:

1. Pertsona trans*ekiko enpatia sustatzea.
2. Trans*ei buruz dauden uste faltsuak desmitifikatzea.
3. Genero-identitateak eta -adierazpenak normalizatzea.

Materialak

1. Ikasleek eramango duten arropa. Irakasleek gurasoei aurretik jakinaraziko diete egun horretan normalean baino arropa gehiago eraman behar dutela programarako. Ahal den heinean arropan izena jartzea eskatuko zaie horiek ez galtzeko.
2. Paperezko dadoa (III. eranskina).

Azalpena:

1. Saioaren hasieran ekarri duten arropa guztia mordo batean jartzea eskatuko zaie.
2. III. eranskinean agertzen den dadoa erabiltzen, zeinaren aurpegietan trans* eta cis* jartzen duen, ausaz aukeratuko da ikasle bakoitzak egun horretan ze paper hartu beharko duen. Trans* jartzen duen aurpegia ateratzen zaien ikasleek haien generoari ez dagokien arroparekin jantzi beharko dute eta genero horri dagokion moduan jokatu beharko dute.
3. Jarraian saioa normaltasunez burutuko da, baina gainerako ikasleek pertsona horiei dadoan egokitu zaien generoaren arabera tratatu beharko dituzte.

4. Azkeneko jarduera bukatu ostean, haien generoari ez dagokion papera betetzean nola sentitu diren galdetuko zaie. Era berean, benetan transexualak diren pertsonak nola sentitu daitezkeen eta zein zailtasun izan ditzaketen haien egunerokotasunean galdetuko zaie.

Bigarren jarduera: 10 minutu.

Helburuak:

1. Aurreko saioan landutakoa birpasatzea.

Materialak: Materialik ez.

Azalpena:

1. Aurreko saioan zer landu den galdetu ikasleei eta dituzten zalantzak argitu.
2. Hitz egitera animatzen ez badira, galderen bidez haien parte-hartzea sustatu.

Hirugarren jarduera: 55 minutu.

Helburuak:

1. Genero bakoitzarekin lotutako ideiak identifikatzea.
2. Genero-adierazpena eta genero-identitatea bereiztea.
3. Generoaren eraikuntza soziala eta genero rola aztertzea.

Materialak:

- IV. eranskina.

Azalpena:

1. Jarduera honen barruan bi jolas desberdin daude, baina bien helburua berdina da.
2. Lehenik, ikasleek 4-5 pertsonako taldeetan elkartzeko dira. Beraien artean hainbat galdera desberdin egitea eskatuko zaie (izena, zer egiten duten arratsaldetan, zeintzuk diren haien zaletasunak, zer izan nahi duten nagusiak direnean...). Beti ere, ikasleek dadoak egokitutako generoaren arabera erantzun beharko dute. Bitartean programaren arduradunak taldeetatik pasatuko da haien elkarrizketak entzunez. Generoaren eraikuntza soziala eta genero rola azaltzeko ideiak apuntatuko ditu (20 minutu).
3. Bigarrenik, mimikara jolastuko dute. IV. eranskinean agertzen diren txartelak erabiliko dira jolaserako. Gogoraziko zaie dadoak egokitutako generoaren arabera irudikatu behar dutela tokatzen zaien egoera (20 minutu).

4. Programaren arduraduna saiatuko da mimikan parte har dezaten bai neskek eta bai mutilek, dagoen cis* nahiz trans* izatea egokitu zaienei.
5. Bigarren jolasarekin bukatu ondoren, trans* izatea tokatu zaien ikasleei galdetuko zaie zergatik jokatu duten jokatu duten moduan. Azkenik, generoaren eraikuntza soziala eta genero rola azalduko zaizkie, aurreko jardueretan ikusitako egoerataz baliatuz.
6. Gogoratu behar da, jarduera honen ostean, lehenengo jardueraren bigarren zatia egin behar dela.

e) LAUGARREN SAIOA: LGTB komunitatearekin loturiko estereotipoak.*

Saioaren helburu orokorrak:

1. LGTB* kolektiboen inguruan existitzen diren aurreiritziak eta estereotipoak identifikatu eta desmitifikatu.
2. Maskulinitate eta feminitatearen adierazpena landu eta horren inguruko aurreiritziak desmitifikatu.

Lehenengo jarduera: 10 minutu.

Helburuak:

1. Aurreko saioan landutakoa errepasatzea.

Materialak: materialik ez.

Azalpena:

1. Aurreko saioan zer landu den galdetu ikasleei eta dituzten zalantzak argitu.
2. Hitz egitera animatzen ez badira, galderen bidez haien parte-hartzea sustatu.

Bigarren jarduera: geratzen den saioaren denbora guztia.

(Villabak (2018) proposatutako jarduera da).

Helburuak:

1. Jendartean ikusgai jar daitezkeen hainbat maskulinitate eta feminitate mota adieraztea.
2. Transexualitatearekin eta homosexualitatearekin loturiko eta heterosexismoaren ondoriozko aurreiritzi eta estereotipoak desmitifikatzea.

3. Genero identitatea eta sexu-orientazioa edozein dela ere, familia bat sortzeko aukera bistaratzea.

Materialak:

- Paper jarraitua.
- Errotulagailuak.
- Arbela.

Azalpena:

1. Hiru eta bost talde bitartean sortzen dira. Nesken 2 talde, mutilen 2 talde eta talde misto bat (genero ikuspegia behatzeko). Talde bakoitzari emango zaizkio paper handi bat pertsona baten siluetarekin eta koloretako errotuladoreak. Taldeek tokatu zaien silueta margotu beharko dute, kontsignak jarraituz. Bi mutil-mota, bi neska-mota eta pertsona agenero bat (talde mistoak) sortuko dituzte. Pertsona ageneroari ez diote sexu-identitaterik eta sexu-ezaugarriak emango; hau da, ez diote genitalitate bakarra emango, eta ez dute erabakiko neska edo mutila den.
2. Ikasleei esango zaie tokatu zaien pertsonaia jaiotzeko dela eta “gorputza” eman beharko dietela:
 - a. Mutil-taldeek gizonen ezaugarri fisikoak margotu behar dizkiote (aurpegia, ilea...). Hurrengo genitaltasuna marraztea da. Beste taldeek berdina egin behar dute baina neska bat marraztuz. Bosgarren taldeak, pertsona androgino bat marraztu behar du, genitalitate eta estetika anbigua marraztuz.
 - b. Hurrengo maskulinitatearen eta feminitatearen kontzeptua genero kontsignetatik lantzea da. Lehenik, estetika adierazgarria margotu behar diote. Gero, zaletasunen inguruan galdetu behar da: zer gustatzen zaio egitea? Zer zaletasun ditu? Zer izan nahi du nagusitzerakoan? Etab.
 - c. Ondoren, bihotzaren parean geziak ateratzen zaizkiola margoztuko dugu eta horietan beren emozioekin identifikatzen diren alderdiak jarriko dira: negar egiten du? Enpatikoa da? Bere sentimenduak adieraztea gustatzen zaio? Etab.
 - d. Jarraian, haren besoetara pasatzen gara eta ezaugarriak marraztuko edo idatziko dira: beldurtia, indartsua, ausarta, etab.
 - e. Horren ostean, desioa kokatuko dute haien ustetan desioa kokatzen den gorputzaren atalean eta beren pertsonaiari galdetuko diote nor gustatzen zaio: mutilak, neskak, biak edo inor ez.

- f. Gero, hanken parean (ekintza sinbolizatzen dutenak) ondorengoa adieraziko da: nola ikusten dute pertsona hori nagusitan? Bakarrik edo beste pertsona batekin bizitzea gustatuko litzaioke? Etxean zer lan egiten du (sukaldata, gidatu, familia zaindu, garbitu...)? Etab.
 - g. Azkenik, pertsonaia bakoitzari izen bat emango zaio eta klasearen aurrean aurkeztuko dira.
3. Pertsonaiak aurkeztu ahala, zalantzak argitu eta topikoak desmuntatuko dira. Topiko sexista eta homofoboak atera ohi dira, genero-rolak sexu-orientazioarekin nahastuz. Ohikoa da pentsatzea oso pertsonaia maskulinoa ezin dela gay izan edo emakume oso femeninoa ezin dela lesbiana izan. Gogoeta horrek erraztu egiten du heterosexualitatearen presuntzioa azaltzea. Oso interesgarria da ikustea figura androginoa sortu duen taldea gai dela zisheteronormatitatea urratzeko. Libreago ikusten dute zer orientazio duen esaterako orduan, eta, ziurrenik, gehiago hautsiko dituzte genero-rolak.
 4. Zein pertsonaiarekin identifikatzen diren gehiago esateko animatzen zaie.

f) BOSTGARREN SAIOA: LGTB izatea egunerokotasunean.*

Saioaren helburu orokorrak:

1. Historiako pertsonaia LGTB* desberdinak ezagutzea.
2. LGTB* diren erreferentziazko pertsonak ezagutzea.

Lehenengo jarduera: 60 minutu.

Helburuak:

1. LGTB* komunitateari ikusgarritasuna ematea.
2. Historian parte hartu duten LGTB* pertsonak ezagutaraztea.
3. LGTB* diren pertsonak erreferentziakotzat jotzea.

Materialak:

- Kartoi meheak.
- Errotulagailuak edo margoak.
- V. eranskina.
- Itsasgarria.

Azalpena:

1. Saioaren aurretik (irakasleek aldeztu aurretik jakinarazita denbora nahikoarekin) V. eranskinean agertzen diren pertsonaia LGTB* bat aukeratuko dute ikasleek binaka eta pertsona horri buruz informazioa bilatu beharko dute etxean egun horretan erabili ahal izateko:
 - a. Izena.
 - b. Jaiotze data.
 - c. Ogibidea.
 - d. Zergatik da ospetsua.
 - e. Zein da bere orientazio-sexuala eta genero-identitatea (aurreko saioetan landutakoa birpasatzeko baliagarria dena).
 - f. Ezkonduta dagoen eta seme-alabarik duen ala ez.
2. Lortutako informazioarekin kartulina batean informazio guztia idatziko dute eta argazki bat itsatsiko dute. Ondoren klasearen aurrean aurkezpen txiki bat egingo dute.
3. Azkenik, klasean edo ikastetxean zehar haien kartelak eskegiko dituzte, LGTB* erreferenteak ikusgarriak izan daitezten.

Bigarren jarduera: 30 minutu.

Helburuak:

1. Adin bereko gazte transexual baten istorioa ezagutzea.
2. Haurtzaroan transexualitatea normalizatzea.
3. Transexualitatearekin lotutako gai tabuak lantzea.

Materialak:

- Cloe Aicarten Instagrameko bideoa (Aicart, 2020).
- Arbela digitala edo proiektorea.

Azalpena:

1. 5 minutu baino gutxiagoko iraupena duen bideoa ikusiko da.
2. Ondoren, hurrengo galdera hauek egingo dira:
 - a. Nola jakin zuen Cloek transgeneroa zela? Nola sentitzen zen?
 - b. Zergatik egiten zuen terapia Cloek?
 - c. Nola hartzen du Cloeren familiak bere transexualitatea?
 - d. Zergatik uste duzue Cloe ikastetxez aldatzen dela?

- e. NANaren aldaketari buruz hitz egiten duenean, zerri egiten dio erreferentzia?
 - f. Zer esan nahi du hormonatzearekin?
 - g. Kirurgia egin nahi du? Zer suposatzen du horrek? Derrigorrezkoa da trans* kontsideratu ahal izateko?
 - h. Nola erreakzionatuko zenukete zuen lagun batek trans*a dela esango balizue?
3. Galderak egiten diren heinean, transexualitatearen inguruko kontzeptu desberdinak azalduko dira (hormonatzea, sexua berresleitzeko ebakuntza, eta abar).

g) SEIGARREN SAIOA: Eskola-jazarpena.

Saioaren helburu orokorrak:

1. Eskola-jazarpeneraren inguruko lehen hurbilketa egitea.
2. Klasean giro ona sortzeko arauak sortzea, zeintzuek arbuiatzen baitituzte eskola-jazarpena kontsideratzen diren jokabideak.
3. Eskola-jazarpenera motak eta horien ondorioak ezagutzea.
4. Eskola-jazarpeneraren aurrean ikasleen erantzuna aztertzea.

Lehenengo jarduera: 35 minutu.

(Crespo, Rodríguez eta Luengok (2017) proposatutako jarduera batean oinarrituta).

Helburuak:

1. Klasean errespetatu beharreko eskubideak eta arauak lantzen parte hartzea.
2. Jendartean bizitzeko jokabide-arauak errespetatzearen garrantzia ulertzea.
3. Sentimenduak, beharrak eta eskubideak adieraztea, besteak errespetatzearekin batera.
4. Ikaskideei eta irakasleei errespetuz hitz egiten ikastea.
5. Ezizena erabili gabe besteengana izenez joateak duen garrantzia ikastea.

Materialak:

- Eskubideen zerrenda.
- Folioak.
- Arbela.
- Boligrafoak.
- Kartoi mehea.

Azalpena:

1. Ikasleei eskubideen zerrenda hau azaltzen zaie arbelean idatzita:
 - a. Nire izenez deitua izateko eskubidea.
 - b. Iraindua ez izateko eskubidea.
 - c. Jipoitua ez izateko eskubidea.
 - d. Besteek nire gauzak ez ezkutatzeko eskubidea.
 - e. Besteek nitaz barre ez egiteko eskubidea.
 - f. Irakasle edo ikaskide bati laguntza eskatzeko eskubidea.
 - g. Ni neu izateko eskubidea.
 - h. Sentitzen dudan generoarekin identifikatzeko eskubidea.
 - i. Nire genero-identitatea errespetatua izateko eskubidea.
 - j. Nire sexu-orientazioa errespetatua izateko eskubidea.
2. Eskubideak argi dituztenean, 4-5 ikasleko taldeetan kokatuko dira eta eskubide horiek errespetatu daitezkeen bost arau idatziko ditu talde bakoitzak folio batean.
3. Behin talde bakoitzak bere arauak erabaki dituztenean komunean jarriko dira eta klasean errespetatu beharreko azken 10 arau osatutako zerrenda bat sortuko dute guztien artean. Arau horiek kartoi mehe batean idatziko dira eta klasean zintzilikatuko dira, horiek gogorarazteko.

Bigarren jarduera: 20 minutu.

Helburuak:

1. Jazarpen motak desberdintzen ikastea.
2. Eskola-jazarpena detektatzen ikastea.
3. Betidanik normaltzat hartu dituzten hainbat jokabideren aurrean arbuiozko jarrera garatzea.

Materialak:

- Arbela.

Azalpena:

1. Aurreko jarduerari jarraiki, eskola-jazarpenzat zein jokabide har daitezkeen galdetzen zaie ikasleei.

2. Ikasleek esaten dituzten ideia guztiak arbelean apuntatu, eskola-jazarpen mota bakoitzaren arabera antolatuz (indarkeria fisikoa, indarkeria soziala, ziberbullyinga...).

Hirugarren jarduera: 35 minutu.

Helburuak:

1. Jazarpenezko egoerak detektatzen ikastea.
2. Eskola-jazarpenaren aurkako jarrera sustatzea.
3. Eskola-jazarpenaren ondorioak ezagutzea.

Materialak:

- “Cobardes” film laburra (Vagalume, 2017).
- Arbela.

Azalpena:

1. Bost minutu irauten dituen film laburra ikusiko da.
2. Eskola-jazarpenaren inguruko galderak egingo dira:
 - a. Zein eskola-jazarpena mota agertzen dira?
 - b. Nola uste duzue sentitzen dela biktima?
 - c. Zergatik uste duzue eskola-jazarpenaren biktima dela?
 - d. Norbaitek laguntzen dio? Zergatik?
 - e. Zein ondorio ditu jazarpenak biktimarentzat?
 - f. Zuek biktimak izango bazinete nola sentituko zinatekete?
 - g. Ikusleak bazinete zer egingo zenukete?
3. Galdera guztiak erantzun ondoren, eskola-jazarpenak eragin ditzakeen ondorioen zerrenda bat idatziko du arbelean programaren arduradunak, ikasleen erantzunak kontuan hartuta.

h) ZAZPIGARREN SAIOA: Eskola-jazarpena.

Saioaren helburu orokorra:

1. Talde kohesioa sustatzea.
2. Bizikidetzeta-giro ona sustatzea.
3. Eskola-jazarpenaren aurrean ikasleek nola jokatuko luketen aztertzea.

4. Eskola-jazarpenaren aurrean zer egin behar den ikastea.

Lehenengo jarduera: 10 minutu.

Helburuak:

1. Aurreko saioan landutakoa errepasatzea.

Materialak: Materialik ez.

Azalpena:

1. Aurreko saioan zer landu den galdetu ikasleei eta dituzten zalantzak argitu.
2. Hitz egitera animatzen ez badira, galderen bidez haien parte-hartzea sustatu.

Bigarren jarduera: 40 minutu.

Helburuak:

1. Sozializazioa bultzatzea, gelakideen elkar ezagutza eta elkarrekintza lagunkoia eta positiboa sustatzea.
2. Talde-kohesioa eta bizikidetzatza-giro ona sustatzea.

Materialak:

- Aulkiak.

Azalpena:

1. Aulkiz osatutako borobil bat osatzen da, beti ikasle kopurua baino aulki bat gutxiago erabiltzen da.
2. Denek, batek izan ezik, aulkietan eseri behar dute, eta azken hori zirkuluaren erdian geratu behar da.
3. Aulki gabe geratu den horrek eserita dagoen pertsona bat aukeratu behar du eta bere aurrean belauniko jarri behar da. Pertsona horri buruzko gauza positibo bat esan behar du “Zutaz maitemintzen naiz.... zarelako” esaldia erabilia. Adibidez:
 - a. Zutaz maitemintzen naiz jatorra zarelako.
 - b. Zutaz maitemintzen naiz beti alai zaudelako.
 - c. Zutaz maitemintzen naiz lagun ona zarelako.
4. Pertsona hori eta esaldi horrekin identifikatzen diren beste ikasle guztiak altxatu behar dira eta aulkiz aldatuko dira. Beti ere, pertsona bat aulkirik gabe geratuko da. Aulkirik

gabe geratzen den pertsona beste ikasle baten aurrean jarri eta berdina egin beharko du.

5. Jolasa bukatuko da ikasle guztiei behin gutxienez zerbait positiboa esan dietenean edo jarduerarako denbora amaitzen ari denean (25 minutu dituzte jolasteko). Programaren arduradunak ikasleak edozein ikaskideri zerbait ona esatera animatuko ditu, nahiz eta lagun onak ez diren.
6. Jolasa bukatutakoan hainbat galdera luzatuko dira. Galderak egiteko gutxienez 15 minutu erabiliko dira.
 - a. Nola sentitzen zarete zerbait atsegina esaten dizuetenean?
 - b. Nola sentituko zinatekete, aldiz, zeozer desatsegina esango balizute?
 - c. Beraz, zergatik batzuetan gauza desatseginak esaten dizkiozue elkarri?

Hirugarren jarduera: 40 minutu.

Helburuak:

1. Eskola-jazarpen egoera baten aurrean ikasleek nola jokatuko luketen aztertzea.
2. Eskola-jazarpen egoera baten aurrean isiltasunak daukan garrantzia azpimarratzea.
3. Eskola-jazarpena gaitzesteko jarrera sustatzea.

Materialak:

- "Isildu" hitza daukan kartel bat.
- "Salatu" hitza daukan kartel bat.

Azalpena:

1. Klasea bi zatitan banatuko da. Alde batean "isildu" kartela kokatuko da eta beste aldean "salatu" kartela.
2. Arduradunak eskolan gertatzen diren egoera batzuen inguruko esaldiak esango ditu eta egoera horren aurrean zer egingo luketen galdetuko zaie ikasleei. Hau da, isilduko liratekeen edo egoera salatuko luketen esan beharko dute ikasleek. Isiltzea erabakiko balute, klasearen alde horretan kokatu behar dira; aldiz, egoera salatzea erabakiko balute, beste aldean kokatu beharko dira.
 - a. Ikaskide batek etxerako lanak eginda ekarri ez dituenean.
 - b. Norbaiti "gafotas" esaten diotenean betaurrekoak daramatzalako.
 - c. Jolastokian norbait bultzatzen dutenean.

- d. Heziketa fisikoko klasean inork ez duenean beste ikasle batekin jarri nahi, "nenaza" bat dela esaten dutelako.
 - e. Ikasle bat arbelera ateratzen denean eta besteak baxuan gaizki hitz egiten hasten direnean berari buruz.
 - f. Norbaitek "afeminatua" den haur baten hitz egiteko modua imitatzen duenean.
 - g. Mutil bati bere panpina ezkututzen diotenean hori gayena delako.
 - h. Ume bati barre egiten diotenean azazkalak margotuta daramatzalako.
 - i. Ez diotenean neska bati futboleko jolasten uzten eta marimatxo deitzen diotenean.
 - j. Ikasle bat iraintzen dutenean bi ama dituelako.
 - k. Gelakideek whatsapppean talde bat dutenean eta gelakide bat sartu nahi ez dutenean bisexuala delako.
3. Ikasle guztiak alde batean edo bestean kokatzen direnean, alde bakoitzeko ikasle bati eskatuko zaio azaltzea zergatik kokatu den alde horretan.
 4. Jardueraren bukaeran azalduko da zein egoera sartzen diren eskola-jazarpenaren barruan eta egoera horien aurrean egin behar dena salatzea dela, sufritzen ari den pertsona bat lagundu dezakegulako. Egoera horren aurrean isiltzen bagara, horren konplize bilakatzen garela argitu behar da.

i) ZORTZIGARREN SAIOA: Ziberbullyinga.

Saioaren helburu orokorra:

1. Ziberbullyingaren berezitasunak aztertu.
2. Ziberbullyingaren inguruko aurreiritziak desmitifikatu.
3. Ziberbullyingaren kontrako jarrera sustatu.
4. Ziberbullyingaren aurrean nola jarduteko gomendioak eman.

Lehenengo jarduera: 10 minutu.

Helburuak:

1. Aurreko saioan landutakoa errepatatzea.

Materialak: Materialik ez.

Azalpena:

1. Aurreko saioan zer landu den galdetu ikasleei eta dituzten zalantzak argitu.
2. Hitz egitera animatzen ez badira, galderen bidez haien parte-hartzea sustatu.

Bigarren jarduera: 40 minutu.

Helburuak:

1. Ziberbullyinga zer den ezagutzea.
2. Ikasleek ziberbullyingaren inguruan daukaten pertzepzioa ezagutzea.

Materialak:

- Gometzak.
- VI. eranskinean agertzen den semaforoaren 8 kopia.

Azalpena:

1. Ikasleek semaforoaren kolore baten gainean gometz bat jarri beharko dute, ziberbullyingari buruzko esaldiarekin duten adostasun-mailaren arabera. Kolore gorriak erabat desados daudela esan nahi du, horiek ez daudela ez ados ez desados eta berdeak erabat ados daudela esan nahi du.
2. Erabiliko diren esaldiak ondorengo hauek dira:
 - a. Ziberbullyinga delitu bat da.
 - b. Norbaitek molestatzen badizu onena pertsona hori blokeatzea da.
 - c. Norbaitek irainik esaten badizu, onena erantzutea da.
 - d. Ziberbullyingak biktimarentzat nahiz erasotzailearentzat ondorioak ditu.
 - e. Beste norbait izango bazina bezala jokatzeko ez da ziberbullyingtzat hartzen.
 - f. Ikaskide bat klaseko whatsapp taldean ez sartzea ondo dago ikasle hori homosexuala denean.
 - g. Etiketa iraingarriak txantxa besterik ez dira.
 - h. Pertsona baten bideo barregarri bat pasatzea ez da nire errua, grabatu duenak du errua.
3. Esaldi guztiekin bukatzean, ikasleei haien iritzia eskatuko zaie. Ondoren, programaren arduradunak, ziberbullyinga kontsideratzen diren portaerak adieraziko ditu.

Hirugarren jarduera: 40 minutu.

Helburuak:

1. Ziberbullyinaren aurrean ikasleek nola jokatuko luketen ezagutzea.
2. Ziberbullyigaren aurako jokaera sustatzea.

Materialak:

- VII. eranskina.

Azalpena:

1. Ziberbullyingarekin zerikusia daukaten hainbat argazki erakutsiko dira.
2. Ikasleei irudian zer gertatzen ari den galdetuko zaie. Era berean, haien lagun bati egoera hori gertatzen bazaio nola lagunduko lioketen galdetuko zaie. Azkenik, egoera horiek ekiditeko zer egitea beharrezkoa den galdetuko zaie.
3. Jardueraren bukaeran argi utziko da ziberbullyingak daukan garrantzia eta hori ekidin behar dela. Beraz, haien lagun bat horrelako egoera batean baldin badago, egoera salatu behar dutela adieraziko zaie, haien lagunak laguntza behar duelako.

i) AZKEN SAIOA: Aurreko saio guztien errepassoa.

Saioaren helburu orokorra:

1. Aurreko saio guztien errepassoa egin eta geratzen diren zalantza guztiak argitu.
2. Programaren inguruko ebaluaketa egitea.

Lehenengo jarduera: Saio osoa.

Helburuak:

1. Aurreko saio guztien errepassoa egin eta geratzen diren zalantza guztiak argitu.
2. Programan zehar landutakoa ikasi den ebaluatzea.

Materialak:

- VIII. eranskina.
- Dado bat.
- Fitxak.

Azalpena:

1. Ikasleak 4-5 talde osatuko dituzte.
2. “OCA” jolasaren antzera jolasten da, baina lauki desberdinetan galdera mota desberdinak egingo dira. Galdera guztiek aurreko saioetan landutakoaren ingurukoak dira, errepasso moduan erabiltzeko eta ikasleek zenbat ikasi duten jakin ahal izateko.
3. Bost galdera mota desberdin desberdin ditzakegu. Lauki batean erortzen direnean lauki mota horretako txartel bat hartu behar dute eta dagokion galderari erantzun behar diote:
 - a. “?” laukiak: Test motako galderak dira, a edo b aukerak dituztenak.
 - b. “*” laukiak: I. eranskineko irudi berdinak agertzen dira, eta horietan zein orientazio-sexual edo genero-identitate agertzen den azaldu behar dute.
 - c. “Nor da?” laukiak: V. eranskinean agertzen diren pertsonen egiten die erreferentzia. Pertsonaia horren inguruko informazioa irakurriko dute (klasean aurreko saio batean egindako kartelak edukiko dituztenez, horiek erabiliko dituzte).
 - d. “Esan 3” laukiak: izenak esaten duen bezala, txartelean agertzen den gaiaren inguruan 3 gauza esan behar dituzte (adibidez, eskola-jazarpenaren 3 ondorio).
 - e. “Hiztegia” laukiak: txartelean tokatzen den hitzaren definizioa esan behar da.
4. Buru-hezur bat agertzen den laukiek txanda galtzen dela adierazten dute.
5. Ahate bat agertzen den laukietan erortzerakoan, hurrengo ahatera salto egin behar da.
6. Partida honen helburua ez da amaierara iristea eta irabazle bat egotea, baizik eta ikasitakoa errepassatu, beraz, saioaren denbora bukatzean partida bukatutzat emango da.

5.3. Eztabaida:

Lan honetan proposatutako programarekin lortzen diren emaitzak bi norabidetan doaz, haien artean lotuta daudenak.

Alde batetik, programa honen bitartez genero-identitate eta sexu-orientazio aniztasunaren onarpena eta tolerantzia sustatuko da. Era berean, ikasleen artean LGTB* kolektiboaren inguruko aurreiritzi eta estereotipoak murriztuko dira. Modu horretan,

haurrek sexu-orientazioa eta genero-identitatearen garapena erraztea eta eskola giro ulerkor eta seguru bat izatea bermatuko da.

Beste aldetik, etorkizunean gerta litezkeen eskola-jazarpenaren kasuak prebenitzen dira, ikasgelan nahiz ikasgelatik kanpo, indarkeriaren kontrako jarrera sustatzen delako programaren bitartez.

LGTB* izateak dakarren eskola-jazarpena prebenitzeak LGTB* diren ikasleen bizi kalitatea hobetuko luke. Alde batetik, haurrek haien genero-identitatea eta sexu-orientazioa askatasunez garatzeko aukera eskaintzen du. Izan ere, lan honetan aurkezten den programak ikaskideen artean jarrera positiboa eta ulerkorra izatea bultzatzen du. Beste aldetik, programak eskola-jazarpenarekiko zero tolerantziako jarrera sustatzen du. Horregatik, LGTB* diren ikasleen bizitzaren gainerako eremuak (eskola-errendimendua, osasun mentala, osotasun fisikoa eta abar) ez liratezke kaltetuak izango, eskola-jazarpena gertatzen den kasuen antzera.

Programaren eraginkortasuna epe luzean hautemango litzateke, ez epe laburrean bakarrik. Emaitzak epe luzean espero dira eskola jazarpenaren fenomenoaren 12-13 urterekin hasten delako. Beraz, eta programa 7-8 urteko ikasleekin lantzen denez, etorkizunean posibleak liratekeen eskola-jazarpen egoerak prebenitzea lortuko da.

Mota honetako programak aplikatzeko alderdi politikoen babes beharrezkoa da. Alderdi politiko batzuk guraso-pinaren aldekoak dira, Murtzian gertatzen den bezala. Honek gurasoei eskubidea ematen die LGTB* komunitatearen inguruko edukiei betoa jartzeko. Beto honek programa baten eraginkortasunaren kontra egiten dezake. Kontuan izan behar da mota honetako programak eraginkorrak direla, betiere ikasle guztiekin lantzen direnean. LGTB* izateagatik sufritu daitezkeen eskola-jazarpen kasuak gerta litezke, ikasle batzuek LGTB* kolektiboarekiko intoleranteak direnean, nahiz eta gainerako ikasleak tolerantak izan. Beraz, alderdi politikoei LGTB* kolektiboaren aldeko jarrera izan behar dute, pertsona hauen eskubideak babesteko eta bizitzaren eremu desberdinetan babes hori errealitate bihurtzeko; hau da, kolektiboaren babes legetatik praktikara eraman behar da.

Lan honek LGTB* komunitateari buruz hausnartzeko aukera ematen du. Esan bezala, beharrezkoa da ikasle gazteenen hezkuntzan aldaketa bat egotea, oraindik zisheterosexualitate normatiboa nagusi delako eta hortik ateratzen diren ikasleak diskriminatzen direlako, nahiz eta legedia pertsona hauek babesten saiatzen den.

Ikastetxeek LGTB* fobiaren aurka egin behar dute. Horretarako irakasgai desberdinetan LGTB* komunitatearen errealitatea zeharka aztertu daiteke. Adibidez biologia klasean sexu eta generoaren arteko ezberdintasunak landuz edo historia klasean historian zehar garrantzitsuak izan diren LGTB* pertsonaien inguruan lan bat egin daiteke. Era berean, sexualitateari buruzko tailerretan garrantzitsua da harreman heterosexualei buruz bakarrik ez hitz egitea eta gainerako harreman sexual eta generoak kontuan izatea.

Laburbiltzeko, eskola LGTB* kolektiboarentzako eremu segurua bilakatzea garrantzitsua da eta horretarako baliabide desberdinak beharrezkoak dira, horien artean lan honetan proposatzen den programa. Espainiar Konstituzioan aipatzen diren eskubideak babestu behar diren heinean, ikasleak LGTB* kolektiboaren inguruko edukiak jasotzeko aukera izan behar dute, haien gurasoen iritziaren kontra bada ere.

Hau guztia kontuan hartuta, eta gaur egun ez dagoenez LHn LGTB* fobia lantzeko esku-hartzerik, lan honetan esku-hartze bat proposatu da. Esku-hartze honek literaturan dagoen hutsune bat beteko luke, eta garrantzitsua izango da esku-hartze hau martxan jartzea.

6. Bibliografia:

- 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodearena. Estatuko Aldizkari Ofiziala (BOE), 281. zk.
- 13/2005 Legea, uztailaren 1ekoa, ezkontzeko eskubidearen alorrean Kode Zibila aldatzen duena. Estatuko Aldizkari Ofiziala (BOE), 157. zk., 23632-23634.
- 16/1970 Legea, abuztuaren 4koa, arriskugarritasunari eta jendarte-birgaitzeari buruzkoa. Estatuko Aldizkari Ofiziala (BOE), 187. zk., 12551-2557.
- 1933ko abuztuaren 5eko Legea, Alfer eta Maleanteei buruzkoa. Estatuko Aldizkari Ofiziala (BOE), 217. zk. <https://www.boe.es/datos/pdfs/BOE/1933/217/A00874-00877.pdf> webgunetik berreskuratua.
- 1933ko 5eko Legea, Alfer eta Maleanteei buruzkoa. Estatuko Aldizkari Ofiziala (BOE), 217. zk. <https://www.boe.es/datos/pdfs/BOE/1933/217/A00874-00877.pdf> webgunetik berreskuratua.
- 1954ko uztailaren 15eko Legea, 1933ko abuztuaren 4ko Alfer eta Maleanteei buruzko Legearen 2. eta 6. artikulua aldatzen dituena. Estatuko Aldizkari Ofiziala (BOE), 198. zk., 4862-4862.
- 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa, Estatuko Aldizkari Ofiziala, 106. zk., 17158-17207.
- 5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, Adingabeen Erantzukizun Penal arautu duena, Estatuko Aldizkari Ofiziala, 11 zk..
- Agustín, S. (2009). *Diversidad sexual en las aulas. Evitar el bullying o acoso homofóbico*. Badajoz: Fundación Triángulo.
- Aicart, C. [@cloe_aicart]. (2020ko apirilaren 9a). Freeda's Crush on: Cloe Aicart. [Bideoa]. Cloe Aicarten bideoa: <https://www.instagram.com/p/B-wpVwii2WF/> webgunetik berreskuratua.
- Aldarte (2020). *Aldarte: Centro de atención a gays, lesbianas y transexuales de Bizkaia*. <http://www.aldarte.org/es/> webgunetik berreskuratua.
- Alises, C. (2019). *Guía de Delitos de Odio LGTBI*. Andalucía: Consejería de Igualdad y Políticas Sociales de la Junta de Andalucía.

- Álvarez, R. J. (2015eko abenduaren 30a). Acosaron a Alan desde los 14 años, su suicidio es un crimen social. *El Mundo*.
<https://www.elmundo.es/sociedad/2015/12/30/5682ca5322601d8c0f8b4632.html>
 webgunetik berreskuratua.
- American Psychiatric Association (APA). (2008). *Answers to Your Questions for a better understanding of sexual orientation and homosexuality*. Washington, DC: American Psychiatric Publishing.
- American Psychiatric Association (APA). (2014). *Diagnostic and statistical manual of mental disorders, Fifth Edition (DSM-V)*. Washington, DC: American Psychiatric Publishing.
- American Psychological Association (APA). (2015). *Key Terms and Concepts in Understanding Gender Diversity and Sexual Orientation Among Students*. Washington, DC: American Psychological Association.
- Ararteko (2006). *Bizikidetzeta eta gatazkak ikastetxeetan. EAeko DBHko ikastetxetan Arartekoak egindako ikerketa*. Ararteko.
- Ávila, J. A. (2013). *El acoso escolar en Educación Primaria en la provincia de Huelva*. (Tesis doctoral) Universidad de Huelva, España.
<http://rabida.uhu.es/dspace/handle/10272/8128> webgunetik eskuratua.
- Avilés, J. M. (1999). *Cuestionario sobre intimidación y maltrato entre iguales*. Valladolid: Autorea.
- Avilés, J. M. (2003). *Bullying: Intimidación y Maltrato entre el Alumnado*. Bilbo: STEE-EILAS.
- Avilés, J. M., eta Monjas, I. (2005). Estudio de incidencia de la intimidación y el maltrato entre iguales en la Educación Secundaria Obligatoria mediante el cuestionario CIMEI (Aviles, 1999). *Anales de psicología*, 21(1), 27-41.
- Chrysallis (2020). *Chrysallis: Asociación de Familias de Menores Trans**.
<https://chrysallis.org.es/> webgunetik berreskuratua.
- Crespo, A., Rodríguez, A., eta Luengo, J. A. (2017). *Recursos para la elaboración de programas contra el acoso escolar en los centros educativos*. Madrid: Consejería de Educación, Juventud y Deporte.

- Defensor del Pueblo – UNICEF (2000). *Informe sobre Violencia Escolar: El maltrato entre Iguales en la Educación Secundaria Obligatoria*. Madrid: Publicaciones de la Oficina del Defensor del Pueblo.
- Defensor del Pueblo (2007). *Violencia escolar: el maltrato entre iguales en la educación secundaria obligatoria 1999-2006*. Madrid: Defensor del Pueblo.
- El País. (2020ko urtarrilaren 21a). ¿Qué es lo que Vox llama “pin parental”? *El País*. https://elpais.com/sociedad/2020/01/17/actualidad/1579258136_624639.html webgunetik berreskuratua.
- Errespetuz (2017). *Errespetuz – Asociación Vasca para la defensa y la integración de personas transexuales*. <http://www.errespetuz.org/> webgunetik berreskuratua.
- Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna, 1966ko abenduak 16koa, Nazio Batuen Batzar Nagusia, 2200 A (XXI) erresoluzioa.
- Espainiako Konstituzioa, 1978eko abenduaren 29koa. Estatuko Aldizkari Ofiziala (BOE), 311. zk., 29313-29424.
- European Union Agency for Fundamental Rights (2013). *EU LGBT survey – European Union lesbian, gay, bisexual and transgender survey. Results at a glance*. Luxemburgo: Publications Office of the European Union. doi:10.2811/37741
- Eusko Jaurlaritza (2015). *Eskola-jazarpen kasuetan ikastetxeetan jarduteko gida*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Eusko Jaurlaritza (2016a). *Berdindu*. <https://www.euskadi.eus/informacion/berdindu-eskolak/web01-a2berdin/es/> webgunetik berreskuratua.
- Eusko Jaurlaritza (2016b). *Guía de atención integral a las personas en situación de transexualidad*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. doi:10.13140/RG.2.1.5182.1686
- Eusko Jaurlaritza (2020). *Bizikazi*. <https://ikasgunea.euskadi.eus/es/web/bizikazi> webgunetik berreskuratua.
- Fernández, M., eta García-Vega, E. (2011). Surgimiento, evolución y dificultades del diagnóstico del transexualismo. *Revista de la Asociación Española de Neuropsiquiatría*, 32(113), 103-119. doi: 10.4321/S0211-57352012000100008

- Ferrer, R., Albaladejo, N., Sánchez, M., Portilla, I., London, O., eta Ruiz, N. (2019). Effectiveness of the TEI Program for Bullying and Cyberbullying Reduction and School Climate Improvement. *International Journal of Environmental Research and Public Health*, 16(4), 580. doi:10.3390/ijerph16040580
- Flanders, C. E. (2017). Under the Bisexual Umbrella: Diversity of Identity and Experience. *Journal of Bisexuality*, 1(17), 1-6. doi:10.1080/15299716.2017.1297145
- Fundación EDE (2016). *Lesbofobia, homofobia y transfobia en el sistema educativo. Un acercamiento cualitativo*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco.
- Garaigordobil, M. (2015). Cyberbullying en adolescentes y jóvenes del País Vasco: cambios en la edad. *Anales de Psicología*, 3(31), 1069-1076. doi:10.6018/analesps.31.3.179151
- Garaigordobil, M., eta Larrain, E. (2020). Acoso y ciberacoso en adolescentes LGTB: Prevalencia y efectos en la salud mental. *Comunicar: Revista Científica Iberoamericana de Comunicación y Educación*, 62, 79-90. doi:10.3916/C62-2020-07
- García, M., eta Vaca, E. (2009). *CONVES: Evaluación de la Convivencia Escolar*. Madril: TEA Ediciones.
- Gay & Lesbian Alliance Against Defamation (GLAAD). (2019a). *Where We are on TV Report* (14. informea). GLAAD Media Institute.
- Gay & Lesbian Alliance Against Defamation (GLAAD). (2019b). *Studio Responsibility Index* (7. informea). GLAAD Media Institute.
- Gehitu (2006). *Gehitu: Euskal Herriko lesbiana, gay, bisexual, trans eta intersexualen elkarte*. <https://www.gehitu.org/> webgunetik berreskuratua.
- Generelo, J. (2008). El bullying homofóbico: la cara oculta del acoso escolar. Ararteko (ed.), *Adolescentes y jóvenes lesbianas, gays, transexuales y bisexuales: dificultades y rechazos en su desarrollo personal, en sus relaciones y en su socialización* (43-54 orr.). Madril: Ararteko.

- Generelo, J. (2012). *Informe de resultados de la investigación: “Acoso escolar homofóbico y riesgo de suicidio en adolescentes y jóvenes LGB”*. Madril: Área de Educación de FELGTB – Comisión de Educación de COGAM.
- Generelo, J., eta Pichardo, J. I. (2005). *Homofobia en el sistema educativo*. Madril: COGAM.
- Generelo, J., Moreno, O., Álvarez, J. J., Carbonell, L., Cortés, J. A., Gómez, A. B., ... Montero, M. L. (2007). *Diferentes formas de amar: Guía para educar en la diversidad afectivo-sexual*. Madril: CCOO eta COGAM.
- González, A. (2015). Programa TEI “Tutoría entre iguales”. *Innovación Educativa*, 25, 17-32. doi:10.15304/ie.25.2854
- Haurren Eskubideen Adierazpena, 1959ko azaroak 20koa, Nazio Batuen Batzar Nagusia, 1386 (XIV) erresoluzioa.
- Holthaus, C. (2014). The Future of Bisexual Activism. *QED: A Journal in GLBTQ Worldmaking*, 1(2), 22-36. doi:10.14321/qed.2.1.0022
- Indarkeriaren aurrean haurrak eta nerabeak babesteko Lege Organikoaren aurreproiektua. https://www.mscbs.gob.es/normativa/audiencia/docs/LO_proteccion_integral_violencia_menores.pdf webgunetik berreskuratua
- Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI). (2019). *Ikaskideen arteko tratatu txarrak 2018*. Bilbao: ISEI-IVEI.
- Kärnä, A., Voeten, M., Little, T. D., Alanen, E., Poskiparta, E., eta Salmivalli, C. (2012). Effectiveness of the KiVa Antibullying Program: Grades 1-3 and 7-9. *Journal of Educational Psychology*, 105(2), 535-551. doi:10.1037/a0030417
- Lamas, M. (2007). El género es cultura. V. Campus Euroamericano de Cooperación Cultural, Almada (Portugal), maiatzak 8-12.
- López, M. T. (2016). Descontento y masculinización social: con la A de Asexualidad. *Revista de Estudios de Juventud*, 111, 27-41.
- Miranda-Mendizábal, A., Castellví, P., Parés-Badell, O., Almenara, J., Alonso, I., Blasco, M. J., ... Alonso, J. (2017). Sexual Orientation and suicidal behaviour in

- adolescents and Young adults: systematic review and meta-analysis. *The British Journal of Psychiatry*, 211, 77-87. doi:10.1192/bjp.bp.116.196345
- Mujika, I. (2007). *Visibilidad y participación social de las mujeres lesbianas en Euskadi*. Gasteiz: Ararteko.
- Mujika, I. (2011). *Informe sobre situación de la diversidad afectivo-sexual en la educación secundaria*. Bilbao: Aldarte.
- Mujika, I., eta Ureta, A. (2007). *Orientación sexual: guía para jóvenes*. Bilbao: Aldarte.
- Mujika, L., Villar, G., eta Rueda, C. (2019). *Glosario de términos: un aporte de conceptos para acercarse a la diversidad sexual y de género (DSyG) según la perspectiva de Aldarte*. Bilbao: Aldarte.
- Naizen (2020). *Naizen: Adingabe Transexualen Familien Elkarte*. <https://naizen.eus/> webgunetik berreskuratua.
- Olweus, D. (1993). *Bullying at School: What We Know and what We Can Do*. Oxford: Blackwells.
- Oñate, A., eta Piñuel, I. (2007a). *Acoso y violencia escolar en España: Informe CISNEROS X*. Madril: Educandi.
- Oñate, A., eta Piñuel, I. (2007b). *Test AVE, Acoso y Violencia escolar*. Madril: TEA Ediciones.
- Ortega, R. (1997). El proyecto Sevilla Anti-Violencia escolar. Un modelo de intervención preventiva contra los malos tratos entre iguales. *Revista de Educación*, 313, 143-158.
- Ortega, R., eta del Rey, R. (2001). Aciertos y desaciertos del Proyecto Sevilla Anti-Violencia Escolar (SAVE). *Revista de Educación*, 324, 253-270.
- Padilla, J. (2018). *Dados: material didáctico*. Ventrículo Veloz.
- Pichardo, J. I., de Stéfano, M., Faure, J., Sáenz, M., eta Williams, J. (2015). *Abrazar la diversidad: propuestas para una educación libre de acoso homofóbico y transfóbico*. Madril: Instituto de la Mujer y para la Igualdad de Oportunidades.



- Pichardo, J. I., Molinuevo, B., Martín, N., Romero, M., eta Rodríguez, P. O. (2007). *Actitudes ante la diversidad sexual de la población adolescente de Coslada (Madrid) y San Bartolomé de Tirajana (Gran Canaria)*. Madril: FELGTB.
- Platero, R., eta Gómez, E. (2007). *Herramientas para combatir el bullying homofóbico*. Madril: Talasa.
- Poynter, K. J. (2016). Bisexuality and pansexuality workshop. In Poynter, K. J. (Ed.), *Safe Zones: Training Allies of LGBTQIA+ Young Adults-n* (43-60 orr.). Lanham, MD: Rowman & Littlefield.
- Ramírez, M. M., eta Cobo, S. (2013). La ficción gay-friendly en las series de televisión españolas. *Nueva época*, 19, 213-235.
- Real Academia Española (RAE). 23^a ed. Homofobia. [online]. <https://dle.rae.es/?w=homofobia> -n eskuragai [2020ko martxoaren 26an kontsultatua].
- Real, L. (2017). *La representación de la homosexualidad en las series de televisión del nuevo milenio*. Sevilla: Universidad de Sevilla.
- Ream, G. L. (2019). What's Unique About Lesbian, Gay, Bisexual, and Transgender (LGBT) Youth and Adult Suicides? Findings From the National Violent Death Reporting System. *Journal of Adolescent Health*, 5(64), 602-607. doi:10.1016/j.jadohealth.2018.10.303
- Risquez, S. (2017ko ekainaren 27a). *La representación LGTB en las series de televisión*. <https://elrincon.tv/series/representacion-lgtb-series-de-tv/> webgunetik berreskuratua.
- Rodríguez, S. (2017ko otsailaren 27a). El “autobús del odio” de los ultras de Hazte Oír campa a sus anchas por España. *Público*. <https://www.publico.es/tremending/2017/02/27/twitter-el-autobus-del-odio-de-los-ultras-de-hazte-oir-campa-a-sus-anchas-por-espana/> webgunetik berreskuratua.
- Salmivalli, C., Lagerspetz, K., Björkqvist, K., Österman, K., eta Kaukiainen, A. (1996). Bullying as a group process: participant roles and their relations to social status within the group. *Aggressive Behaviour*, 22, 1-15.

Vagalume. (2017ko abuztuaren 30a). “Cobardes” – *Un cortometraje de Lambofilms*.
<https://www.youtube.com/watch?v=VOjs4j3bQhc> webgunetik berreskuratua.

Villaba, P. (2018). *Quiéreme con mi diversidad. Identidad y diversidad afectivo-sexual y familiar. Guía didáctica*. Madril: Asociación GALEHI.

7. Eranskinak:

7.1. I. eranskina:



Azken irudiak, Chrysaliss (2020) elkartearen web orrialdetik ateratakoak dira.

7.2. II. eranskina:

Taula hau tamaina handian inprimatu beharko da, gela osotik ikusteko moduan. Ondoren agertzen diren esaldiak ere inprimatu eta moztu beharko dira. Guztia kartulina

baten gainean itsasten bada, zurrunagoa, erosoagoa eta iraunkorragoa izango da. Esaldi bakoitzaren atzealdean belkro zati bat eta taularen zati bakoitzean beste zatia kokatuko da, jolasterako orduan esaldiak nahi bezala kokatu eta lekuz aldatu ahal izateko.

GEZURRA	EGIA

Gayak diren bikote batean, batek emakumearen rola hartzen du.

Bi gizon ezin dira ezkondu.

Familia bat gizon eta emakume batek osatzen dute.

Lesbianak diren emakumeei emakume guztiak gustatzen zaizkie.

Heterosexuala izatea normala izatea da.

Guraso homosexualak izateak seme-alaba homosexualak izatea eragiten du.

Pertsona bisexualek gizon nahiz emakumeekin harremanak izan ditzakete.


Gay izateak ez du esan nahi neska bat izan nahi denik.

Pertsona bat homosexual jaiotzen da, ez da homosexual bilakatzen.

Pertsona askok ez dute inorenganako erakarpenik sentitzen.

Homosexualitatea sendatu daitekeen gaixotasun bat da.

7.3. III. eranskina:



8.4. IV. eranskina:

Tokatu zaizun
generoarekin bat
datorren ofizio
bat

Pilota bat jaurti

Jolastu

Borrokatu

Korrika egin

Ibili

Tokatu zaizun
generoarekin bat
datorren etxeko
lan bat

Negar egin

Kalera irteteko
prestatzea

7.5. V. eranskina:



Sally Kristen Ride



Isaac Newton



Caitlyn Jenner



Tom Daley



Neil Patrick Harris



Laverne Cox



Jon Kortajarena



Virginia Woolf



Coco Chanel



Leonardo da Vinci



Madonna




Platón



Emma Goldman




Julio César




Federico García Lorca



Frida Khalo



Miguel Ángel



Miley Cyrus



Paco León



Aquiles





William Shakespeare


7.6. VI. eranskina:



7.7. VII. eranskina:



7.8. VIII. eranskina:



Nola deitzen ziren ipuineko protagonistak?

- A) Zuri eta Lore.
- B) Iris eta Lila.

Gizon batek beste gizon bat gustuko duenean...

- A) gaya dela esaten da.
- B) Lesbiana dela esaten da.

Norbaiti gauza bat apurtzea eskola-jazarpena da?

- A) Bai.
- B) Ez.

Nork sufritzen ditu eskola-jazarpenaren ondorioak?

- A) Biktimak bakarrik.
- B) Biktimak, erasotzaileak eta ikusleak.

Eskola-jazarpenaren aurrean ezer ez egiteak...

- A) Lagun ona bilakatzen nau.
- B) Konplize bilakatzen nau.

Pertsona homosexualak ezkondu daitezke?

- A) Bai.
- B) Ez.

Nola izendatzen da sexua berresleitzeko ebakuntza egiten ez duen pertsona trans* bat?

- A) Travesti.
- B) Transgenero.

Miley Cyrus


Kaitlyn Jenner

Sally Kristen Ride






Frida Khalo

Julio Cesar

Jon Kortajarena



Virginia Woolf



Orientazio-sexual

Eskola-jazarpenaren
ondorioak

Eskola-jazarpena
kotsideratzen diren
jokabideak

Eskola-jazarpena
kotsideratzen diren
jokabideak

Bisexualitatea

Sexu biologikoa

Sexua berresleitzeko
ebakuntza

Genero-identitatea

Orientazio-sexuala

Transexualitatea

8. Txosten exekutiboa:

1. ATAL TEORIKOA:

Lan honetan LGTB* izateagatik sufritu daitekeen eskola-jazarpena prebenitzeko helburua daukan programa baten diseinua planteatzen da. Horregatik, aurretik genero-identitatea eta sexu-orientazioa eta eskola-jazarpenaren fenomenoak aztertzea beharrezkoa da.

A) Genero-identitatea eta sexu-orientazioa:

Lehenik, sexu-biologikoa eta generoa desberdindu behar dira. Sexu-biologikoa jaiotzerakoan pertsona batek dituen genitalen arabera da (genital maskulinoak edo femeninoak). Sexu-biologikoa kontuan izanda, jendartean onartuta dagoen generoa esleitzen da (genital femeninoak izateagatik emakumea zara eta maskulinoak izateagatik, gizona). Genero horrekin identifikatzera iristen da pertsona bat sozializazioaren ondorioz, jendarteak ezaugarri femeninoak edo maskulinoak inposatzen dituelako.

Genero-identitatea, beraz, norbanakoak bere generoari buruz duen pertzepzioa da. Sexu-biologikoak eta norbanakoak sentitzen duen generoak bat egiten dutenean, zisgeneroa da pertsona hori; aldiz, sexu-biologikoak eta generoak bat egiten ez dutenean, transgeneroa da pertsona hori. Transgeneroek hormonazio eta kirurgiaren bidez, sentitzen duten generoaren ezaugarri fisikoak lortu ditzakete. Pertsona intersexualak jaiotzerakoan genital anbiguoak dituzte eta medikuak erabakitzen du zein genero esleituko zaion jaioberriari. Genero dibertsitate zabalagoa existitzen da. Genero-adierazpena norbanakoak sentitzen duen genero hori adierazteko modua da, generoarekin bat egin dezakeena edo ez.

Sexu-orientazioa, beste pertsona batetik sentitzen den erakarpen emozional, erromantiko, sexual eta afektiboa da. Pertsona heterosexualek kontrako generoarekiko erakarpena sentitzen dute. Pertsona homosexualek beren genero berdinarekiko erakarpena sentitzen dute (gizonei gay deitzen zaie eta emakumeei lesbiana). Homosexualak maneratsuak direla esan ohi da, sozialki haien generoarekin lotzen ez diren keinuak edo portaerak dituztenean. Pertsona bisexualak genero bat baino gehiagorekiko erakarpena sentitzen dute. Pertsona asexualek, ez dute erakarpen sexualik sentitzen edo jarduera sexuarekiko interes gutxi daukate.

LGTB* siglak lesbianek, gayek, bisexualak eta transexualek (eta arau ez diren edo normatiboak ez diren genero edo sexualitatea daukan edonork) osatzen duten taldea izendatzeko erabiltzen dira.

Zisheterosexualitatea arau modura dago ezarrita jendartean eta normatibitate horretatik ateratzen den edonor baztertu, diskriminatu eta zigortu egiten da. Horren ondorioz, kolektibo honekiko gutxiespena existitzen da: LGTB*fobia. Genero-identitate eta orientazio-sexual bakoitzarekiko arbuioa espezifikoa da (homofobia, lesbofobia, bifobia, transfobia...). LGTB kolektiboaren aurkako manifestazio hauek kulturaren eremu askotan ikus daitezke. Horien artean, eskola eremua da aipagarri, non eskola-jazarpena izeneko fenomeno gertatzen den.

Azken mendetik gaur egun arte, aldaketa nabariak gertatu dira LGTB* kolektiboaren onarpenean. Onarpen hori legedian, osasun mentalaren eremuan eta ikusgarritasunean islatuta geratu da.

Azken mendean homosexuala izatea delitu kontsideratu zen (Francoren diktaduraren garaian). Gizonezkoak lan-establezimendu edo kolonietan barneratzen zituzten. Emakumeak aldiz, familiaren tutelapean geratzen ziren, eta horiek komentu edo psikiatrikoan sartzen zituzten. Bi kasuetan abertsio-terapiak egiten zizkieten eta mota guztietako umiliazioak jasaten zituzten. 1995ean, Kode Penalarekin, homosexualitatea zigortu beharrean babestu egin zen.

DSM-Iean homosexualitatea eta transexualitatea gaixotasun mentalak kontsideratzen ziren. 1987ean homosexualitatearen inguruko diagnostiko oro ezabatu zen DSMtik. Hala ere, gaur egun, genero disforia izenarekin ezagutzen den terminoa agertzen da DSMan, transexualitatearekin zerikusia daukana. Genero disforia norberak sentitzen eta adierazten duen sexuaren eta esleitzen zaionaren arteko inkongruentzia nabarmena da.

Gaur egungo legediak orientazio-sexual eta genero-identitate dibertsitatea babesten ditu. LGTB* komunitatea babesten duten lege desberdinak aurkitu daitezke nazioarteko legedian (Haurren Eskubideen Adierazpena, adibidez), Estatu Espainiarreko legedian (Espainiako Konstituzioa eta Kode Penala, adibidez) eta lege autonomikoetan.

Kode Penalean biktimaren sexu zein sexu-joeragatik delitua egitea inguruabar astungarria kontsideratzen da (22. artikulua), eta artikulua espezifikoak ere aurkitzen

ditugu sexu-orientazioa eta genero-identitatea babesten dituztenak (170., 510., 511., 512., 515. artikulua eta abar).

Nahiz eta legediak LGTB* kolektiboa babesten duen, egunerokotasunean oraindik zailtasun asko aurkitzen dituzte. Kolektibo honen inguruan oraindik aurreiritzi eta estereotipo asko daude (adibidez, gay bikote batean horietako bat “emakumea” dela eta lesbianen bikote batean gizonetzkoen organo baten falta dagoela edo pertsona bisexualak biziosoak direla). Gainera, ezjakintasun handia dago sexu-orientazio eta genero-identitateen inguruan.

Telebistak haur eta nerabeengan eragin handia daukan arren, familiak eta lagunek bezala, telebista eta zineman LGTB* diren pertsonaien irudikapena eskasa da, eta horiek agertzen badira modu estereotipatuan egiten da.

Zisheterosexualitatek ateratzen diren genero-identitate eta sexu-orientazio desberdinekiko gutxiespena oraindik existitzen da. Gainera, ezjakintasunak ere kolektiboari buruzko aurreiritzi eta estereotipoak sustatzen ditu. Egoera hau, eskola-eremuan ere aurkitzen da, eskola-jazarpena izenez ezagutzen den fenomeno sortuz.

B) Eskola-jazarpena:

Eskola-jazarpena haur batzuk beste batzuekiko modu errepikatuan eta denbora batez daukaten indarkeriazko jokabidea da. Hori hitzezkoa, fisikoa, larderiezkoa, sexuala, psikologikoa eta soziala izan daiteke. Gainera, ziber-jazarpena ere existitzen da (sare-sozialen medioz egiten dena). Egoera horrek biktima babesgabetasun egoera batean kokatzen du eta handik ateratzeko zailtasunak ditu. LGTB* izateagatik sufritu daitekeen eskola-jazarpenak ezaugarri zehatzak ditu: ikusezintasuna, biktimak seinalatua nahi ez izatea, familien laguntza falta, estigma kutsatzea, homofobiaren normalizazioa eta abar.

Jazarpenaren subjektuak hiru dira. Lehenengoa biktima da. Hau eskola-jazarpena jasaten duen ikaslea da eta LGTB* izateagatik, halakotzat hartzen delako edo LGTB* pertsona batekin harremanen bat duelako (adibidez, bi ama dituelako) bihurtzen da biktima. Bigarrena erasotzailea da. Hau eskola-jazarpena burutzen duen pertsona da, normalean biktimak baino gorputz handiagoa dauka. Hirugarrena ikuslea da. Ikusleak eskola-jazarpenaren lekuko dira. Biktima bilakatzeko beldurra daukate. Era berean, erasotzaile bilakatu daitezke.

Eskola-jazarpenak ondorio desberdinak ditu subjektu desberdinetan. Beti ere, indarkeria mota honek dakarren ondorio nagusia LGTB*fobia mantentzea da. Biktimek, eskola-jazarpenaren ondorioz autoestimu baxua, nortasun arazoak, eskola-porrota, barneratutako homofobia, norbere buruaz beste egiteko ideiak edo saiakerak... aurkezten dituzte. Erasotzaileek eskola porrota, ondorio penalak eta abar izan ditzateke. Ikusleek gehienbat, jokabide oldarkorra garrantzitsutzat eta errespetagarritzat jotzen dute, besteen sufrimenduaren aurrean sentsibilizazio falta aurkezten dute eta abar.

Orientazio-sexuala eskola-jazarpenera jasateko arrisku-faktorea da, gutxienez hiru aldiz handiagoa baita ikaskide heterosexualek erakutsitako datuekin alderatuta. Orokorrean, hitzezko tratu txarra eta indarkeria soziala dira maiztasun handieneko jazarpen mota, eta, jazarpen sexuala eta armekin mehatxatzea maiztasun txikia daukatenak. Beraz, jazarpen motaren maiztasuna haren larritasunaren alderantzizkoa da proportzionalki.

Eskola-jazarpenera Lehen Hezkuntzan hasten da eta adinarekin honen maiztasunak behera egiten du. Normalean erasotzaileak biktimaren gela berekoak dira. Generoari dagokionez, mutilek presentzia handiagoa daukate bai erasotzaile moduan eta bai biktima moduan. Mutilek hitzezko tratu txar, zuzeneko indarkeria fisiko eta mehatxuen bidezko indarkeria egin ohi dute; neskek, aldiz, indarkeria soziala eta besteei buruz gaizki hitz egitea egin ohi dute. Eraso gehienak klase barruan, patioan, nahiz kalean gertatzen dira, irakasleak edo helduak presente ez daudenean. Bai biktimek eta bai erasotzaileek eskola-jazarpenera justifikatzen dute. Horien arean, ikasle askok homosexualak mespretxuz tratatzea zuzena dela uste dute eta beste hainbestek homosexualak kasu jakin batzuetan mespretxuz tratatzea zuzena dela uste dute. Era berean, biktimek eraso horiek merezi zituztela aitortzen dute.

Eskola-jazarpenaren biktima askok ez dute egoera salatzen eta egiten dutenean gehienbat lagunengana jotzen dute. Era berean, laguntza ematen dutenak, gehienetan lagunak izan ohi dira. Hala ere, biktima askok, ez dute inolako laguntzarik jasotzen. Honek, eskola jazarpenaren ikusezintasuna bermatzen du. Biktima ez-heterosexualek zaugarriatsun handiagoa daukate biktima heterosexualekin konparatuz. Sintoma gehiago aurkezten dituzte aztertutako nahasmendu psikopatologiko guztietan (somatizazioa, depresioa, antsietatea, antsietate soziala, ideia paranoideak...) eta norbere buruaz beste egiteko probabilitate handiagoa daukate.

Beraz, eskola-jazarpena fenomeno larria da eta eskola leku ez-segurua bilakatzen du LGTB* diren ikasleentzat. Horregatik egoera hauek prebenitzea beharrezkoa da. Horretarako, LGTB* kolektiboak eskola-jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko baliabide desberdinak ditu eskuragai.

Euskal Autonomia Erkidegoko elkarte desberdinek (Errespetuz, Gehitu, Aldarte eta Naizen, askoren artean) jardura desberdinak antolatzen dituzte LGTB* kolektiboari ikusgarritasuna emateko, diskriminazioarekin bukatzeko, eskubideen alde egiteko eta laguntza nahiz informazioa eskaintzeko.

Eskola-jazarpena detektatzeko eskola-jazarpenaren adierazleak hauteman daitezke ikasleen portaera behatuz edo ikasleei eta irakasleei zuzenean testak pasatuz. Eskola-jazarpenaren adierazleak detekta daitezke eskolan (adibidez, biktimak eskola errendimendua gutxitzea) nahiz etxean (adibidez, biktimak etxean ohikoak ez diren jarrera oldarkorrak erakustea). Eskola-jazarpena detektatzeko test desberdinak biktimak eta erasotzaileak identifikatzeko (eskola-biktimizazioan parte hartzen duten rolen eskala, adibidez), ikastetxe batean eskola-jazarpenaren maiztasuna ezagutzeko (AVE testa, adibidez) nahiz eskola-jazarpenaren ondorioak ezagutzeko erabili ohi dira.

Eskola-jazarpena ekiditeko programa desberdinak existitzen dira. Horien artean, KiVa programa, TEI programa eta SAVE programa aurkitu daitezke.

Era berean, eskola-jazarpena ekiditeko beste motatako baliabideak existitzen dira, horien artean Bizikasi ekimena, Berdindu! zerbitzua, “Abrazar la diversidad: propuestas para una educación libre de acoso homofóbico y transfóbico” gida eta “Diversidad sexual en las aulas. Evitar el bullying o acoso homofóbico” gida aurkitu daitezke.

Eskola-jazarpen kasu baten aurrean nola jardun azaltzen duten bi gida azaltzen dira lan honetan. Biek, komunean pausu batzuk dituzte:

1. Eskola-jazarpeneko egoera salatzea edo notifikatzea.
2. Salatutako egoeraren ikerketa burutzea. Horretarako inplikaturako pertsonekin hitz egingo da, irakasle desberdinekin hitz egingo da...
3. Familiari egoeraren berri emango zaie eta hartuko diren neurriak jakinaraziko zaizkie. Behar diren kasuetan prebentzio-neurriak hartuko dira.
4. Lortutako informazioarekin egoeraren balorazioa egingo da. Eskola-jazarpeneko kasu bat egon dela baieztatzen bada, esku-hartzea burutuko da.

Eskola-jazarpeneko kasu bat ez dela egon baieztatzen bada, protokoloa artxibatuko da. Egitateen larritasunaren arabera, egitate arinak direnean hezkuntza-tratamendua gauzatuko da, eta egitatea larriak direnean bide penalera bideratuko da.

5. Esku-hartzea erabakitzen den kasuetan neurri desberdinak hartuko dira biktimari, erasotzaileari, familiari, klase osoari zuzendutakoak eta abar.
6. Azkenik, egoeraren jarraipena egingo da.

2. ATAL PRAKTIKOA:

LGTB* izateagatik sufritu daitekeen eskola-jazarpena larritasun handiko fenomeno da, zeina ez den bakarrik eskola-eremura mugatzen (bizitzaren beste eremu batzuetan ere eragin duelako). Horregatik, LGTB* kolektiboari buruzko informazioa eskaintzea beharrezkoa da, dibertsitatea normalizatzeko. Era berean, eskola-jazarpenaren aurkako jarrera sustatu behar da, LGTB* diren ikasleen aurkako indarkeria, diskriminazio edo intolerantzia kasuak ekiditeko.

LHko hirugarren mailako ikasleei zuzendutako programa planteatzen da lan honetan. Eskola-jazarpenaren fenomeno gehienbat nerabezaroan ematen denez, adin horretara iritsi baino lehen programa bat burutzea onuragarria izan daiteke prebentzioaren ikuspuntutik. Era berean, gazteek haien sexu-orientazioaren eta genero identitatearen inguruan izan ditzaketan zalantzak argitzeko lagungarria izango da. Haien generoa edo orientazio-sexuala zalantzan jartzen ez duten ikasleentzat ere baliagarria izango da, jarrera positibo eta ulerkorra izango dutelako haien ikaskideekiko.

Eskola-jazarpena prebenitzera zuzenduta dauden programa gehienak orokorrak dira, ikasle nagusiagoentzako zuzenduta daude eta eskola-jazarpena gertatu ondoren burutzeko pentsatuta daude. Beraz, hurrei zuzendutako eta LGTB* izateagatik sufritu daitekeen eskola-jazarpena prebenitzera zuzendutako programa espezifikoa bat planteatzea beharrezkoa da.

A) PROGRAMAREN HELBURUAK ETA EZAUGARRIAK:

Programaren helburu orokorrak ondorengo hauek dira: eskola-jazarpeneko jokabideak prebenitzea, ikasgelan nahiz ikasgelatik kanpo, eskola-jazarpenaren aurkako

jarrera sustatzea genero-identitate eta sexu-orientazioei buruzko informazioa eskaintzea, LGTB* kolektiboaren inguruko mito eta estereotipoak ekiditea, sexu- eta genero-aniztasunarekiko jarrera tolerantia sustatzea eta egunerokotasunean sexu-orientazio eta genero-identitate aniztasuna normalizatzea.

Programak bederatzi saio izango ditu, genero-identitatearen, sexu-orientazioaren eta eskola-jazarpenaren ingurukoak. Landuko diren edukiak adinerako egokituta egongo dira, bide didaktikoak eta entrenigarriak erabiliz. Saioak kurtsoan zehar banatuko dira eta bakoitzak ordu eta erdiko iraupena izango du. Programa klasean bertan burutuko da, tutoreak erabakitako orduetan, ikasleen beharren arabera.

Programa emateaz kriminologia edo psikologian graduatu bat arduratuko da, edo eskola-jazarpenari buruzko formakuntza espezifiko duena.

B) SAIOAK:

<i>Saioa</i>	<i>Helburu orokorrak</i>	<i>Jarduerak</i>	<i>Denbora</i>	<i>Jolasa</i>
<i>Lehenengo saioa: Sexua vs. generoa</i>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Giro lasaia eta parte-hartzailea sortzea, beren esperientziak eta iritziak partekatzeko eroso senti daitezten. 2. Sexu eta genero kontzeptuen arteko desberdintasunei buruzko ezagutza maila aztertzea. 3. Sexu- eta genero-aniztasunari buruzko sarrera egitea. 	Lehenengo jarduera	15 minutu	Izen erronda
		Bigarren jarduera	45 minutu	Post-itak
		Hirugarren jarduera	30 minutu	Irudiak azaldu
<i>Bigarren saioa: Sexu-orientazioa</i>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Sexu-orientazioen inguruan dauden estereotipoak eta aurreiritziak ezabatzea. 2. Dibertsitate sexuala normalizatzea. 	Lehenengo jarduera	10 minutu	Birpasatzeko galderak
		Bigarren jarduera	45 minutu	“Iris eta Lila” ipuina
		Hirugarren jarduera	35 minutu	Egia ala gezurra
<i>Hirugarren saioa: Transexualitatea</i>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Genero-identitatea eta horren dimentsio desberdinak ulertzea. 2. Transexualitatearen inguruko tabu, aurreiritzi eta estereotipoekin bukatzea. 3. Transexualitatea normalizatzea. 4. Genero dibertsitatearen aurrean jarrera aldatzea. 	Lehenengo jarduera	25 minutu	Role-playinga
		Bigarren jarduera	10 minutu	Birpasatzeko galderak
		Hirugarren jarduera	55 minutu	Elkarrizketak eta mimika
<i>Laugarren saioa: LGTB* komunitatearekin loturiko estereotipoak</i>	<ol style="list-style-type: none"> 1. LGTB* kolektiboen inguruan existitzen diren aurreiritziak eta estereotipoak identifikatu eta desmitifikatu. 2. Maskulinitate eta feminitatearen adierazpena landu eta horren inguruko aurreiritziak desmitifikatu. 	Lehenengo jarduera	10 minutu	Birpasatzeko galderak
		Bigarren jarduera	80 minutu	Marraztea

<i>Bostgarren saioa:</i> <i>LGTB* izatea</i> <i>egunerokotasunean</i>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Historiako pertsonaia LGTB* desberdinak ezagutzea. 2. LGTB* diren erreferentziazko pertsonak ezagutzea. 	Lehenengo jarduera	60 minutu	LGTB* pertsonaien aurkezpenak
		Bigarren jarduera	30 minutu	Bideoa
<i>Seigarren saioa:</i> <i>Eskola-jazarpena</i>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Eskola-jazarpenaren inguruko lehen hurbilketa egitea. 2. Klasean giro ona sortzeko arauak sortzea, zeintzuek arbuiatzen baitituzte eskola-jazarpena kontsideratzen diren jokabideak. 3. Eskola-jazarpen motak eta horien ondorioak ezagutzea. 4. Eskola-jazarpenaren aurrean ikasleen erantzuna aztertzea. 	Lehenengo jarduera	35 minutu	Arau zerrenda
		Bigarren jarduera	20 minutu	Idea-jarioa
		Hirugarren jarduera	35 minutu	“Cobardes” film laburra
<i>Zazpigarren saioa:</i> <i>Eskola-jazarpena</i>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Talde kohesioa sustatzea. 2. Bizikidetzeta-giro ona sustatzea. 3. Eskola-jazarpenaren aurrean ikasleek nola jokatuko luketen aztertzea. 4. Eskola-jazarpenaren aurrean zer egin behar den ikastea. 	Lehenengo jarduera	10 minutu	Birpasatzeko galderak
		Bigarren jarduera	40 minutu	Zutaz maitemintzen naiz
		Hirugarren jarduera	40 minutu	Isildu edo salatu
<i>Zortzigarren saioa:</i> <i>Ziberbullyinga</i>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ziberbullyingaren berezitasunak aztertu. 2. Ziberbullyingaren inguruko aurreiritziak desmitifikatu. 3. Ziberbullyingaren kontrako jarrera sustatu. 4. Ziberbullyingaren aurrean nola jarduteko gomendioak eman. 	Lehenengo jarduera	10 minutu	Birpasatzeko galderak
		Bigarren jarduera	40 minutu	Semaforoa
		Hirugarren jarduera	40 minutu	Balizko egoerak
<i>Azken saioa</i>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Aurreko saio guztien erreposaoa egin eta geratzen diren zalantza guztiak argitu. 2. Programan zehar landutakoa ikasi den ebaluatzea. 	Lehenengo jarduera	90 minutu	OCA

D) EZTABAIDA:

Programa honen bitartez LGTB* kolektiboarekiko tolerantzia eta normalizazioa sustatzen da, aurreiritzi eta estereotipoak murriztuz eta sexu-orientazioa eta genero-identitatearen garapen askerako giroa sortuz. Era berean, LGTB* izateagatik etorkizunean gerta litezkeen eskola-jazarpenaren kasuak prebenitzen dira, ikasgelan nahiz ikasgelatik kanpo, indarkeriaren kontrako jarrera sustatzen delako programari esker. Beraz, programa honen aplikazioarekin LGTB* diren ikasleen bizi kalitatea hobetuko litzateke. Haurrei haien genero-identitatea eta sexu-orientazioa askatasunez garatzeko aukera eskaintzen zaielako, ikaskideek jarrera positiboa eta ulerkorra dutelako. Halaber, LGTB* izateagatik eskola-jazarpena sufritu dezaketen ikasleen bizitzaren beste eremu asko ez lirateke afektatuak izango (eskola-errendimendua, osasun-mentala, osotasun fisikoa...), eskola-jazarpeneko egoera batean gertatzen den kasuen antzera.

Programaren emaitzak epe luzean espero dira eskola jazarpenaren fenomenoak 12-13 urterekin hasten delako. Beraz, programa 7-8 urteko ikasleekin lantzen denez, etorkizunean posibleak liratekeen eskola-jazarpen egoerak prebenitzea lortuko da.

Mota honetako programak aplikatzeko alderdi politikoen babesa beharrezkoa da, LGTB* kolektiboaren babesa legetatik praktikara eraman ahal izateko. Oraindik zisheterosexualitate normatiboa nagusi da eta hortik ateratzen diren ikasleak diskriminatzen dira, nahiz eta legedia pertsona hauek babesten saiatzen den.

Horregatik, ikastetxeek LGTB*fobiaren aurka egin behar dute, zuzenean (programen bitartez) edo zeharka (irakasgai desberdinetan LGTB* gaiarekin zerikusia daukaten gaiak landuz). Era berean, sexualitateari buruzko tailerretan garrantzitsua da harreman heterosexualei buruz bakarrik ez hitz egitea eta gainerako harreman sexual eta generoak kontuan izatea.

Laburbiltzeko, eskola LGTB* kolektiboarentzako eremu segurua izatea ezinbestekoa da eta horretarako baliabide desberdinak beharrezkoak dira. Horien artean lan honetan proposatzen den programa sartu daiteke. Espainiar Konstituzioan aipatzen diren eskubideen babesa eraginkorra egin behar delako.